

gida"  
soko  
Gida'.



Goienakide txartel digitala:  
deskontuak  
Debagoieneko  
komertzioetan.



Goienakide izatearen  
abantailak eta  
zozketak.



'Goiena' aldizkariaren  
zenbaki guztiak eskura,  
inon baino lehenago.



Goiena telebista  
zuzenean,  
nahiz nahieran.





# Zu hemen zaude. goiena



## GARBIKETAK EGINDA, BAINURAKO GERTU

Oñatiko Usakoko putzua garbi utzi dute zapatutik aurrera erabili ahal izateko; Arrasateko Musakolako kanpoko igerilekuak astelehenean irekiko dituzte eta Bergarako Agorrosingoak gaur; horrenbestez, udako denboraldia hasiko da eskualdeko bainu-tokietan / 3

Mutrikuko Buceo Euskadi urpekari enpresako kide bi martitzen goizean Usakoko presan, ur azpian garbiketa lanak egiteko gertu. XABIER URZELAI

**COVID-19a: egoerak hobera egin du Debagoiengan, kutsatuen kopurua erdira murriztuta / 2**

### SINADURAK

|                                                                                                         |                                                                                                           |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------|
|  OIHAN VITORIA / 8   |  MIEL GURIDI / 31      |
|  PEDRO GARITANO / 22 |  ANDER ETXEBERRIA / 44 |

**Arrasate erdigunean beilatokia jartzearen aurka mila sinadura batu arren, kokagune bereari eusten zaio / 11**

**Aramaioko Udala "arduratuta" dago azkenaldian izan diren apurketa eta pintaketengatik / 14**

 + Udalen aterkia, euskarari amasa emateko

Eneko Viñuela, eskoletako jantokien ereduez berbetan

**'Kaleak bizirik' diskoa atera dute Potx eta Lotx pailazoen, hamar kantu berriekin / 32**

VOLKSWAGEN ID4 ELEKTRIKOA



TEKNOLOGIA ETA ETORKIZUNA

**Udalaitz**

Gipuzkoa etorbidea, 30 • ARRASATE • 943 71 16 70








## KORONABIRUSA

## Intzidentzia-tasaren eboluzioa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA ETA NAFARROAKO GOBERNUA



## Positibo kasuak eta intzidentzia

|                | Positiboak<br>aste<br>honetan | Positiboak<br>aurreko<br>asteen | Positibo<br>metatuak | Positiboak<br>1.000<br>biztanleko | Intzidentzia tasa<br>14 eguneko,<br>100.000 biztanleko |
|----------------|-------------------------------|---------------------------------|----------------------|-----------------------------------|--------------------------------------------------------|
| Arrasate       | 10                            | 26                              | 3.096                | 140,20                            | <b>163</b>                                             |
| Oñati          | 10                            | 3                               | 1.378                | 120,16                            | <b>113</b>                                             |
| Bergara        | 6                             | 12                              | 1.596                | 106,15                            | <b>119</b>                                             |
| Aramaio        | 3                             | 2                               | 172                  | 116,22                            | <b>337</b>                                             |
| Eskoriatza     | 2                             | 2                               | 398                  | 97,00                             | <b>97</b>                                              |
| Aretxabaleta   | 0                             | 9                               | 792                  | 111,86                            | <b>127</b>                                             |
| Antzuola       | 0                             | 2                               | 240                  | 110,14                            | <b>91</b>                                              |
| Elgeta         | 0                             | 2                               | 64                   | 56,59                             | <b>176</b>                                             |
| Gatzaga        | 0                             | 2                               | 11                   | 44,00                             | <b>854</b>                                             |
| <b>GUZTIRA</b> | <b>31</b>                     | <b>60</b>                       | <b>7.747</b>         | <b>119,54</b>                     | <b>140</b>                                             |

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

# Nabarmen hobera egin du egoerak, kutsatuak erdira murriztuta

Azken egunetan 31 positibo izan dira, joan den astean baino 29 gutxiago. Bestalde, Osasun Ministerioak atzera egin du, eta Jaurlaritzaren esku utzi ostalaritzari eta gaueko aisiari lotutako neurriak. EAEko herritarren %54,6 ziztatu dute gutxienez behin

## Maialen Santos ARRASATE

Joan den egunetik eguazten honetara arte, 31 koronabirus kasu hauteman dituzte Debagoiengan. Joan den astean 29 positibo gutxiago izan ziren: denara, 60. Hori horrela, iazko martxoaz geroztik 7.741 lagun kutsatu dira ibarrean eta 169 hil; azkena joan den astean, Bergaran. Gaitza hartu dutenen %2,18 zendu da orain arte, horrenbestez

Herriz herri, Arrasaten eta Oñatin baieztatu dituzte positibo gehien -bietan, 10-, eta sei izan dira Bergaran kutsatuta. Aramaion hiru kasu izan dituzte azken zazpi egunetan eta Eskoriatzan, aldiz, bi. Gai nontzeko herrietan ez da positiborik izan azken egunetan.

Debagoieneko Ospitaleari dagokionez, atzo, lagun bakarra zegoen birusak jota ingresatuta, bertatik adierazi dutenez.

## INTZIDENTZIA-TASAREN EBOLUZIOA EAE-KO LURRALDEKOEN AZPITIK KOKATU DA ESKUALDEKO TASA

Joan den astea ezker, behera egin du Debagoieneko 100.000 biztanleko azken hamalau egunetako intzidentzia-tasak, eta 140,41an kokatu zen bart; EAEko hiru lurraldeek erregistratutako tasaren azpitik. Hain zuzen, Gipuzkoako eta Bizkaiko tasek ere behera egin dute azken astean, eta elkarren artean berdintsu kokatu ziren atzo -185,3an

eta 182,59an, hurrenez hurren-. Arabako tasak goranzko joera izan du azken egunetan, nahiz eta atzo behera egin zuen eta 150,81an kokatu. Nafarroakoak, azkenik, gorabeherak izan ditu azken astean, eta, beraz, aurreko astearekin alderatuta berdintsu mantendu da (132).

## NEURRI MURRIZTAILEAK JAURLARITZAREN ESKU OSTALARITZA ETA GAUEKO AISIALDIA

Aurreko eguaztenean, hainbat neurri malgutzea erabaki zuten Lurralde Arterko Osasun Kontseiluaren ostean, eta, erkidego ugarik horren kontra bozkatu arren, Espainiako Osasun Mi-

nisterioak ezarri egin zituen. Asteon, baina, atzera egin du eta tabernen eta gaueko aisialdiarekin lotutako neurriak erkidegoen esku utzi ditu.

Hori horrela, orain arte beza-la, ostalaritza eta kultur jarduerak 00:00ak arte luza daitezke eta aire zabaleko kirola mugarik gabe egin, besteak beste.

## TXERTAKETA KANPAINA

## HERRITARREN %34,6K AMAITU DUTE TXERTAKETA ZIKLOA

Koronabirusaren aurkako txertaketa kanpainaren baitan EAEan milioi eta erdi dosi baino gehiago jarri dituztela eman du adiztera Osasun Sailak. Zehazki,

eguaztenera arte Erkidegora iritsi diren 1.711.510 dosietatik, 1.585.380 jarri dituzte. 1.017.620 lagunek jaso dute ziztada bat -16 urtetik gorako %54,6- eta 643.978 dira txertaketa prozesua bukatu duten herritarrak -16 urtetik gorako %34,6-. Bestetik, %1,5 izan dira txertoa jarri ez dutenak -kontraindikazioengatik edo uko egin diotelako-.

Txertoen konpainiei erreparatuta, Pfizerren 1.089.204 txerto jarri dira, AstraZenecaren 276.809, Modernaren 276.809 eta Janssenen 55.841.

Azkenik, aste honetan hasi da Osakidetza 40 eta 49 urte arteko herritarrak txertatzen. Ohi moduan, adinez nagusienak direnekin ekin diote kolektibo horri dagokion txertaketari.

## Covid Ziurtagiri Digitala, eskuragarri

Europako Batasuneko herrialdeetara joan-etorriak erraztea helburu duten dokumentu zibilak aste honetatik aurrera eskura daitezke, nahiz eta uztailaren 1etik aurrera erabili ahal izango diren.

Oraingoz, digitalki soilik -sinadura elektronikoren bitartez- eska daitezke ziurtagiriak, eta kasuaren arabera hiru dokumentu bereizten dira: lehen, txertoa jarrita dutenentzat; bigarrena, positiboa izan eta hurrengo 11 eta 180 egun bitartean gaixotasuna igaro dutenentzat; eta azkena, antigeneo proban 48 ordu lehenago eta PCRan 72 ordu lehenago negatibo izan direnentzat. Edozelan ere, azken irizpide hori egiaztatzen duen txostena oraindik ez dago eskuragarri. Jaurlaritzaren [www.irekia.eus](http://www.irekia.eus) atarian COVID-19aren atalean dago beste biak eskatzeko aukera.



# Bainu-tokiak prest daude denboraldiari ekiteko

Uda sasoia iristear dela-eta ekingo diote bainu-denboraldiari igerilekuetan. Bergarako Agorrosin guneko igerilekuak izango dira irekitzen lehenak, gaur. Arrasaten, berriz, astelehenean irekiko dituzte, eta Usakok bihartik aurrera hartuko ditu bainulariak

## Maialen Santos ARRASATE

Debagoieneko herrietako igerileku zein ur parkeek bainu denboraldiari ekingo diote datozen egunetan, pixkanaka.

Agorrosin kirolgunean gaur zabalduko dute kanpoko igerilekua, eta ur-txorrotak ere zabalduko dituzte aurten. Edoze-lan ere, indarrean dauden arautegiak kontuan izanik, aurtengo udan ere kanpoko igerilekura sartzeko aurrez txanda eskatu beharko da. Abonatuak bi egun lehenago egin ahal izango dute erreserba eta ez-abonatuak, egun bat lehenago. Agorrosinen bertan, web-gunearen bitartez edo telefonoz egin daiteke erreserba. Berdegunea eremuka zatituta egongo da eta maskara bakarrik erantziz ahal izango da uretan edo eguzkia hartzeko.

Bi txanda izango dituzte egunero: 10:00etatik 14:30era eta 15:00etatik 20:30era. Itxita dagoen ordu erdian, instalazioa desinfektatu egingo dute. Horretaz gain, aldagelak ez dira erabilgarri egongo.

## Arrasaten, astelehenean

Arrasateko kanpoko igerilekuak astelehenean irekiko dituzte. Edukiera %50ekoa izango da, -jazkoa %30ekoa izan zen-. Txan-



Urpekariak, aste honetan Usakon ikusketa egiteko gertu. XABI URZELAI

da erreserbatu egin beharko da, [kirolaonline.arrasate.eus](http://kirolaonline.arrasate.eus) web-gunean edota 943 25 20 30 telefonora deituz. Aurten, gainera, aukera egongo da txandak irauten duen bitartean, lekua bada go, erreserba egin eta igerilekura sartzeko.

Goizeko txanda 10:00etatik 14:30era arte izango da eta arratsaldekoa, 15:00etatik 20:30era. Egunko sarrera ere eskuratu ahal izango dute erabiltzaileek.

Horretaz gain, Arrasateko bi ur-parkeak, Santa Barbarakoak eta Villa Amparokoak, uztailla-

ren leian zabalduko dituzte. Azken hori berria da, eta Santa Barbarakoa baino handiagoa izango dela azaldu dute udal ordezkariak. Biak ala biak 10:00etatik 20:00etara egongo dira erabilgarri, egunero.

## Usako ere gertu dago

Oñatin, Usakon, bihar irekiko dute bainu denboraldia, eta egunero sorosle bat izango da 15:00etatik 21:00etara eta errefortzurako beste bat 15:30etik 20:30era; gainera, zaintzaile bat kontratatuko da koronabirusa-

## Igerilekuen irekiera eguna

Herririk herri, egun hauetan irekiko dituzte:

### Bergara

- **Igerilekuak:** ekainak 11
- **Ur-parkeak:** ekainak 11

### Arrasate

- **Igerilekuak:** ekainak 14
- **Ur-parkeak:** uztaillak 1

### Oñati

- **Usako:** ekainak 12
- **Ur-parkeak:** ekainak 19

### Eskoriatza

- **Igerileku txikia:** uztaileko lehen astean

ren protokoloa betetzen dela ziurtatzeko. Erabilerari dago-kionez, 30 lagun egon ahal izango dira batera bainu eremuan, eta, jende asko pilatzen bada, ordu laurdeneko txandak egingo dituzte. Beheko eremuan ezingo da toallarik jarri; goiko aldean utzi beharko dira.

Usakora autoz joateko, seinaleak jarrita egongo dira aparkatu ezin den eremuetan. Udal-tzainek gune horretako zaintza handitu egingo dute. Gainera, herribusa Usakoraino iristea ere bada Udalaren asmoa.

Bestalde, Oñatiko ur uhinen parkea hilaren 19an irekiko dute, eta Antzuolako, aldiz, egun bat lehenago.

Azkenik, Eskoriatzako kanpoko igerileku txikia uztaileko lehen astean zabalduko dutela adierazi dute Udaletik.

## Bergarako Elikagai Bankuan boluntario bila ari dira

Gipuzkoako Elikagaien Bankuak adierazi du boluntarioak behar dituztela Bergaran duten egoitzan laguntzeko. Hala, herritarrei dei egin diete gaur egun dauden lagunekin batera aritu daitezzen aurrerantzean.

Zehaztu dute gaur egun 60 lagun aritzen direla egoitza horretan aktiboki laguntzen, eta beste hamar behar dituztela uda sasoiara begira, "bajak eta oporrak betetzeko, hain zuzen ere".

Interesatuta daudenak eurekin jar daitezke harremanetan, eta bi bide daude horretarako: 943 76 21 90 telefono zenbakira deitu daiteke edota [bergara@ban-coalimentosgipuzkoa.org](mailto:bergara@ban-coalimentosgipuzkoa.org) helbidera mezu bat idatzi.

## Informatika zerbitzua emateko hitzarmena berritu dute

Gipuzkoako udalei eta gainerako entitate lokalei informatika zerbitzua ematen jarraitzeko hitzarmena sinatu dute Aldundiak eta Eudelek. Erakundeen arteko elkarlana eta lurralde oreka beharrezkoak direla esan dute Arrasaten egindako agerraldian, eta Gipuzkoako erakundeek puntako IKT zerbitzua izaten jarraitzea dute helburu.

Arrasateko alkate Maria Ubarretxenak adierazi du hitzarmena "oso garrantzitsua" dela administrazio txikientzako zein tokikoentzako. Eta foru diputatu Eider Mendozak, berriz, esan du Aldundiak nahi duela udalak "puntakoak" izatea administrazio digitalean.

**AURREMATRIKULAZIOA**  
Maiatzak 31 - Ekainak 18

[www.arizmendipro.eus](http://www.arizmendipro.eus)

**Arizmendi Ikastolaren Lanbide Heziketa**

943 77 20 25  
[arizmendi@arizmendi.eus](mailto:arizmendi@arizmendi.eus)

GIKAI (Kirol animazioaren irakaskuntza)

ERIZAINZAKO ZAINZA OSAGARRIAK

MIKROINFORMATIKA

OSASUN LARRIALDIAK

# 'Goiena' aplikazio berria, azkarra eta egokitua

Ikus-entzunezkoak, zero kilometroko zerbitzuak eta Goiena Klubeko bazkideak dira aplikazio berriak lehenetsi dituen atalak. Guztia azkar eta eroso eskaini gura du 'app'-ak, klik bakarrean erabiltzaileak behar duena esku-eskura izan dezan

**Hasier Larrea** DEBAGOIENA

Goiena Komunikazio Taldeak zerbitzu berri baten aldeko apustua egin du *Goiena* aplikazio eguneratuarekin. Erabiltzaileek behar duten guztia aurkituko dute klik bakarrean eta Goiena Klubeko bazkideek, Goienakideek, abantailak esku-eskura izango dituzte. "Datu-baseekin eta pertsonalizazioarekin lotutako aldaketak dakartza, batez ere; Goienakideek zerbitzu lehenetsia jasoko dute, media guztiak kalitate gorenean deskargatu ahaliko dituztelako eta *Puntua* aldizkaria fisikoki argitaratu aurretik irakurri ahaliko dutelako", aipatu du Mirari Altubek, *Goiena.eus*-eko arduradunak.



Pertsona bat Goienaren aplikazioa erabiltzen. JAGOBA DOMINGO

## Azkartasuna

*Media* atala da aplikazioa irekitzerakoan ikusten den lehen pantaila, eta bertan jasotzen dira Goienak ekoiztutako bideo, podcast eta argazki galeria guztiak. Nahieran ikusteko aukera eskaintzen du, eta baita deskargatzeko zein partekatzeko ere. Gainera, eduki zehatz bat aurkitzeko bilatzailea ere txertatuta dauka media atalak, galeria, bideo zein audio jakin batera modu azkarrean heltzeko.

Horrez gain, herriak zein gaiak pertsonalizatzeko aukera eskaintzen du aplikazioak, soilik intereseko edukiak erakutsi ditzan *Media* izeneko pantailak.

Bestalde, menuaren bidez Goiena telebistako saioetara eta zuzeneko sarbidea eskaintzen du, baita ikus-entzunezko ikusienak zeintzuk diren kontsultatzeko aukera ere. Menu berean, *Goiena.eus*-erako sarbide zuzena ere badago, webguneko albiste guztiak irakurtzeko.

## 'Goiena 0km gida'

*Goiena 0km gida*-k ere bere atal berezia dauka aplikazioan. Debagoieneko komertzioen eta zerbitzuen gida osatuena da.

## "DATU-BASEAN ETA PERTSONALIZAZIOAN JARRI DU FOKUA, BATEZ ERE, 'GOIENA' APLIKAZIO BERRIAK"

Hala, erabiltzaileak modu errazean aurkituko du etxetik gertu dauzkan dendak eta zerbitzuak. Interneteko bilatzaile orokorrek ez bezala, *Goiena 0km gida*-k komertzio guztiak jasotzen ditu eta gertu dagoenari bere txokoa eskaintzen dio.

QR irakurgailua ere badakar aplikazioak, azken urtean garrantzi berezia hartu duen teknologia bere eginez. Izan ere, esandako moduan, aplikazioak azkartasuna eta erraztasuna lehenetsi gura izan ditu.

## Nola deskargatu

iOS zein Android gailuetan erabili daiteke aplikazioa, eta dagoeneko eskuragarri dago *Google Play*-n zein *Apple Store*-n. Doan deskargatu—edo eguneratu—, erabiltzailea sortu eta zerbitzu guztiak esku-eskura izango dituzte debagoiendarrek.

## Zortzi abantaila, di-da batean

Aplikazio berriak hobekuntza ugari dakartza, batez ere, Goienakideei dagokienez:

- Goiena mediako bideo eta argazki guztiak, deskargatzeko gertu.
- Goiena mediako eduki pertsonalizatuak sortu ahal, esku-eskura.
- *Puntua* aldizkariaren zenbaki guztiak eskura, inon baino lehenago.
- Debagoien osoko *Goiena 0km gida*.
- Goiena telebista zuzenean, nahiz nahieran.
- Goiena txartel digitala: abantailak Debagoieneko komertzioetan.
- Goienakide izatearen abantailak eta zozketak.
- GOIENA aldizkariaren zenbaki guztiak eskura, inon baino lehenago.

## Bailarako historia hobeto ezagutzeko irteerak asteburuan

Arrasateko Ilustrazio garaia, Oñatiko erretaulak eta Bergara monumentala, 'Ezkutuko altxorak'-en eskutik

**H.L.** DEBAGOIENA

Mankomunitateko Turismo Sailak, *Ignaziotar lurraldea* programaren baitan, ekaineko egitaraua kaleratu du, *Ezkutuko altxorak* izenburupean. Hala, bailaran iraganera begira jarriko dira bihar eta etzi.

Zehazki, Arrasateko Erdi Aroaren eta Aro Modernoaren arteko trantsizioa, "humanismoak ekarritako aire berriak", azalduko dituzte bihar goizean, Herriko Plazatik abiatuta. Lehen irteera, 10:30ekoa, euskaraz izango da, eta bi ordu geroago-

koa, berriz, gaztelaraz. Oñatiko XVI. mendeko erretaulak, hots, monumentuen ezkutuko kaperak, ezagutu nahi dituenak, egun berean 12:00etan izango du hitzordua, Oñatiko Turismo Bulegoan. Eta hurrengo egunean, 11:00etan hasita, XVI. eta XVII. mendeetan eraikitako jauregi eta etxeak izango dituzte hizpide Bergaran; Laboratorium izango da abiapuntua.

Mankomunitateak jakinarazi du gehienez hamarrekota taldez osatuko direla bisitak, eta izena aurrez eman beharra dagoela.

GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA KOOP. ELKARTEA

## BATZAR OROKORRERAKO DEIA

Honen bidez, 2021eko ekainaren 22an, martitzena, egingo dugun urteroko ohiko batzar orokorren deia egiten dugu. Batzara Arrasateko Kulturaren izango da, Areta Nagusian, 17:30ean lehen delaidian eta 18:00etan bigarrenean.

### GAI ZERRENDIA

1. Batzarreko akta onartzeko bi bazkide izendatzea.
2. 2020ko irailaren 10eko batzar orokorreko aktaren onarpen txostena irakurtzea.
3. 2020ko kudeaketaren memoria azaltzea.
4. 2020ko kontuen berri ematea.
5. 2020ko emaitzen erabilera onartzea.
6. Zaintza Batzordeko kideen txostena irakurtzea.
7. 2021eko kudeaketa plana onartzea.
8. 2021eko aurrekontua onartzea.
9. Estatutu sozialak aldatzea, hala badagokio, eta haien testu batetara onartzea, Euskadiko kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legea egokitzeko.
10. Bazkide ekarpenen eguneratzea.
11. Galderek eta eskaerak.

I. Euskadiko Kooperatiben Legearen 24.4 artikularen arabera, bazkideei jakinarazten zaie euren eskura ditzutela kooperatibaren egoitza sozialean, ekitaldiak, Urteko Kontuak, emaitzen aplikazioaren proposamena eta Kudeaketa txostena jasotzen dituzten dokumentuak.  
II. Era berean, Euskadiko Kooperatiben Legearen 36.7 artikuluan ezarritakoaren bat etorritik, berriaz adierazten da bazkide guztiak eskubidea dutela kooperatibaren egoitza sozialean aztertzei gai-zerrendako puntuei dagokienez.  
III. Bukatzeko, bazkideei jakinarazten zaie, era berean, eta Euskadiko Kooperatiben Legearen 78.3 artikuluan ezarritakoaren bat etorritik, berriaz jasota gertatzen da bazkide guztiak eskubidea dutela Eguneko Gai Zerrendako 9. puntuan proposatutako estatutu aldaketan testu osoa eta aldaketak horiek justifikatzen dituen txostenek egotza sozialean aztertzei, bai eta dokumentu horiek dohanik emateko edo bidaltzeko eskutzei eskubidea ere.

Arrasaten, 2021eko maiatzaren 31n.

**Monica Belastegi Aranzabal**  
Errektore Kontseiluko presidentea

**goiena**<sup>44</sup>  
KOMUNIKAZIO TALDEA





Errioxako paisaiaren aniztasunaz goza daiteke, familian, bidaia globoan eginda.



Naturaz ere goza daiteke Errioxan.



Ondo seinalizatutako 1.400 kilometrotik gorako bidezidorrak ditu Errioxak.

# Errioxa: distira aire zabalean, gertu-gertu

Uda gertu dago, eta hasi da opretarako atzerako kontaketa; hori dela eta, planak eta ihesaldiak egiten hasteko ordua iritsi da, aire zabalean egun entretengarriez gozatzeko.

**Hunkitu egiten gaituzten gauza txiki horietaz** lasai gozatzeko lekuak ditugu buruan. Une bat atsedean hartzeko eta naturaz etenik gabe gozatzeko, askotariko jarduerak egiteko edo familian denbora pasatzeko; Errioxak inguru paregabean eskaintzen dizkigun sentazio eta esperientziak; deskubritzeko leku bat, baina, batez ere, babesleku natural paregabea bizi izateko, sentitzeko eta honekin berriz konektatzeko leku bat.

## 2.000 metrotik gorako mendiak

Eskualde honetako ekosistemek, bere biodibertsitate erraldoiak eta bertako paisaiaren aberatasun ekologikoak osatzen dituzte Errioxako mendilerroen eta mendien istorio harrigarriak. Helmuga turistikoa segurua da; ez da Espainiaren azaleraren %1 baino gehiago, baina bi ekosistema bereizgarri eta paregabe daude bertan: mendiak, kasu batzuetan, 2.000 metrotik gorakoak dira, hala nola Demanda mendilerroko zintzur eta haitzarte amaigabeak eta San Lorenzo mendia, Obarenes, Toloño mendilerroa, Leza ibaiko arroi, Peña Isasa, Matute eta To-

biakoa, besteak beste; eta, bestetik, haranak, babestutako espazioak, zuhaitzi bereziak dituzten txoko naturalak, bide berdeak eta haritzezko basoak eta pagadiak.

## 650 kilometro ibilbide berdea

Lurralde txiki honetan, **Sierra Cebollerako Parke Natural** ikusgarria dago, Camero Nuevon, Mediterraneo barruko aterpe atlantiko gisa, eta Puente Rako ur-jauzien ibilbidea; baita Leza (Camero Viejo), Jubera, Cidacos eta Alhama haranetako **Biosferaren Erreserba**, aldi berean **Starlight helmuga turistikoa** gisa izendatua, izarrak behatzeko gure zeruen kalitate apartagatik; izan ere, egun, argi-kutsadura dela eta, gero eta ezagunagoa da urriagoa da hori, baina Errioxaren kasuan, gaueko zerua Europako ilunenetako bat da.

Baina, gainera, Errioxa oinez gozatzeko lurraldea ere bada, adin eta maila guztietako ibiltarientzako egokia: ondo seinalizatutako 1.400 kilometrotik

**ERRIOXA NATURALA ZENTZUMENENTZAT OPARIA DA: UDAN DESKUBRITZEKO, BIZI IZATEKO, SENTITZEKO ETA GOZATZEKO**

gorako bidezidorrak ditu, eta 650 kilometrotik gorako ibilbide berdeak, eta horiek guztiek paisaien mosaiko ederra osatzen dute, Naturagune Babestuak zeharkatuta, kalitatezko eta ondo banatutako berrehun landa-ostatu baino gehiagorekin.

Erraz zeharka daitekeen lurraldea da, eta naturarekin lotura intimoagoa izatea ahalbidetzen duten toki deskubritu gabeak eta masifikazio gutxi-koak hartzen ditu. Aukera ematen digu Espainiako natur soinuaren erreserbarik garrantzitsuenaz gozatzeko, eta isiltasuna da lurraldea bereizten duen baliabideetako bat, Biosferaren Erreserbako **Isiltasunaren Ibilbideen** bidez; horrez gain, paisaia gure zentzumen guztien bidez berraurkitzeko aukera dugu.

## Ekoturismoa eta biodibertsitatea

Errioxak ingurune natural pribilegiatua eta ekoturismoa egiteko gune ikusgarriak ditu, baina faunagatik, floratik eta dituen berezitasun geologiko paregabeengatik ere nabarmetzen da. Lurraldean zehar, erosotasun handiz goza daiteke **Natura 2000 Sareko** naturagunez, eta bertako eremu geografiko ugarietako biodibertsitate aberatsa ezagut daiteke, babestutako espezie asko baitaude. Horren adibide da Alfaroko San

Miguel kolegiata, Errioxa berezi egiten duen lekuetako bat: bertan bizi da munduko zikoina zuriaren koloniarik handiena, eraikin batean finkatua, ehun bat habiaz osatua, eta 500 zikoina ingururekin.

Gainera, Cameros eskualdera joaten bagara, artzainen bizitza ezagut dezakegu **Transhumanztzia Zentroan**, edo, benetako espeleologoak bagina bezala, estalaktitaz eta estalagmitaz betetako **Ortigosako Haitzu-loak** bisitatu; eta Errioxa Beherera joatea erabakitzen badugu, **Contrebía Leucadeko** aztarnategi arkeologikoaren Museoa eta Interpretazio Zentroa bisitatu, non naturan zizelkatutako hiri zeltiberiarrek ikusi ahal izango ditugun Aguilar del Rio Alhaman.

## Dinosaurioen aztarna ugari

Dinosaurioak maite dituzten eta jakin-min handia duten guztientzat, Errioxa ezaugarri geologiko paregabeak dituen lurraldea da; munduan berezi egiten du horrek, eta Unescoren munduko sarean sartzeko hautagaitza aurkezteko aukera eman dio, **Errioxako Dinosaurioen Aztarnen Geoparke** gisa. Izan ere, munduan inon ez dago dinosaurioen aztarnen kontzentrazio hain handia: gutxienez 170 aztarnategi, 11.000 dinosaurio arrasto baino gehiagorekin, Leza, Jubera, Zidacos eta Alhama-Linares haranetan.

## Familian gozatzeko jarduerak

Errioxaz gozatzeko aukerak askotarikoak dira; bakarka, bikotean, lagunekin, baina baita familian ere; izan ere, uda honetan **erreserba egiteko** garaia

da. Ibilaldi gogorren, bizikleta-ibilaldien, naturan zeharreko ibilaldien edo ondare, kultura eta geologia altxorretara bisitak egin ondoren, barre-algarak egiteko, izarren azpian gaualdiak igarotzeko edo bere establezimendu atseginen batean goxoxo lo egiteko.

**Turismo aktiboaren eta abentura-turismoaren** zaleentzako leku ezin hobekak dira Errioxako paisaiak hainbat jarduerak egiteko, hala nola uretako kirolak beren ibairen batean edo **El Rasilloko Klub Nautikoan**, edo Najerilla, Iregua eta Leza ibarretako ibilbidea motorrez egitea, Eurovelo 1 eta 3 Europako ibilbideez gozatzeko, Errioxako paisaiaren aniztasuna mirestea globoan egindako bidaia batekin edo eskualdea definitzen duen mahastien itsasoa bisitatzea segwayetan, quadetan edo zaldi ibilaldietan.

Errioxa bereziki egokia da familientzat. Encisoko **El Barranco Perdido** paleoabentura parkean abentura-zirkuituaz goza daiteke, baita hondartza kretazikoko igerilekuetan bainu bat hartu, edo duela 120 milioi urte lur honetako biztanleak nolakoak ziren ezagutzeko hainbat tallerretan parte hartu.

Errioxa naturala benetako oparia da zentzumenentzat; elkargune eta helmuga turistikoa. Deskubritzeko, baina, batez ere, uda honetan bizi izateko, sentitzeko eta gozatzeko.



INFORMAZIO  
GEHIAGO



# Komunikazioa hobetzeko tresna, elkarlanean egina

Aretxabaletako Lanbide Eskolako ikasleek 'AppSaac' izeneko aplikazioa sortu dute, Aspaceko erabiltzaileen beharrei erantzuteko. Eguneroko harremanak errazteko piktograma bidezko komunikazioa proposatzen du: "Tresna intuitibo eta ona da"

**Hasier Larrea** DEBAGOIENA

Iazko urrian martxan jarritako proiektuak argia ikusi du oraintsu, Aspaceko erabiltzaileek jaso dutelako *AppSaac* izeneko aplikazioaren lehenengo bertsioa. Aspaceko Ana Agirre tutorearen esanetan, "etekin handia" aterako diote, "bereziki pertsona batzuek", tresna berriari, komunikazio arloan laguntzeko "oso tresna ona eta intuitibo" iruditu zaielako.

Aretxabaletako Lanbide Eskolako ikasleek garatu dute egitasmoa, Aspacekoekin bideo-deien bidez abiatutako harremanaren bitartez. Jon Unamuno irakasleak balioa eman dio kolektiboki garatzearen ideiarri: "Ikasleek, zentroko erabiltzaileekin ez ezik, Uni Eibar-Ermuako informatikako ikasleekin jardun dute lanean; gure hezkuntza zentroan piktogramen karpetak osatu genituen, eta Eibarren horietan oinarritutako aplikazio desberdinak garatu zituzten".

## "Praktikoa eta baliagarria"

Aukera guztietatik egokiena zeritzotena izendatu zuten Lanbide Eskolakoek. Hala, aplikazio hori Bergarako eta Arrasateko erabiltzaileei erakutsi zieten joan den maiatzean. "Oso mo-



Bi ikasle, aplikazioa erabiltzaile bati erakusten. ARETXABALETAKO LANBIDE ESKOLA

mentu berezia" izan zela aipatu du Agirrek, baita Aspacen "asko animatu" zirela ere. Onuradunei zer ekarriko dien galdetuta, "komunikazioa eta bizi kalitatea hobetzen, komunitatearekin inklusioa indartzen, autonomia lantzen eta ongizate emozionala handiagotzen" lagunduko diela erantzun du.

Unamunok azaldu du, esaterako, erosketak egiteko erabili ahaliko dutela tresna digital berria: "Pertsona batek sagarrak gustuko baditu, piktogramen bidez erakutsiko dio saltzaile-

ri sagarra nahi duela. Gogoko dituzten jakiak edota objektuak lehenetsita izango dituzte aplikazioan, modu pertsonalizatuan".

Momentuz, *AppSaac* ez da ofizialki argitaratu, probak egiten baitabilta, zerbitzua hobetzeko. Aspacen "azken 12 urteetan heziketa zentroekin ugari duten elkarlanaren" beste adibide bat da Aretxabaletako Lanbide Eskolakoekin aurrera eramanez, Agirreraren esanetan. Unamunoren ustez, "bozgorailu ona" izango da aplikazioa, "jarrapena izango duen ekimena".



Protestara batutako autoak, Bergarako Ibarra kalea zeharkatzen. OIHANA ELORTZA

## A-636an bidesaria jartzearen aurka egin dute protesta

Joan den zapatuan Bergaran amaitutako karabanan, Beasainerrako autobidean ez ordaintzea eskatu zuten

**H.L. BERGARA**

Deskarga zeharkatzen duen autobidean bidesaria jartzea gidariendako "kaltegarria" izango dela salatu dute, beste behin, *A-636 peajerik ez!* taldeak eta *Hiru* sindikatuak. "Diputazioak Abiatu sistema eskaintza berezi bezala saltzen digu, baina urtean 340 euro inguruko gastua dakar aparatuek ibilgailu bakoitzeko", dio Jokine Lizarralde, *A-636 peajerik Ez!*-eko kideak, eta gehitu du "herritarrek Bidegiko zorrak eta Aldundiaren kudeaketa txarraren ondoriozko kalteak ordaintzeko" jarriko dutela bidesaria A-636 errepidean.

Sindikatuak gaineratu dute, era berean, garraiolarietako erregulazioak ezin izango dituztela Abiatuaren deskontuak aprobetxatu, eta horrek produktuen garestitzea ekarriko duela.

Salaketen harira, Aldundiak dio Europatik datorren zuzentzarauak ez duela behartzen bi-

desaririk jartzea, baina bai "bultzatu" egiten dituela, besteak beste, "garraiatutako merkantziari errepidean sortutako kostua egotzeko, errepide sarea mantentzeko diru sarrerak izateko eta CO2 emisioak jaisteko".

Bidegi zorpetu bada, Gipuzkoako gaitasun handiko errepide sarea bukatzeko beharrezko finantzaketa lortzeko izan dela azaldu du Aldundiak: "Esaterako, A-636 autobidea bukatzeko".

## Oiarbideri salaketa

Fedanismer-ek, Espainiako garraio elkarten federazio nazionalak, salaketa jarri du Aintzane Oiarbide Bide Azpiegiturako diputatuaren aurka, diotelako ez dituela obeditu N-1ean eta A-15ean kamioientzako jarritako bidesariaren inguruan EAeko Justizia Auzitegi Gorenaren eta Espainiako Auzitegi Gorenaren epaiak.

EPA

**DEBAGOIENEN EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA**

*"Guztion eskola, Guztion artean"*

**MATRIKULAZIOA ZABALIK**

**HELDUEN HEZKUNTZA**

Matrikula 2021-22 ikasturtea

**EPA ARRASATE HHI**  
www.epaarrasate.hezkuntza.net  
Arrasate Pasalekua 1, 3 eta 5.  
Tel.: 943 77 11 72

**EPA BERGARA HHI**  
www.epabergara.hezkuntza.net  
Barrenkale 33. Tel.: 943 76 44 52



**baikara**

605773992

GOESKOLA@GMAIL.COM

Ekainaren  
15etik 30era



**goeskola**

desaprendizaje - euskara  
euskara publikoa



## HANDIK ETA HEMENDIK

**Afektuen iraultzaren utopia****ANE ABLANEDO LARRION**'ARGIA'-N ARGITARATUA  
HTTPS://LABUR.EUS/EYOVS

Gai honi buruz martxoan hemen berean idatzi nuen artikuluan, disidentzia sentimentalak bikote harremani zentralitate afektiboa kentzearekin hasi beharko lukeela esaten nuen.

Nioenaren agerikotasunagatik beharbada, harritu egin ninduen jendeak bere burua interpelatuago sentitu ez izanak, baina hori izan zen irakurleek helarazi zizkidaten feedback batzuetatik atera nuen ondorioa: jendeak uste du bikote formatua idealizatzen duen ideologia erromantikoa gainditua dagoela, gure moduko jende aurrerakoi eta (post)modernoari bederen ez digula eragiten, eta jadanik ez direla garai bateko printzipio

zaharkituak gure bizitza afektiboaren gidariak.

Pertzepzio hori okerra da, baina naturalizatua dugu afektuen hierarkia baten existentzia, hainbeste non ikusezin bilakatu zaizkigun bikote-instituzioak dituen pribilegio guziak. Honezkero emantzipatu garela? Ikus dezagun:

Zergatik ez ditugu bikote batekin baizik irudikatzen epe luzerako elkarbizitza, etxebizitza baten erosketa, ekonomia konpartituaren hautua, gurasotasuna, edota haurren heziketa bezalako proiektuak?

Zergatik iruditzen zaigu normala lantokian baimen-egunik ez izatea lagun bat zaintzeko, baina eduki ahal izatea, adibidez, sekula ikusten ez duzun koinatu baten zaintzarako, formalizatutako bikote baten orbita afektiboko satelite izate hutsagatik, gainera?

Zergatik neurtzen ditugu hainbeste *maite zaitut* hitzen

bidezko maitasun aitorenak, kontuz ibili behar bagenu bezala, pertsona egokiari esaten ote diogun? Ez ote da badakigula hitzok benetako maitasuna adieraztearen funtzioa dutela, eta Disney maitasun idilikoak monopolizatutako forma zehatz eta estua suposatzen diogula geuk ere amodio benetakoari?

Bikotea maitasunaren forma gorena ez bada, eta gainerako loturak horren osagarri edo kontsolamenduko sari huts ez badira, nola esplikatu dezakegu "lagunak baino ez gara" esaldia izatea, norbaitekin harreman afektibo-sexualik ez dagoela adierazi nahi dugunean erabiltzen dugun formula?

Eta abar, eta abar. Hegemonikoak diren gainerako instituzioei bezala, bikote-eredu erromantikoari ere bilatu nahi izan zaizkio alternatibak, baina ez beti norabide egokian.

Egun, adibidez, bikotea ulertzeko modu hertsu eta karratuegiak sortzen duen dependentziatik ihesi, merkatu kapitalista baten logikan baizik sinetsi ez daitekeen independentzia pertsonal erabatekora egin dugu jauzi, non hainbeste babestu eta zaindu dugun gure indibidualtasuna eta askatasuna, ezinezko bilakatu zaigun, *de facto*, beste pertsona batzuekin modu afektiboki esanguratsuan erlazionatzeko aukera bera.

Interesgarriagoak diren polimaitasuna bezalako alternatibek sarea bikotetik haratago ulertu eta zabaldu beharra kontsideratzen dute afektuetan egin beharreko iraultzaren lehen baldintza.

Baina kontuz proposamenok koordenada neoliberaletan irakurtzearekin, pertsonetik harremanak ezin direlako inoiz

kontsumismo areagotuaren zentzuan ulertu.

Bederen, pertsonen erabilera interesatua, maitasunaren banalizazio edo afektuen deshumanizazioaren prezio garestia ordaindu nahi ez badugu, edo eragotzi nahi baldin badugu bakardadea eta inanizio afektiboaren hotza, izan dadila ohiko formatu afektiboetatik kanpo maitatzea erabaki dugunon halabehar tristea.

Maitasun konbentzionalari benetako alternatiba sare komunitarioagoak sortzea da, non etiketatik urrun, kuttun guzietatik aitortu eta erakutsiko diegun guretzat duten balioa eta berezitasuna, adiskidetasuna ezarri harreman guzietan ardatz, eta elkarrekiko konpromiso afektiboak eta harremanen etika zorrotzak bermaturik gure maitasunaren kalitate-labela.



Post gehiago 8. orrialdean.

# Salaketa-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali [gutunak@goiena.eus](mailto:gutunak@goiena.eus) helbidera!

# Erantzun-gutuna Aldarrikapen-gutuna Kexa-gutuna



ZABALIK

OIHAN VITORIA

# Haustura generazionala

Kontsumo azkarreko tresna bihurtu dira sare sozialak, eta bizitza, oro har. Gizartearen unean uneko iritziaren ispilu baino gehiago, iritzi sortzaile bilakatu ditugu, eta apenas dago gogoeta pausatuetarako tarterik. Hala ere, egun batzuk daramatzat Twitterren irakurritako mezu batekin bueltaka. Honela zioen EITBren AEBetako berriemailearen mezuak:

*Hiru neskatorekin egin dut topo igogailuan. Tripodea ikusi, eta segituan bota didate galdera:*

- Are you a YouTuber?
- No, I'm a journalist.
- What is that?

Kazetaritzak mundu zabalean bizi duen sinesgarritasun eta prestigio faltaren sintoma ezin hobea iruditu zitzaidan. Eta orain arte susmo hutsa zena baieztatu nuen: gizartearen pertzepzioa nola aldatu duten sareek, iritzi aniztasunean eta datuetan oinarritutako

## GEROZ ETA ARGIAO DAUKAT BELAUNALDI GAZTEENEN KEZKA ETA BEHARRIZANEI PULTSUA GALDU DIEGULA

kazetaritza fidagarriari bizkarra emateraino. "Horrela doa mundua", zioen batek. Bada zerbaiten seinale. Batzuen merituz, ziurrenik. Geroz eta argiago daukat belaunaldi gazteenen kezka eta beharizanei pultsua galdu


diegula. Ez dugula jakin bizi duten gordintasanari erantzuten, ez hedabideetatik ezta erakundeetatik ere. Pandemiak, zoritxarrez, joera hori areagotu besterik ez du egin. Gaitz guztien errudun egin ditugu, eta errezeta zahar eta formula magikoen menpe jarri, ondorioei erreparatu gabe. Jopuntuan beti.

Haustura generazionala iraultzeko beranduegi ez ote gabiltzan. Hori da gaur-gaurkoz dudak irudipena. Kalera atera eta gazteenek dituzten hizkuntza ohiturei, zaletasunei, harreman erduei edota erreferenteei erreparatu besterik ez dago. Ziurgabetasun honen guztiaren artean bada ziurtasun eta egitate bat: gazteen lan eta bizi baldintzak gurasoenak baino okerragoak izango direla, salbuespenak salbuespen.

Haustura generazional horri neurri ausartekin, enpatiarekin, eduki berritzaileekin eta ikus-entzunezko formatu berriekin heltzeko garaia dugu, gazteen kezkek erdigunean jarriz. Entzuten ikastea dagokigu. Azalean gertatzen dena azalean gal ez dadin.

## MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Enarak

#### F. JAVIER ARRIETA IDIAKEZ

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Ekainean edo bagilean sartu gara. Zein ona litzatekeen sasoiak barneratzen jakingo bagenu. Akaso, etenaldia beharko genuke horretarako, azkarregi doakigun munduan. Gizarte perfektuaren bila ibili arren, ez ote gara bizi erotzerainoko erritmoan? Baliteke, konturatu barik bada ere, sarritan inguruko gauza txikiak guk geuk ezkutazte, ikusezin bihurtzeraino. Baina inguruko gauza txiki horiek ikusten, barneratzen jakingo bagenu, orduan errazago

litzateke benetako bizitzaz jabetzea..

Urteko sasoi honetan, enarak batetik bestera dabilta txioka zeruan. Uda datorren seinale, argitasuna eta bizipoza irudikatzen dizkigute. Hori berori agertu nahian, euskal literaturan bada enaren inguruko makina bat aipamen.

Bi idazle bizkaitar klasiko hartuko ditugu horren adibide.

Bateko, Eusebio Erkiagaren *Arranegi* liburuan, Xirlok Zuriñeri bere maitasuna aitortzeko unean, horrela diotso: "*Bai pozik dabilzana enara oneik!... Euron etorrerea izaten da pozkarria! Joatea, barriz...*".

Besteko, Lauaxetak ere maitasunaren harira hauxe diosku *Bide barrijk* bildumako *Gaste gexua* olerkian:

*Barne barnetik kantari, egun sentiko argira / urrezko larratxorijak egaz dagije ortzira. / Enara batek bezela gastetasunak narua / eta eguak zabalik gorantza juat gogua.*

Agian, automata eta estereotipatutako izaki bihurtu aurretik, komenigarri litzateke enaren hegaldiak zein txioak ikus-entzutea eta barneratzea, bizirik gaudela ohartzeko besterik ez bada ere. Gaurtik aurrera egun aproposak datozkigu horretarako.

! Post gehiago 7. orrialdean.

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

**Argitaratzailea**  
Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

**Lehendakaria**  
Monika Belastegi.  
**Zuzendari nagusia**  
Iban Arantzabal.  
**Eduki zuzendaria**  
Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzordea**  
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

**Zuzendari komertziala**  
Mireia Larrañaga.  
**Administrazio zuzendaria**  
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**  
Iñaki Iturbe.  
**Hizkuntza arduraduna**  
Sergio Azkarate.  
**Harpidetza eta banaketa arduraduna**  
Igone Osinaga.

**Sailtetako arduradunak**  
Xabi Urtzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).  
**Maketazioa**  
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,  
Amaia Martínez de Arenaza.  
**Publizitatea**  
Mireia Larrañaga,  
Ziortza Martín,  
Amaia Mundiñano.

**Administrazioa**  
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

**HARPIDETZA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.eus

**PUBLIZITATEA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
publi@goiena.eus  
**EGOITZA NAGUSIA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
berriak@goiena.eus

**Lege Gordailua:** SS-965/2014  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 19.000 ale  
**Difusioa:** 18.723 ale

**Inprimategia:**  
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

**Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua**



**EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA



## BERBAGAI

# "AEBen jarrera gakoa da zerga globala igotzeko"

BEÑAT HERCE MU-KO ENPRESAGINTZA FAKULTATEKO ARLO EKONOMIKOKO BURUA

Hasier Larrea DEBAGOIENA

Enpresen zuzendaritzan eta administrazioan aditua da Beñat Herce (Eskoriatza, 1981), bere herriko alkate izandakoa ere bai, 2011tik 2015era. G7-ak enpresa handiei %15eko gutxieneko sozietate zerga globala ezartzearen asmoari buruz mintzatu da.

**Munduko estatu boteretsuenak enpresa handienei zergak igotzearen alde agertu dira. Zenbat eragin du testuinguruak?**

Zalantzak ditut pandemiarik ezean hartuko luketen halako erabakirik, nahiz eta AEBetako gobernuan aldaketa egon. Herrialdeen aurrekontuen egoerak guztiz baldintzatu du fondo berriak lortzea. Enpresa txikiak ez daude zergapetze altua izateko moduan; beraz, ez dute beste erremediorik pandemian asko irabazi duten multinazionalak eta fortuna handiak gehiago zergapetzea baino.

**Izan ere, Bidenek proposatu du.** Bai; 1,9 bilioi euroko suspertze plana onartu dute



Beñat Herce, Mondragon Unibertsitatean. GOIENA

Ameriketako Estatu Batuetan, eta kopuru hori lortzeko sozietate zerga lokala %21etik %28ra igo nahi du bertako presidentek. Badaki neurri horrekin AEBetako enpresek fikziozko egoitza aldaketak

egin ditzaketela; beraz, zerga igoera efektiboa izan dadin, bi neurriak batera hartzeko beharra ikusi dute. **Herrialde horren postura gakoa izango da mundu mailako neurria aplikatzeko?**

Faktore garrantzitsuena da, Ameriketako Estatu Batuek pisu handia dutelako politika globalean. Halere, G7-aren adierazpen hau G20-an eztabaidatuko da uztailan, eta gero, badirudi Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundeak (ELGA) onartu beharko duela benetan aplikatzeko. Prozesu luzea izango du, eta posible izango da neurria aurrera ez joatea; Erresuma Batuak esan du bankuak salbuetsi nahi dituela neurri horretatik. Beraz, argi dago hor borroka sortuko dela, eta gerta liteke zerga igoeraren aurkako jarrera batzuk finkatzea. **Zeintzuk dira enpresa handiak?** Hil honetan Europa mailan beste neurri bat hartu dute, gardentasun fiskala bultzatzeko, ez duena hainbesteko oihartzunik izan. European bi urtez jarraian 750 milioi euro baino gehiago fakturatzen dituzten enpresek herrialdez herrialde zenbat salmenta, irabazi eta zerga izan dituzten aitortu beharko dituzte. Horrek pistak ematen ditu zein erakunde edo enpresa zergapetuko diren. **G7-aren erabakiak izan al dezake ezkutuko irakurketarik?** Aditu batzuek diote %15eko gutxiengo zerga gehienezko zerga bihurtu daitekeela, eta,

hortaz, ehuneko hori baino gehiago jasotzen duten herrialdeei negatiboki eragingo liekeela. Beste batzuek ezer baino hobea dela diote. Bestalde, iritzi batzuen arabera, sozietate zerga global minimoa ezarri gero, Google tasaren existentziak ez luke zentzurik izango. Izan ere, zergapetze sistema honen baitan errentagarritasun altua duten multinazionalak %20 arteko zerga tasa ordaindu behar dute –Google, Amazon, Facebook...–.

**Euskal Herrian izango al du eraginik G7-aren neurriak?** Hemen badaude Iberdrola eta Petronor moduko enpresa handiak, baina zaila da jakitea ze eragin edukiko lukeen eurentzat. Nire ustez, Google tasa izango litzateke hemen efektiboagoa, herrialde batean izan diren salmentak zergapetu nahi dituelako, bertan egoitza fiskala izan ala ez. Halere, enpresa digital handiek makineria itzela dute tasa hori aplikatu ez dadin, estatuei presio egiteraino. Zerga arautegiak ez zeuden pentsatuta globalizazio eta digitalizaziorako. Online komertzio batek edonondik fakturatzea ahalbidetzen du, nahiz eta egoitza hemen eduki. Egoitzaren printzipioa apurtzea ez da erraza.

## ITURRI ONETIK

### Zezen-plaza eramangarria irailean Bergaran

Bergarako Pentekosteetan zezen festak antolatzen dituen Betizu Zezenzale Elkarteak eta Bergarako Udalak borondatea eta akordioa bazuten ekainaren 20tik uztailaren 20ra zezen-plaza jartzeko Seminarioko patioan. Zezen jaialdiak ez ezik, bestelako kultura ekitaldiak antolatzeko asmoa zuten, 600 laguneko edukiera mugatuarekin. Baina ez dute jarriko. Zezen-plazaren jabeak, Manzarbeitiak, Angelun jarriko du. Dena den, orain, irailean jartzeko asmoa agertu dute bi aldeek.

## ALBISTE IZAN ZEN



2006-06-04

### Euskal Eskola Publikoaren jaia Oñatin

Euskal Eskola Publikoaren Jaia egin zuten Oñatin. Juan Jose Ibarretxe lehendakariak eta Lourdes Idoiaga alkateak parte hartu zuten, besteak beste, irekiera ekitaldian. Haurrentzako zein gurasoentzako bereziki antolatutako ekitaldiekin gozatu ahal izan zuten herritarrek eta Oñatira hurbildutakoek. Tokia izan zuen aldarrikapenak ere. *Ez itxi Angiozarko eskola* izenburuko pankarta atera zuten angiozartarrek.

## HAU BE BADOGU!

### '#Pantailakeuskaraz' traola, 'trending topic'

#PantailakEuskaraz mugimendua sortu dute, ikus-entzunezkoetan euskarak bizi duen egoera "irauli" eta "euskarazko etorkizuna" lortzeko helburuarekin: *@oierzearra*: "Euskara, jalgi hadi plazara! Digitalera ere bai!".

*@Deuskaraz*: "Netflix Euskaraz eta Disney Plus Euskaraz taldeak elkarlanean arituko dira aurrerantzean".

*@ibon\_iza*: "Euskaldunoi elkartzea kostatzen zaigu, baina batzen garenean geldiezinak gara. #pantailakeuskaraz".

*@sasiburru*: "Pantailak euskaraz nahi ditugu!".

# Ubarretxena: "Emandako hitza betetzen ari gara"

Agintaldiaren erdira iritsita, balorazioa egiteko prentsa agerraldia egin du Arrasateko Udal Gobernuak, eta, azken urtea "zaila" izan dela eta arlo guztietan asmatu ez dutela onartu arren, "proiektu estrategiko" guztiak martxan jarri dituztela dio alkateak

**Eneko Azurmendi** ARRASATE

2019-2023 agintaldiaren lehen erdiaren balorazioa egiteko agerraldia egin du asteon Gobernuak. "Pandemiari aurre egiten saiatu gara, ahal izan dugun moduan, nahiz eta badakigun arlo guztietan ez dugula asmatu, eta hori ere umiltasunez onartu behar dugu", azpimarratu du Maria Ubarretxena alkateak.

Agintaldi honetan ibilbide-orri bat lantzen ari da Gobernuak: *2019-2023ko Legegintzaldiko Plan. Arrasate 2030*. Bi ardatz nagusi ditu bide-orri horrek, gizarte-ongizatea eta garapena, "bere forma zabalenean", eta beste sei zutabe "estrategiko" ere baditu: "Udalerrri aurreratua, komunitateari kalitatezko aukerak eta zerbitzuak eskainiko dizkiona; lan-ingurune egokia, udalerrri bizia eta erakargarria; klima-aldaketa eta udalerrriaren eraldaketa; inor atzean uzten ez duen udalerrria; euskaraz bizi nahi duen Arrasate eta herritarrekin batera aurrera egiten duen udalerrria".

Obrak, Zerbitzuak, Mantentzea eta Auzoak Saileko zinegotzi Victoriano Fuentesek, bestalde, gaineratu du inbertsio mailari eutsi diotela eta hainbat sektoreri babesa eta laguntza emateko neurriak martxan jarri dituztela, eta nabarmendu du momentu honetan Arrasate zorrik ez duen udalerrria dela.

**"Proiektu estrategikoak", abian** Alkateak azpimarratu du bi urte hauetan gauza asko egin direla sail askotan, baina "proiektu nagusietan" bakarrik zentratu gura izan du. "Bi proiektu nagusi bukatu ditugu agintaldi honetan, Arabako etorbidearen berrurbanizazio osoa eta Santa Barbarako ur-parkea".

Era berean, adierazi du hamar proiektu "potolo" dauzkatela martxan eta agintaldi honetan bukatuko dituztela.



Udal Gobernuako ordezkariak, eguaztanean, Monterron parkean. E.A.

## "ARLO GUZTIETAN EZ DUGU ASMATU, BAINA UMILTASUNEZ ONARTU BEHAR DUGU HORI ERE"

Hala, Kultura 2021aren amaieran bukatzea aurreikusten dute, eta eraikinak 2022aren hasieran hartuko ditu erabiltzaileak.

Irisingarritasunarekin lotuta, alkateak azaldu du auzoak "oso garrantzitsuak" direla Gobernuarentzat. "Arrasaten, urteetan, abandonatuta egon dira auzoak, ez da inolako inbertsiorik egin. Guk Makatzenako igogailua egin genuen aurreko agintaldian. Orain, Erguingo igogailuak bukatzeaz daude, eta Santa Teresa auzoko lanak martxan jarriko dira agintaldi honetan".

Bestalde, TAO sistema berria urri hasieran jarriko dute martxan, "mugikortasun-eredu jasangarriagoa eta oinezkoentzat atsegina eta erakargarriagoa" lortu guran, "horretarako autoen fluxua murriztuz".

Juan Arzamendi Musika Etxeko birgaitze lanak 2022an amai-

tuko dituzte eta *Ekobulebar*-a ere 2022an "erabat bukatuta" egongo da. "Proiektuak bideguriari jarraipena emango dio, San Andresko Maiatzaren Bata plazatik Gipuzkoa etorbideraino". Era berean, Obenerrekako parkeerak ere datorren urtean bukatzea aurreikusten dute.

2023ra begira, 600.000 euroko inbertsioa egin ostean, Garibai kalean eguneko zentro berri bat zabalduko dute eta Jose Luis Iñarra kalea, berriz, bi urte barru berrurbanizatuko dute.

Azkenik, Musakolako kiroldegien eraberritzea eta kirol instalazioen mapa osatzea da proiektu potoloenetakoa. "Datozen urteetan proiektu estrategikotzat joko dugu eta aurten definitzea gustatuko litzaziguke, herritarrekin eta eragileekin elkarlanean", adierazi du Ander Garay Kirol zinegotziak.

### Herritarrei eskerrak

Azkenik, alkateak eskerrak eman dizkie herritarrei. "Ehunka arrasatearrek hartu dute parte proiektu hartzailuetan. Egunero egiten dizkigute iradokizunak eta hor ikusten da herriarekiko daukaten inplikazioa".



GOIENA

## Kalteak gaitzetsi ditu Gobernuak

Udal Gobernuak "gogor salatu eta gaitzetsi" ditu BAZen eta udaletxean egindako kalteak. "Pintaketez gain, sarrailak itsasgarriz eta alanbrez kaltetu dituzte, udal zerbitzuak irekitzea eragozteko asmoz. Errespetu eta gizalege faltak ez dira inoiz aldarrikapen bidea izango". *EAJ eta PSOE faxistak, Zentsurarik ez eta Mozalik ez mezuak jarri zituzten.*

## Astehenean zabalduko dituzte igerilekuak, berrikuntzekin

750 pertsona sartu ahal izango dira txanda bakoitzean; eguneko sarrera eskuratzeko aukera ere egongo da

**E.A.** ARRASATE

Astehenean zabalduko dituzte Musakolako kanpoko igerilekuak, eta udako denboraldiari hasiera emango diote. Berrikuntzak egongo dira; izan ere, 750 pertsona sartu ahal izango dira txanda bakoitzean, eguneko sarrera eskuratzeko aukera ere egongo da eta txandak luzeagoak izango dira.

Bestalde, udako abonamendua lortzeko aukera egongo da, hiru hilabetekoa. 18 urtetik beherako errolatuek 41,70 euro ordaindu beharko dute; 18 urtetik behe-

rako ez-errolatuek, 50,10 euro; 18 urtetik gorako errolatuek, 70,10 euro; 18 urtetik gorako ez-errolatuek, 84,20 euro; abonamendu familiarra gura duten errolatuek, 112 euro; eta abonatu familiarra gura duten ez-errolatuek, 134,40 euro.

Bestalde, uztailean leian irekiko dituzte Santa Barbarako eta Villa Amparoko ur-parkeak (Maalako biribilgune ondoan daudenak) eta egunero egongo dira erabilgarri, 10:00etatik 20:00etara. (Informazio osagarria hirugarren orrian dago).

## Herri topaketa egingo du Arrasateko Sortuk gaur, egubakoitza

Bere birsortzearen osteko lehen kongresuan murgiltzear dago Sortu. "Lau urte dira, Abian proiektuan lehenik eta Zohardian ostean, ezker independentismoaren paradigma politiko-organizatibo berriaren oinarriak finkatu genituenetik. Orain, perspektibaz atzera begiratu, aurreratu dugunaren balantzea egin eta ditugun erronka zein ezta-

baida politikoei erantzuteko unea da, prozesu independentista eraldatzailea estrategiaren ardatz gisa kokatuz", diote.

Kulturateko Jokin Zaitegi gelan izango da saioa, 18:00etatik 20:00etara. "Azken lau urteetako ibilbideaz egiten den balantze nazionala partekatu eta osatu nahi dugu. Gainera, proiektu nazionalari begiratzeaz gain, Arrasateko ezker abertzalearen ibilbideari, osasunari eta aurrera begirako erronkei ere tartea eskaini nahi diegu".





Beilatokia Ignacio Zuloagako 2. atarian egiteko asmoa dute. E.A.

# San Felipek erdigunea lehenesten jarraitzen du

Erabakia "irmoa" dela adierazi du San Felipe Elkarlaguntzak, "batzar nagusian botoen %73 ingururekin onartu baitzen"; sinadura bilketaren harira, azaldu du iritzi guztiak errespetagarriak direla, baina erakundeari dagokiola beilatokia non kokatu erabakitzea

**Eneko Azurmendi** ARRASATE

Ignacio Zuloaga kaleko bizilagunek sinadura bilketa egin dute beilatokiaren kokapenari desadostasuna adierazteko, eta 1.055 sinadura jaso dituzte. Horietatik 412 San Felipe Elkarlaguntzako bazkideenak dira eta 643, aldiz, bizilagunenak. "Herri mailan kezka bat dagoela ikusten dugu eta herri honetan badaukagu gaitasuna gauzak modu normalizatuan eztabaidatzeko. Kasu honetan ere, uste dut adostasun batera iritsi gaitezkeela, konfrontaziorik gabe", azpimarratu du Juan Mari Belategik, Ignacio Zuloagako bizilagunetako batek. Batutako sinadurak San Felipe Elkarlaguntzari he-

larazi dizkiote eta erakundeak ohar bidez eman du erantzuna.

Idatzi horrek dio San Felipeko kide diren pertsona batzuek erakundetik kanpoko bideetatik aurkaratzeak "erakundearen eta hura osatzen dutenen aurka" egiten duela. "Izan ere, azken batzar nagusiaren erabakia ezeztatzen den bitartean, pertsona horiek gainerako bazkideak bezain behartuta daude ebazpen hau betetzera, gure estatutu sozialetan jasotzen den bezala. Elkartekide batzuek aurkakotasuna adierazi eta erabaki horren aurka bozkatu ahal izan zuten batzar berean, botoen ia hiru laurdenak emandako ebazpenaren lekuko presentzialak izanik,

eta, orain, komunikazio- eta sinadura-bilketa kanpaina baten talde sustatzaileko kide izatea hornitu garen prozeduretatik kanpo dago".

**"Ondo komunikatua" dago**

Proiektatutako beilatokiaren diseinuak Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren aurretiazko onespina daukela adierazi du San Felipek. Lokalari eta inguruneari dagokienez, aldiz, adierazi du 2. atariko hormarekin "mankomunatutako eremua" baino ez duela izango, "egun okupatu gabeko merkataritzalokal baten azpian dagoelako eta beste aldean merkataritzalokal bat duelako mugakide".

Oinplano angeluzuzeneko lokal bat da, fatxada eta atari "zabal eta abegikorrekoa", senitarte-koak, lagunak eta ezagunak hartzeko. "Bitartean, familiak hildakoa zaintzen du bere hiru beilatokietako batean, eta agur intimoen edo zeremonia zibil edo erlijiosoen beharretara ere egokitzeke gai da. Erdiguneko kokalekua dauka, ondo komunikatua, oinez minutu batera iristeko modukoa garraio publikoko bi geralekutatik, lau minutura gertuko aparkaleku publikoetatik, eta parrokiatik antzeko distantziara, San Franziskotik 100 metrora dagoela ahaztu gabe. Gainera, eremu horretako udal-hirigintzako bilakaerak ibaiaren estaldura irekitzea eta oinezkoentzako bidea gero eta handiagoa izatea aurreikusten du".

Horrez gain, hausnarketa egin gura izan du erakundeak, kokapenaren inguruan sortu den harrabotsa dela eta: "Beilatokiaren kokapenaren aurkako erreakzioa bera izango zatekeen taberna, arrandegi edo merkataritzazentro bat balitz?".

**"San Feliperena da azken hitza"**

Maria Ubarretxena alkateak azaldu du Udal Gobernuak Kaitaideko lokal bat eskaini ziola San Feliperi eta "prestutasun osoa" adierazi diola lokal egokiagoa bilatzeko, baina erakundeak "oso argi" daukela erdiguneari egin gura duela. "Bizilagunekin bildu gara eta jaso dugu haien kezka. Berriro egongo gara San Felipeko ordezkariekin, baina araudi guztia betetzen du proiektuak eta, legez, ezin zaio inongo trabarik jarri. San Feliperen borondatearen baitan dago. Gai pribatu bat da eta haiek dute azken hitza".

## Ekainaren 20a baino lehen eman behar da izena Udaixen

Udaleko Gazteria Sailak udako egitaraua prestatu du 12 eta 17 urte artekoentzat, ekainaren 28tik uztailaren 13ra, askotariko ekintzekin. "Gazteen proposamenak entzun eta haiei leku egin diegu, eta osasun irizpideak zaindiko ditugu", azaldu dute.

Ekainaren 28an, gunela lasaia jarriko dute San Andresko gazte txokoan eta bestelako ekintzak egingo dituzte; 29an, sexualitate tailerra Musakolan; 30ean, ginkana, erdigunetik abiatuta; uztailaren 1ean eta 2an, Bibak Kurtzetxikin; 5ean, gunela lasaia eta karaokea San Andresko gazte txokoan; 6an, argazkigintza iluntzean tailerra, Erguindik abiatuta; 7an, Usakora bizikletan, Musakolatik abiatuta; 8an eta 9, Gaztekonkis; 12an, paddle surf Landan -prezioa: 10 euro-; eta 13an, hondartzara irteera -prezioa: 5 euro-. *Goiena.eus*-en daude hitzorduak zehatzago jasota.

Gazte txokoetan edo zerbitzuetako sare sozialen bitartez eman beharko da izena.

## Txatxilipurdik gidaria behar du, Freskura egitasmorako

Uztailaren 1etik 28ra gidaritzaren egingo duen pertsona baten bila dabilta. Arrasatekoa izatea, euskara elkarte edo euskalgintzako beste erakundeetan izandako esperientzia eta herrigintzan izandako ibilbidea baloratuko dute, besteak beste. Hilaren 14a baino lehen curriculumak bidali beharko da *gurasoak@txatxilipurdi.eus* helbidera.



**Astehenetik ostiralera:**  
Eguneko menua, menu bereziak eta karta.

**Asteburuetan**  
menu bereziak eta karta

**Afariak enkarguz**

Larrea Plaza 5, behea, Arrasate  
Tel.: 943 77 01 69  
hilarion@restaurantehilarion.com  
http://www.restaurantehilarion.com



**Eskerrik asko une zail hauetan gure ondoan izateagatik!**





Martitzenean eman zuten sanjuanetako kultura ekitaldiz osatutako egitarauaren berri, Monterron parkean. HASIER LARREA

# Kulturak asebeteko ditu San Juan gosez direnak

Ohiko eran ospatuko ez dituzten bigarren sanjuanak izango dira aurtengoak; hala ere, hainbat ekintza kultural antolatu dituzte ekainaren 19an hasi eta 26ra arte, edukiera mugatuarekin guztiak ere; sarrerak eskuratzeko era ekintzaren arabera izango da

## Eneko Azurmendi ARRASATE

Ezohiko San Juan hauetan, hogeitabat ekitaldi kultural egongo dira, askotarikoak. Kulturaren aldeko "apustu garbia" egin dutela azaldu du Juan Ramon Mendietara Kultura zinegotziak; herriarrei ohartarazi die neurriak betetzeko eta elkar zaintzeko.

Hilaren 23an, San Juan bezperako ekitaldia egingo dute, baina era xumean. "Musikari gutxiago egongo dira: 22. Bestalde, Lore Gazteak-eko zortzi bikote eta Arrostitz-eko beste zortzi ariko dira, 32 dantzari", dio Arrasate Musikaleko Edorta Aiastuik. Sarrerak zozketatu egingo dituzte eta horretarako izena eman behar da, hilaren 14tik 17ra, udal webgunean.

Hilaren 24an, itzulera ekitaldia egingo dute. "Normalean, Arrasate Musikaleko bandarena izaten da, baina aurten sei talde ariko dira. Horregatik da itzulera ekitaldia, talde kulturalak bueltan gatzela adierazteko".

## Sarrerak, hainbat modutan

Txorbelaren emanaldirako, uanean bertan kontrolatuko dute sarrera; itzulera ekitaldirako, hilaren 21ean eta 22ian Amaia antzokiko leihatilan banatuko dituzte -18:00-20:00-. Pailazoen emanaldirako sarreraren berri datorren astean emango dute.

## Sanjuanetako kultura ekitaldiak

Ekintza guztietan edukiera mugatua izango da. Hilaren 23ko plazako ekitaldian 45 pertsona bakarrik sartuko dira. Monterronen, asko jota, 200 pertsona; eta Amaia antzokian, 264 pertsona.

### Ekainak 19, zapatua

- 19:00 *Nekatutak*, Antton Telleriaren eskutik, Amaia antzokian.

### Ekainak 20, domeka

- 12:30 Txorbelaren kontzertua, San Frantzisko elizan.
- 18:00 Pandero Jaialdia, Amaia antzokian.

### Ekainak 21, astelehena

- 19:00 Laburbira, AEDk antolatuta, Kulturateko areto nagusian.

### Ekainak 23, eguaztena

- 12:30 Txupinazoa eta mikro irekia, Monteazpiko terrazan.
- 19:00 Rebel Noise eta LC taldeen kontzertua, Monteazpiko terrazan.
- 19:30 Udalaxpe txistulari elkartearen kalejira.
- 22:30 San Juan bezperako ekitaldia, Herriko Plazan: errementari dantza eta *Gora Arrasate* eta *San Juan* ereserkiak.

### Ekainak 24, eguena

- 11:00 Udalaxpe txistulari elkartearen kalejira.
- 13:00 Monterron parkean, itzulera ekitaldia.
- 17:00 Mus txapelketa, gaztetxean.
- 19:00 Ekiñe eta Nihil taldeen kontzertua, Monteazpiko terrazan.

### Ekainak 25, egubakoitza

- 10:30-14:00 Jolasak eta ekintzak, Monterron parkean.
- 12:00 Monteazpiko terrazan, marianito musikatua.
- 12:30 Arrasateko Trikitixa Eskolaren kalejira.
- 19:00 Pirritx, Porrotx eta Marimotots, Monterron parkean.
- 20:00 Bordan Bizio eta Txerrikumeak, Monteazpiko terrazan.

### Ekainak 26, zapatua

- 19:00 Bertso-saioa, Seber Altube plazan, AEDk antolatuta.



Lubis kuadrillak aurkeztutako leloa aukeratu du zapietarako AEDk. AED

## AEDren sanjuanetako zapiak, ekainaren 17tik aurrera salgai

Hiru euroko prezioa izango dute eta horiek eskuratzeko hainbat aukera egongo dira; tartean, AEDren bulegoan

## E.A. ARRASATE

Irati, Etxoste eta Monte tabernetan, Ttukun fotokopia dendan, AEDren bulegoan zein kalean jarriko dituzten postuetan eskuratu ahal izango dira sanjuanetako zapiak, hiru eurotan. Lubis kuadrillak sorturiko *Lepuan zapixa, piztu herrixa!* leloa eramango dute zapiak; izan ere, haiek irabazi dute lehiaketa, eta 100 euroko saria eskuratu.

Kalean hainbat postu jarriko dituzte zapiak saltzeko, ekainaren 17tik 23ra bitartean -Goienaeus webgunean daude ikusgai toki eta ordutegi guztiak-. Bes-

talde, postu horiek hilaren 26ko bertso-saiorako sarrerak saltzeko ere baliatuko dituzte -doakoak dira-. Seber Altube plazan izango da emanaldia, 13:00etan, Manex Agirre, Ane Beloki, Xabier Silveira eta Oihana Iguaranekin. Gai-jartzaile lanetan Imanol Artola Felix ariko da.

Azkenik, Laburbiraz gozatze-ko aukera egongo da, bigarren, ekainaren 21ean, 19:00etan, Kulturaten. Xabi Vallina *Iunabarran esan* zuzendu duen arrasatearra izango da solasaldia egiteko. Aretoa bete arte egongo da sartzeko aukera.



AITOR ETXAGIBEL

## 'Lekeitio II' porra izan da onena

*Lekeitio II* izan da Monte tabernak antolatutako Italiako Giroko porrako irabazlea, eta 4.824 euroko saria eskuratu du. Bigarren sailkatua *370-1* izeneko porra izan da -3.015 euro- eta hirugarrena, berriz, *Bakio 1* -1.507,5 euro-. Bestalde, Frantziako Tourra ekainaren 26an hasiko da, eta ekainaren 27a izango da porra edo apustua entregatzeko azken eguna.



# Bluesaren aitzindariak gogoratuko dituen jaia

Hirugarren aldiz antolatuko dute Arrasate Blues jaialdia Ibai-arte eta Udalak, uztailaren 15etik 18ra bitartean; bluesaren sortzaileak, hots, emakumeak, izango dira protagonista nagusiak, eta herriko taldeek ere joko dute hamaika kontzertuko sortan

**Hasier Larrea** ARRASATE

*Zero kilometro* filosofia, kultura eta gastronomia batzea zen Arrasate Blues jaialdiaren sorrerako helburua, eta aurten atera duten kartelak ideia horien bueltan jarraitzen dutela adierazten du. Eta egitaraua luzatu egin dute: lau eguneko kultur eskaintza izango da herriko zazpi txokotan.

Alde batetik, blues estiloko hamar talde gonbidatuen artean daude tokiko musikariz osatutako Erromintxelak, 8,46 Dixie Band eta Mario Fernandino Quinteto. Lehenengoak instrumentu akustikoak baliatzen ditu, swing musikaren "ezagarrri jolasgarri eta dantzagarrienetan oinarrituz; eta euren erritmo frenetikoek II. Mundu Gerrako Parisera eramango gaituzte", Ibai-arteren arabera. Bigarrena duela gutxi sortutako banda da, Arrasate Musikaleko zenbait ikaslek dixie musikarekiko erakutsitako interesaren ondorioz abiarazitakoa: "New Orleans giroko musikazaleei aski ezagunak irudituko zaizkien abestiei ukitu berezia ematen diete". Eta hirugarrenak Arrasate Musika Eskolako irakasle Mario Fernandino saxofonista du buru: "Aurreko mendeko jazzera hurbiltzen dira, bolero estiloko musika-herri-



Ibai-arte eta Udaleko ordezkariak, alkatea barne, prentsaurrekoan. H.L.

koiaren moldaketekin ziprztindutako abestiekin".

Gainontzeko zortzi bandak hauek dira: Itziar Yague Quinteto, Voodoo Charms, Animal Jane, Iker Piris & Sheilah Cuffy, Noa & Thehelldrinkers, Mississippi Queen & The Wet Dogs, Estitxu eta Willy (Los Brazos).

Kartel horrekin bluesaren jatorrirra itzuli nahi izan dute antolatzaileek: "XVIII. mende inguruan, emakumeak izan ziren soinu hau musika bihurtu eta bluesa taberna txikietatik agertoki handietara eraman zutenak;

hiru mende geroago, emakume askok eta askok hautatu dute bide hori, Arrasate Bluesen ikusiko dugun bezala", adierazi du Jon Apraiz Ibai-arte kideak.

**Garagardoa eta kamisetak**

Arrasate Blues etiketadun garagardoa ere prest du jaialdiak; dagoeneko eskuratu daiteke herriko tabernetan. Kamisetak ere salduko dituztela aipatu dute antolatzaileek.

Azkenik, egitaraua aurrera ateratzen lagundu duten eragileei eskerrak eman dizkiete.

## 'Biblioteka etxera' helduko zaie astean behin 80 urtetik gorakoei

Mugikortasun arazoak dituztenek ere jasoko dute Udalak martxan jarri berri duen doako zerbitzua

**H.L.** ARRASATE

Liburutegira gerturatzeko zailtasunak dituztenei mailegu zerbitzua erabiltzeko erraztasunak emate aldera, *Biblioteka etxera* izenpean etxerik etxe banatuko ditu Udalak bibliotekako katalogoan azaltzen diren produktuak. Sei hilabeteko probaldia izango da, eta harrearen arabera moldatuko dute zerbitzua gero. "Pertsona bakoitzak gehienez hiru liburu, hiru DVD, hiru disko eta hiru aldizkari eduki ahal izango ditu 21 egunez maileguan. Liburuen

kasuan, mailegua luzatzeko aukera eskainiko da, baldin eta erreserbarik ez badute", azaldu du Udal Gobernuak.

Onuradun izateko ezinbestekoa izango da Arrasaten bizitzea, bibliotekako bazkidea izatea eta etxerik etxeko mailegu zerbitzuan izena ematea. Behin izena emanda, zerbitzuaren erabiltzaileek telefonoz 943 25 20 98 zenbakira deituta egin ahal izango dituzte eskaerak, asteleheneetik egubakoitzera, 10:00etatik 13:00etara bitartean, eta baita Internet bidez ere.

## Kurtso amaierako kontzertua emango du Trikitixa Eskolak

Datorren egunean, 18:30ean, Amaia antzokiko agertokira igoko dira Arrasateko Trikitixa Eskolako ikasleak, ikasturte amaierako emanaldia eskaintzera, eta gonbidapenak ikasleen artean banatuko dituzte. Gainera, datorren ikasturtean izena eman nahi duenak zabalik dauka matrikulazio epea jadanik.

Amaitzeko, hilaren 20ko panderor jaialdirako sarrerak oraindik salgai daude Udalaren webgunean. 10 eurotan, Neomak, Elizagoien Ahizpak & Osas-Leuzana Anaia, Izer eta Eneko Dorronsoro, Khami eta Amak taldeen ikuskizunez gozatzeko aukera egongo da, arratsaldeko seieta hasita.

## Datorren astean ere izango du jarraipena Udaberri zikloak

Arrasate Musikaleko ikasleak protagonista dituen Udaberri ziklo musikatuan kontzertu ugari gozatzeko aukera egongo da hilaren 14tik 19ra bitartean. Astelehenean eta asteartean piano emanaldia egingo dute musika eskolan, arratsaldeko seieta. Astelehenean, 19:30ean eta toki berean, *jam session* edo saio librea jorratuko dute musikariek. Eguenean kantu emanaldiari emango diote hasiera musika eskolan bertan, seieta. Egubakoitzean Amaia antzokian izango da hitzordua, 18:30ean, kurtso bukaerako kontzertua joko baitute bertan. Eta zapatuan, biolin kontzertua eskainiko dute San Frantzisko elizan.

## Jesusi Etxebarria omenduko dute

Lehen aldiz jasoko du aitortza pertsona batek Arrasate Bluesen izenean. Jesusi Etxebarria izango da hori, "herriko milaka ikasleri musikarekiko zaletasuna piztu dien irakaslea".

Hala, uztailaren 15ean, Herriko Plazan egingo diote omenaldia 21 urterekin Arrasateko lehenengo musika akademia ireki zuenari.



Jesusi Etxebarria. H.L.



Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82



Azken asteetan herrian gertatu diren apurketa batzuk. ARAMAIOKO UDALA



## Pertsonen aurkako pintaketak

Aramaioko Udalak herriko pertsonen aurka egin diren pintaketak salatu ditu. Orain dela gutxi, Kasatxokoak salatu zituzten, eta oraingoan, herrigunean egin direnak salatu dituzte. Elkarbizitzaren alde arazoak "heldutasunez kudeatzea" eskatu du Udalak.

# Udala "arduratuta" dago azkenaldiko jarrerekin

Apurketak, pintaketak eta bestelako ekintzak gogor salatu ditu Udalak. Gertatzen ari dena salatzeko kartel bat kaleratu du, eta herriko hainbat gunetan jarri. Herritarren inplikazioa eskatu du, eta herriko eragileekin lanean hasiko dela dio

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO  
Azkenaldian Aramaioko udalerrian gertatu izan diren apurketak, pintaketak eta bestelako ekintzak "gogor salatu" ditu Udalak. Herriaren eta herritarren aurka egindako ekintzak ezin direla onartu azaldu du Udalak ohar bidez. Horrelako ekintzak eta jarrerak beti egon izan direla dio Lierni Altuna alkateak:

"Baina alarma egoera kendu zenetik areagotu egin dira jarrerak batzuk".

### Eskolako jolaslekua

Eskolako jolaslekuan eta inguruan hainbatetan gertatu dira apurketak: orain urtebete, esaterako, jangelako atea apurtu zuten eta barrura sartu ziren. Aste bukaera askotan oso zikin-

duta geratzen da jolastokia –baita kristal zati txikiekin ere–.

Saioa Uriarte eskolako zuzendariak dio "gai konplexua" dela: "Aurreko astean, herriko garbitzaileek sekulako lana egin zuten gu eskolara heldu ginenerako. Tutu malgua ateratu zuten kristalezko zati txikiak garbitzeko, eta aterpea desinfektatu egin behar izan zutela esan zi-

daten". Nabarmendu du gazteek lekua behar dutela elkartzeko, eta momentu honetan eskola ingurunea dela euren elkargunea. "Ea denon artean espazio publikoan errespetuzko erabilera bat izatea lortzen dugun; eta, noski, eskola elkarlanerako prest dago", gaineratu du.

### Eguneko zentroa

Bestalde, Lurgorri pasealekuan dagoen eguneko zentroaren aurka askotarikoak bota izan dituzte: patatak, mandarinak, kiwiak... Inoiz, gainera, erabiltzailearen bat kanpoaldean zegoela bota dituzte fruta-aleak. Horrelako jarrerak ezin direla onartu salatu du Udalak.

### Parkean mahai bat gutxiago

Santa Anan eta parkean zeuden sei mahaietatik bat lurretik ateratu zuten orain dela bi aste bu-

kaera. Mahaia bere lekutik atera eta eskolako jolastokira eraman zuten. Udalak dio inork ez duela "ezer eskatu" ez eskolan ezta udaletxean ere.

Udala "oso arduratuta dago egoerarekin"; nahiz eta jakin "gutxi batzuen jarrera" dela, "haserrea eta amorrua" eragiten dute herrian. Egoera gelditzeko, hainbat eragileekin lanean hasi dira. "Gazte Asanbladarekin, Guraso Elkartearekin... Eskolarekin aspalditik gabiltza gaia lantzen", azaldu du alkateak. Horren harira, herritarren inplikazioa eskatu dute.

**"NAHIZ ETA GUTXI BATZUEN JARRERA IZAN, HASERREA ETA AMORRUA ERAGITEN DUTE HERRIAN"**

## Emon eta Neomak taldeen kontzertua frontoi kanpoan

Trikikalejira elkarteak antolatuta, trikiti jaialdiaz, tailerrez eta kontzertuez gozatzeko aukera egongo da bihar

### A.E.G. ARAMAIO

Trikikalejira elkarteak antolatuta, hainbat emanaldi eta ikastaro egingo dituzte bihar trikitiaren bueltan.

12:00etan, trikiti jaialdia egingo dute kultura etxean. "Esko-

latik pasa direnei keinu txiki bat egin nahi diegu, eta belaualdi askotariko jendea batu. Trikitia eta panderoa lagun, ordu erdiko emanaldi motza baina era berean polita egingo dugu", dio trikiti irakasle Aritz

Alustizak. Arratsaldean tailerrak izango dituzte: perkusio tailerra Aitor Aranbururekin, kantu tailerra Larratiz Arriolabengorekin eta irrintzi tailerra Oihana Amezuarekin. Aurrez eman behar da izena.

18:30ean, kontzertuen txanda izango da. Frontoian izango dira, kanpoko aldean: Neomak eta Emon taldeen doinuak entzuteko aukera egongo da. Sarrerak [eventbrite.es](http://eventbrite.es) atarian eros daitezke; egunean bertan ere egongo da sarrerak eskuratzeko aukera.

## 'Sugarren mende' aurkeztuko dute Urmenetak eta Xuriok

Martitzenean, ekainaren 15ean, *Sugarren mende* liburua aurkeztuko dute Asisko Urmenetak eta Helena Xuriok Aramaioko kultura etxean. 18:00etan izango da aurkezpena. Edukiera mugatua izango duenez ekitaldiak, sarrerak aurrez erreserbatzea gomendatu dute. Euskal Herriko sorgin-ehiza izango dute berbaei Urmenetak eta Xuriok.

## ZUZENKETA

Ekainaren 4ko GOIENA Aldizkarian, 18. orrian, udalbatzaren ohiko osoko bilkuraren albistean akats bat zegoen. 2021eko aurrekontuari 424.324,11 euroko txertaketa egitea udalbatzak aho batez onartu zuela jartzen du. Baina hori ez da zuzena. EH Bilduko sei zinegotziren aldeko botoa izan zuen txertaketak; aldiz, EAJko bi zinegotziek kontra bozkatu zuten. "Udal Gobernuaren proposamena ezin dugu onartu", argudiatu zuten.



DEBAGOIENENKO



# OSASUN ZERBITZUAK



## DENTISTAK

### ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behea / 943 79 95 60

### AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibarra 32, behea / 943 76 00 23

### ANE LASAGABASTER

Arrasate / Oñalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.  
943 79 13 68

### ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

### ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

### BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

### CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

### DURANA HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Durana kalea 22 / 943 79 93 55

### GARAI HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Iralabarri 15 / 943 53 42 63

### GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

### IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

### MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

### SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

### TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behea  
943 79 20 18 / 620 12 48 43

## DIETETIKA

### BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

## ENTZUMEN ZENTROAK

### INSTITUTO OPTICO AUDITIVO

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68  
Bergara / Bidekurutzeta 10 - 943 76 97 03

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

### BIZI KIROPRAKTIKA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

## MASAJISTAK

### AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibarra 44, behea / 943 76 73 43

## NEUROLOGIA

### AGUSTIN SAGASTA

(AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## OPTIKAK

### BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## ORTOPEDIA

### MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

## OSASUN- DIAGNOSTIKOAK

### UDALAITZ ZENTRO MEDIKOA

Arrasate / Euskal Herria plaza 3  
943 79 44 22

## PODOLOGOAK

### ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk.  
943 79 97 46

### IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g  
943 76 07 84

## PSIKOLOGOAK

### NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

### VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

## PSIKIATRIA

### IÑAKI MADARIAGA

(AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11



Demetrio Iriarte zuzendaria eta bandako musikariak –eskuinean, bigarren mutikoa, Ricardo Garro–. ARETXABALETAKO ARGAZKI ARTXIBOA



Angel Barandiaran bandarekin. A.A.A.



Musika eskolako banda. IMANOL SORIANO

## Bandaren doinuei eusteko lanean segitzen dute musika eskolan

Leizarra musika eskolako bandak kontzertua eskainiko du gaur, egubakoitza, komentuko lorategian, pandemia sasoiaren egingo duen lehenengoa. Jon Lopezek zuzentzen duen banda Aretxabaletak 1950eko hamarkadatik hona izan duen hirugarrena da

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Pandemia hasi zenetik ikus-entzuleen aurrean lehenengoz eskainiko du kontzertua Leizarra musika eskolako bandak, eta musikariak "gogotsu" daude horretarako. Komentuko lorategian izango da (19:00) eta ehun bat lagunendako eserlekuak jarriko dituzte.

Jon Lopez zuzendariak aurreratu du hainbat filmetako soinu bandetako kantuak eskainiko dituztela: "Betiko doinuak hautatu beharrean beste batzuk ikastea proposatu nien ikasleei; batzuk eurek aukeratu dituzte eta beste batzuk neuk; kantu klasikoak, adibidez. Eta sorpresatxoren bat ere egongo da". Itzulerarekin pozik daudela gaineratu du: "Lanean ibili gara, entseguak grabatu egin ditugu eta sare sozialetan zabaldu, esaterako. Baina urte eta erdi pa-

satu da publiko aurrean azkenez izan ginenetik, eta badugu gogoa".

Eskolako bandak 2009an hasi zuten ibilbidea. Jon Lopez irakasleak hartu zuen haren gidaritzara, eta, hasiera baten, 10 eta 14 urteko ikasleen topagune izan bazen ere, taldea hazi egin da azken urteotan. Banda hori, baina, ez da ezerezetik sortu; aitzindari bi izan ditu, banda doinuek orain baino estimu handiagoa zutenean zeresan handia eman zutenak biak ala biak.

**Demetrio Iriarte zuzendari**

Aretxabaletarren musikarako zaletasuna ez da gaurkoa eta banda ere ez. Demetrio Iriarte Mujika (Oñati, 1921-Aretxabaleta, 1997) txistulari eta konpositore handia izan zen Aretxabaletako lehenengo bandaren sortzailea. 1951ko azaroan, San-

ta Zezilia egunez, egin zuen lehenengo kalejira.

Ricardo Garro saxofoi-jolea geroago sartu zen banda hartan, 12 urte zituela, eta beste bederatzita bat lagun ere hasi ziren harekin. Guztira, hogeitasei musikari inguruk osatzen zuten. "Esaten zen furgonetan egiten zituela kalejirak hasierako urteetan, musikariak ez zekitelako ibilian instrumentuak jotzen. Baina ez dakit egia den; guk, behintzat, oinez egiten genituen".

Bandaren ardura zen dantzatzeko musika jartzea domeka arratsaldeetan, Herriko Plazan: "Dantzaldietan 19:00etatik 21:00etara egoten ginen, hiru txandatan banatuta. Eta kontzertuak ematen genituen. Inguruko herrietara ere joaten ginen, batez ere, Oñatiko jailetara, Iriarte zuzendaria bertakoa zelako".

Udal banda izanik, hark finantzatzen zuen: "Mutikook ez genuen diru askorik jasotzen, beterranoek, seguru asko, gehiago. Eta instrumentuak Udalarenak ziren". Hala, garestia zela banda mantentzea erabaki zuen Udalak, eta desagertu egin zen, 1966. urtearen bueltan.

Bandaren desagertzearen ostean, Calypso jatzana sortu zuten han jardundako hainbat musikaririk. Talde hartako kide izan zen Angel Barandiaran –handik urte batzuetara, bigarren bandaren zuzendari izango zena eta urte askoan Aretxabaleta Abesbatzako zuzendari dena–; biraderadun organoa jotzen zuen hark. "Bandaren lekukoa hartu genuen eta Herriko Plaza giroten genuen guk ere herritarrek dantzaren egin zezaten", dio Barandiaranek, eta gaineratu du: "Gogoan dut Orly dantzalekua zabaldu zenean bertan jo genuela guk. Iluntzera arte plaza giroten genuen, eta gero, afaloste inguruan Orlyn jarraitu. Musika zuzenean izaten zen orduan dantzalekuan".

**Omenaldia 1992an**

Bigarren banda 90eko hamarkadan sortu zuten. Lehenik, musika eskola jarri zen abian, 1991ko irailean; eta gero, banda. Angel Barandiaran izan zen zuzendaria.

1992ko azaroaren 29an banda omendu gura izan zuen Udalak. Eskerrak eman zizkien lehenengo bandako kide izan ziren musikariei eta Demetrio Iriartek

herriko intsignia jaso zuen. Kalejira egin zuten egun hartan eta eguerdi partean kontzertua eskaini Durana kalean; sasoi bateko kanta ezagunak jo zituzten. "Kontzertu hartako une batean Demetriori eskaini nion batuta, eta hark zuzendu zuen doinuren bat edo beste", gogoratu du Barandiaranek.

Bandaren berragerpena pozik hartu zuten herritarrek, eta jarrai zezala eskatu zieten asko izan ziren: "Banda berreskuratzea pentsatu genuen sasoi hartan. Eta horretarako, Azpeitiko bandaren laguntza jaso genuen, besteak beste".

Musika eskolak egindako lanari esker, 1994rako talde polita osatu zuten. 26 kide batu ziren bigarren banda hartan; ia erdiak ziren Aretxabaletako musikariak; gainerakoak, Azpeitikoak, Arrasatekoak eta Eskoriatzakoak. Ez zuen urte askoan iraun, baina eskainitako emanaldiak asko izan ziren: "Oñati egunean izan ginen behin. Kalejirak aldiro egiten genituen, eta kontzertuak eskaini ere bai". Jose Ramon Quintanilla izan zuen lagun Barandiaranek bandaren antolaketa kontuetan, eta municipalak izan zedin lan egin zuten. Proiektua, baina, bertan behera geratu zen, eta taldearen ibilbidea ere bai: "Pena izan zen, baina babesik gabe ezin zuela aurrera egin argi geneukan".

**Babes beharra**

Barandiaranek onartu du sasoi bateko osperik, beharbada, ez dutela gaur egun herrietako bandek: "Lehen, udal bandak zeuden Arrasaten, Oñatin, Eskoriatzan... Bergarako, esaterako, sekulakoa zen. Eta orain, behera egin dute leku gehienetan". Hori ere aurrera egin dezaten babesa behar dutela gaineratu du: "Ez dakit herri batek banda bat izan behar duen edo ez, baina izan behar badu sostengua behar du. Bitartean, gaur egungoak Leizarra musika eskolako instrumentu ikasleei musikari lez hazten eta hezten joateko aukera eskaintzen die".

**LEHEN BANDA  
KIDEAK ETA DEMETRIO  
IRIARTE OMENDU  
ZITUEN UDALAK  
1992KO AZAROAN**



## Calypso jazbana

Lehen banda desagertzeraoan Calypso jazbana sortu zuten hainbat musikaririk. Ezkontzak, auzoetako jaiak eta Herriko Plaza girotzen zituen taldeak, baita Orly dantzalekua ere. Angel Barandiaranek bideradun organoa jotzen zuen, nahiz eta argazkian agertu ez; argazkikoak: Luis Eraña, Eugenio Lacalle, Paco Perez, Bernabe Makazaga, Pablo Perez eta Jose Almarza.



Calypso jazbaneko kideak. ARETXABALETAKO ARGAZKI ARTXIBOA


## Bandetako kontuak gogoan



**RICARDO GARRO** LEHEN BANDA KO SAXOFOI-JOLEA

**"Errioxarrak umoretsuak ziren eta giro ona zegoen"**


"Don Pedro abadearekin abesbatza hasi nintzen 9 urte nituela, eta, oinarrizko solfeoa banekienez, 12 urterekin bandan sartu nintzen. Aparteko giroa zegoela dut gogoan. Musikariren artean hainbat errioxar zeuden, gutxienez lau, eta sekulako umorea zuten; txiste mordoa kontatzen zituzten. Entseguak astean behin, behintzat, egiten genituen eta urtebetetze egunetan olibak eta ardo-garrafoia erosten zituzten ospatzeko; mutikooi, baina, olibak bakarrik ematen zizkiguten".



**ANGEL BARANDIARAN** BIGARREN BANDA KO ZUZENDARIA

**"Gure proiektuak ez zuen aurrera egiterik izan"**

"90eko hamarkadan banda berreskuratu gura izan genuen, eta Azpeitiko bandaren laguntza jaso ere bai horretarako. Herriko banda izan zedin lanean hasi ginen hainbat lagun; nire proposamena izan zen, adibidez, zuzendaria hautatzeko lehiaketa deia egitea. Baina proiektuak, azkenean, ez zuen aurrera egin. Babesik jaso ez genuenez, hoztu egin ginen lanean hasita geundenok eta bertan behera utzi genuen. Ordurako, gainera, Aretxabaleta Abesbatzarekin nenbilen buru-belarri ni".



**JON LOPEZ** LEIZARRAKO BANDA KO ZUZENDARIA

**"Zaila izaten da gazteei bandan eustea"**

"Hamar urtetik gora daramatzat musika eskolako banda zuzentzen; musikari gutxi batzuekin hasi nintzen eta orain 25 inguru gara. Gaztetxoak dira gehienak, baina heldu batzuk ere badaude. Zaila izaten da gazteei eustea, 18 urtera iritsitakoan beste ibilbide bat hasten dutelako, baina, baten batek jarraitzea erabakiz gero, ni oso pozik; gainera, hori eredu izan daiteke beste batzuekiko. Musika, eta kasu honetan banda, ez da bakarrik ikastea, dibertitzea ere bada, eta jendea ezagutzeko gunea".



Bi gazte Durana kalean. IMANOL SORIANO

## Emantzipaziorako laguntzak aztertuko ditu Udalak gazteekin

Proposamena aurkezteko eta beharrak jasotzeko bilera deitu du: ekainaren 17an izango da, Arkupen

**M.A.** ARETXABAETA

Gazteei etxebizitzaren alokairua errazteko laguntza programa bat jarri gura du abian Udalak. Diseinu fasean dago, eta informazioa eskuratzen dihardute orain. Horretarako, beste herri batzuetan dituzten laguntza-leerroak kontsultatu dituzte, baina Aretxabaletako errealitatea ere ezagutu gura dute.

Gazteen beharrak jasotzeko –ahal den neurrian deialdiaren oinarrietan txertatzeko–, bilera egingo dute haiekin; ekainaren 17an, eguenean, izango da (18:30), Arkupen, eta izena aurrez eman beharra dago Udalaren webgunearen bidez. Bertan aztertuko dituzte, besteak beste, alokairuaren gehieneko prezioa eta laguntzaren zenbatekoa.

**Urtebetetik gorako alokairuak**

Xabi Otxoa zinegotziak laguntza programa horren arrazoia azal-

du du: "Etxebizitza eskuratzea da gazteek emantzipatzeko orduan duten oztoporik garrantzitsuenetako bat, eta, horregatik, Udalak, udal-eskumenen esparruan, programa bat bultzatu nahi du gurasoen etxea uzten duten gazteei laguntzeko". Hala, 18 eta 35 urte artekoak emantzipatzen laguntzea eta etxebizitzaren alokairua bultzatzea izango dira dirulaguntza horien helburuak.

Laguntza horiek banaka edo bizikidetzaren unitate gisa eskatu ahal izango dituzte gazteek. Hasi batean, alokairu kontratuak ezin izango du hamabi hilabete baino gutxiagoko iraupenik izan. Urteko diru-sarreraren gordinak 28.000 eurotik gorakoak ez izatea planteatzen da pertsona bakar batentzat, eta 44.000 eurotik gorakoak bizikidetzaren unitatearentzat. Laguntzen deialdia datorren urtean jarriko da abian.

|                              |                        |
|------------------------------|------------------------|
| <b>Odontologia estetikoa</b> | <b>Ortodontzia</b>     |
| <b>Endodontzia</b>           | <b>PADI zerbitzua</b>  |
| <b>Inplantologia</b>         | <b>Hortz protesiak</b> |

Astelehenetik ostegunera: 08:30-20:00  
Ostiralean: 09:00-16:00

Durana kalea 22 • Aretxabaleta • Tel.: 943 79 93 55

# Herrien arteko elkarlana erakusketan jasoko dute

Aretxabaleako Yaakar elkarteak Senegalgo Mban herrian egiten diharduen proiektuaren berri emateko erakusketa zabalduko du ekainaren 15ean, Udaletxe zaharrean. Udalaren dirulaguntzarekin osasun zerbitzuetarako eraikin bat egin dute

## Arantzazu Ezkibel ARETXABALETA

Aretxabaleako Yaakar elkarteak lankidetzatza proiektu bat du martxan Senegalgo Mban herrian. Hango osasun zentroan erditze eta kontsulta gelak izango diren eraikina egin nahi dute. Erditze eta kontsulta gela horiek emergentziazko lehen sorospen zerbitzua eskainiko diete herriko emakumeei.

Proiektuak hiru fase izango ditu, eta dagoeneko egin dute lehenengoa: Aretxabaleako Udalak emandako 2.553 euroekin eraikinaren zimenduak altxatu dituzte. Orain, asmoa da bigarren fasea egitea.



Mban herriko erditze eta kontsulta gela eraikina. YAAKAR ELKARTEA

## Bigarrena fasean, sabaia

Bigarren fasean, eraikinaren sabaia egin nahi dute, eta horretarako Aretxabaleako Udaletxe dirulaguntza eskatu dute. Bigarren faserako aurrekontua 2.997,64 eurokoa da. Yaakar elkartearen asmoa da Mban herrian egiten dabilen lanen berri ematea aretxabaletarrei. Horretarako, proiektuaren inguruko erakusketa zabalduko dute udaletxe zaharrean ekainaren 15ean. Ekainaren 25era bitartean egongo da ikusgai. Ordutegia izango da: astelehenetan eta egubakoitzetan, 12:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara; martitzenetan eta eguenetan, 18:00etatik 20:00etara; eta eguaztenetan, 12:00etatik 13:00etara.

Hirugarren fasean, instalazio elektrikoa, arotz-lanak, iturgintza eta aire girotuaren instalazioa egingo dituzte.

## Elkarlana

Proiektua elkarlanean egiten ari dira Yaabar elkarte eta Mban herriko zenbait erakunde; besteak beste, Senegalgo Mban Udalerriko Udala, Mbam udalerriko Osasun Batzordea, Mbam Osasun Zentroko erizain arduraduna eta Osasun Zentroko emagina.

## 2019AN SORTU ZUTEN YAAKAR ELKARTEA SENEGALGO FAMILIA BATEK ETA HAINBAT HERRITARREK

Mbam herriaren eremua zazpi herrixkek eta hiru auzok osatzen dute eta 15.000 biztanle inguru ditu. Hango herritarrek "benetako zailtasunak" bizi dituzte osasun arreta jasotzeko, Yaabar elkartearen esanetan. Haurdun dauden emakumeek 3 eta 12 kilometro artean egin behar izaten dituzte Foundiougnera iristeko, eta osasun arreta jasotzeko. Horrez gain, eskualdean duten garraio falta dela eta, behar gehien dituzten emakumeek batzuetan osasun laguntza bilatzeari uko egiten diote. Mbam Senegal hego-ekialdean dago, Fatick eskualdean eta Foundiougne departamenduan. Udalerrriak 124 kilometro karratuko azalera du.

## Emakumeak eta erditzea

Osasunaren Mundu Erakundearen datuen arabera, egunero

1.500 emakume baino gehiago hiltzen dira haurdunaldiari edo erditzeari loturiko arazoengatik. "Mban herriak ez du azpiegitura egokirik haurren eta jaioberrien osasuna bermatzeko", azaldu dute Yaakar elkarteak. Hain zuzen, testuinguru horretan kokatu behar da Aretxabaleako elkarte Mban herrian egiten dabilen proiektua.

## 2019an sortutako elkarte

Aretxabaleako Yaakar Elkarteak 2019an eman zuen izena Eusko Jaurlaritzako erregistroan. Senegaldik etorritako familia batek eta hainbat herritarrek sortutako elkarte da. Garapenerako kooperazio eremuan lan egitea da duten helburu nagusia.

Giza talde babesgabe eta ahulen eskubide sozialen eta zibilen garapen osoa sustatzeko sortutako elkarte da. Proiektuak aurrera eramateko ezinbesteko ikusten dute tokiko erakunde edo eragileekin batera elkarlanean jardutea. Proiektuak aurrera eramateaz gain, ezinbesteko ikusten dute Aretxabaletarrei euren proiektuen berri ematea; horretarako egingo dute erakusketa, hain zuzen.

## The Potes taldeak diskoa aurkeztuko du Areantzan

Hiru taldek egingo dute emanaldia, 17:30ean hasita, eta sarrera guztiak agortu dira dagoeneko

### A.E. ARETXABALETA

The Potes taldeak *Damurik ez bihotza aske* bigarren diskoa aurkeztuko du bihar, zapatua, Areantzan. "Zelai batean egingo dugu emanaldia. Disko berriko abestiez gain, lehenengo diskoko abestia eta bertsio batzuk ere eskainiko ditugu", azaldu du Beñat Abasolo aretxabaletarra.

Dagoeneko sarrera guztiak agortu dira: "Oso azkar, gainera". Hiru talde izango dira Areantzako zelaian emanaldia eskaintzen. Garazi Barrena arrasatea-

rrak zabalduko du biharko jaialdia; ondoren, Erne taldearen musika entzungo da; eta, azkenik, The Potes taldearen txanda izango da. Bertsioak egitetik euren kantuak sortzera pasa dira The Potes taldeko kideak. Doinu propioak bilatu dituzte, eta nor-tasun eta indar handiko taldea dela esan daiteke. Disko berriarekin damuak atzean utzi nahi dituzte, eta sortu dituzten abestiekin bihotza dantzan jartzeko gogoia pizten dute. Emanaldia hasi baino ordubete lehenago zabalduko dituzte atea.

## Neomak taldeak emanaldia egingo du etzi, domeka

Trikiti doinuak ekarriko dituzte Neomak taldeko musikariak domekan herriko plazara. Emanaldia 19:00etan izango da –eguraldi txarra bada, Iturrigorri frontoian–.

Zazpi emakumek osatutako taldea da, eta, gazteak badira ere, ibilbide oparoa izan dute guztiek. Arrasateko, Debako, Zarauzko, Zizurkilgo eta Asteasu musikiariak dira. Eskarmentua dute oholtza gainean; izan ere, Kepa Junkera musikariarekin ibilitakoak dira sei bat urtez. Trikitia eta pandero ezberdinen doinuak nahastuko dituzte domekako emanaldian. *Ilargi berriak* lana eskainiko dute trikitilari gazteek.

## Basotxo elkartearen batzar orokorra, ekainaren 22an

Basotxo erretiratuen elkarteak urteko batzar orokorra egingo du datorren ekainaren 22an. Mojen komentua izandako erakinean egingo dute batzarra, 16:30ean. 2019ko eta 2020ko memoriak irakurriko dituzte, eta 2021eko ekimenen berri emango dute. Gainera, zuzendaritza batzordea berritzea egokituko zaie basotxoko kideei.

## Futbol campusa arratsalde ere egingo dute

UDAK antolatzen duen futbol campusa goizez eta arratsalde izango da. Uztailaren 5etik 30era bitartean izango da, Ibarra futbol zelaian. 2009an, 2010ean, 2011n eta 2012an jaiotako gazteei zuzendutako jarduerak izango da, eta ordutegia ondorengoa izango da: 2011n eta 2012an jaiotakoak 09:45etik 11:15era eta 15:30etik 17:00etara; eta 2009an eta 2010ean jaiotakoak, 11:30etik 13:00etara eta 17:15etik 18:45era.

Izena emateko azkeneko eguna ekainaren 18a izango da. Prezioa 65 euro da, pertsonako. Informazio gehiago 659 79 44 65 telefono zenbakian eta [uda.kudeatzailea@gmail.com](mailto:uda.kudeatzailea@gmail.com) helbidean jaso daiteke.

Mobiliario  
ARENAZA

ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA



# Uztaileko oporraldian irteera ugari aukeran

Nerabeei zuzendutako Udaero uztaileko oporraldiko aisialdi programaren barruan, zenbait irteera antolatu dituzte Eskoriatzako gaztelekukoek. Berrikuntzekin dator aurtengo edizioa, eta ekainaren 20ra arte dago aukera izena emateko

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

DBH-1 eta DBH-4 arteko ikasleei (12-16 urte) zuzendutako ekintzek osatzen dute Eskoriatzako gaztelekuko antolatutako Udaero programa. Uztaileko oporraldiko ekintzak betetako egitaraua antolatzen dute urtero, gaztelekura gerturatzen diren nerabeekin batera diseinatuta. Aurten, berrikuntzak ezarri dituzte; hala ere, sei irteera antolatu dituzte, nerabeekin batera adostuta.

Leire Lezeta, Dorleta Ezeiza eta Jon Errasti eskoriatzarrak arituko dira begirale lanetan, eta Udaero egitasmoan izena eman gura duten interesdunek ekainaren 20ra arte izango dute aukera horretarako. Aurten, gainera, nerabe bakoitzak nahi beste ekintzatan izen emateko aukera izango du; hau da, ekintza bakarrean, bitan edo denetan. Izena emateko, Eskoriatzako gaztelekura joan daiteke, edo 688 84 38 21 telefono zenbakira deitu.

**Herriko nerabeak bakarrik**

Egitasmo hau beste urte batzuetan Aretxabaletako gaztelekurekin batera antolatu izan dute, baina aurten, COVID-19a dela eta

herri bakoitzak bere eskaintza antolatuko du, gehienez hogeitaz plaza eskaini ahalko dituelako ekintza bakoitzeko. "Formatua aldatu egin dugu aurtengo edizioan. Hala ere, antolatutako egitaraua nerabeen gustukoa

da, eta, gainera, nahi beste ekintzatan parte hartzeko aukera izango dute. Eskaintzaren barruan, guztiak irteerak dira, eta horietako bakoitzean 20 laguneko muga jarrita, erantzun ona jasoko dugulakoan gaude". Horrekin batera, uztailean eguraldi ona aurreikusten duten arren, txarra egingo balu, badituzte beste aukera batzuk, ezarri dituztenak ordezkatu ahal izateko.

**Irteera bereziak uztaileko**

Uztailaren 6tik 23ra bitarteko egitarauari dagokionez, irteeren aldeko apustua egin dute, kirola nagusi izanda. Izan ere, Udaero programari hasiera emateko, lehenengo irteera Landara egingo dute, eta bertan paintball jolasa. Horrekin batera, uztailearen 8tik 9ra bitartean, mendi irteera egingo dute Alabixara, eta han pasatuko dute gaua, gainera. Oñatira ere joango dira, bidegorritik, bizikletan, eta Usakon egingo dute egonaldia; han bainua hartzeko aukera izango dute. Eskoriatzatik Leintz Gatzagara bitartean dagoen Gatz Bidea egiteko ere aprobetxatuko dute beste egun batean, Zarautzen surfa egiten ikasteko saioa ere izango dute beste batean, eta, beste behin, Alabixara oinez igo eta hantxe gaua pasatzeko aukera ere izango da.

Paintballa edo surf ikastaroa egin nahi duenak 15 euro ordaindu beharko ditu. Gainontzeko ekintzetarako, bost euro ordaindu beharko dute, eta Gatz Bidea edo bizikletan Usakora joateko ez dute ezer ordaindu beharko nerabeei.

**AURTEN, NERABE BAKOITZAK NAHI BESTE EKINTZATAN IZENA EMATEKO AUKERA IZANGO DU**

## Udaero: eskaintza

### Uztailak 6

- Paintballa Landan.

### Uztailak 8-9

- Alabixara lotara.

### Uztailak 12

- Bizikletan Usakora.

### Uztailak 14

- Eskoriatza-Gatzaga mendi irteera: Gatz Bidea.

### Uztailak 20

- Surf ikastaroa Zarautzen.

### Uztailak 22-23

- Alabixara lotara.



Gaztekonkris lehiaketa egin zutenekoa, Udaeroren barruan. ESKORIATZAKO GAZTELEKUA



Nerea Arana, Eskoriatzako Udaleko Garapen teknikaria, bonuak saltzen. I.B.

## Tokiko kontsumoa sustatzeko bonuak saldu eta saldu ari dira

'Eskoriatza bizirik' bonuen kanpaina joan den eguaztenean jarri zuten martxan Ibarraundi museoa

**I.B.** ESKORIATZA

Joan den eguaztenean jarri zuten *Eskoriatza bizirik* bonuen kanpaina martxan, eta erantzun ona izaten ari da. Izan ere, dagoeneko saldu dituzte lehenengo faseko bonu guztiak, iazko berdinak direnak, eta ostalaritzara bakarrik bideratutakoak ere arrakasta izaten ari dira; berriak dira horiek.

Abuztuaren 31ra arte dago aukera bonuak erosteko eta horiek erabiltzeko. Bonu orokorrak faseka salduko dituzte, eta fase bakoitzean 700 bonu aterako dituzte. Joan den astean atera

zitu zenak agortu egin dira, eta irailean beste 700 bonu aterako dituzte; eta, azkenik, Gabonetan beste hainbeste.

Bereziki ostalaritzan gastatzeko 550 jarri dituzte salgai, eta urtea bukatu arte erosi eta erabili ahal izango dira.

**Ibarraundi museoa salgai**

Ordutegi honen barruan erosi ahal izango dituzte bonuak interesdunek: astelehenean eta egubakoitzetan, goizez, 11:00etatik 13:30era bitartean; eta arratsaldean, eguaztentean, 17:00etatik 19:30era bitartean.

## GORA ETA BEHERA



I.B.

## Mazmelako bankua konpondu egin dute



Mazmela elizatean apurtuta zegoen bankua konpondu egin dute. Paseoan aritzen direnek eskertu egingo dute herrigunetik elizara bitartean dagoen eserlekua berriz erabilgarri egotea.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo 688 69 00 07.



Behoko Errota musika eskolako haurrak solfeoko eskola batean aste honetan. BEHEKO ERROTA MUSIKA ESKOLA

## 'Gela birtuala' izeneko metodologia berritzailea

Datorren ikasturtera begira zenbait berrikuntza egin nahi ditu Eskoriatzako Beheko Errota musika eskolak. Hala, maila guztietan ezarri gura dute metodologia berria, baina, batez ere, 4, 5, eta 6 urtekoen izen-emateak sustatu nahi dituzte

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Eskoriatzako Beheko Errota musika eskolak datorren ikasturtera begirako matrikula zabaldu du. 2021/22 kurtsorako egongo diren aktibitateen berri emateaz batera, ikasturteak izango dituen berrikuntzen gaineko informazioa eman nahi izan dute, eta, batez ere, musikarekin lehenengo kontaktua izango duten haurrengan indarrak jarri. Uztailaren 9ra arte dago aukera izena emateko, eta, horretarako, [musikaesko@hotmail.com](mailto:musikaesko@hotmail.com) helbidera idatzi edo 943 71 49 95 telefono zenbakira deitu daiteke.

Urte zaila izan bada ere, neurriak ezarri aurrera atera dute ikasturtea, baina datorren ikasturtea indartuta hasi nahi dute: "Beherakada nabarmena izan dugu tailerrean izena ematen dutenei dagokienez. Hau da, tailerra deitzen diegu musikarekin lehen kontaktua duten haurren ikasketei. 4, 5 eta 6 urtekoak aritzen dira hemen, eta, sarri, 7

edo 8 urterekin hasten dira musika-hizkuntza ikasgaiarekin zuzenean, instrumentu bat hartzeko gogoz, eta tailerrean irakasten ditugun oinarrizko kontzeptuen falta nabarmena ikusten dugu. Beraz, gurasoei adierazi nahi diegu haurrak oso txikiak izan arren oso garrantzitsua dela tailerreko urte horietako edukia", esan du Araceli Telletxeak, Beheko Errota musika eskolako zuzendariak.

**Metodologia berria**

Musika eskolako lehenengo ikasketa prozesuaren ikasleen hutsuneari aurre egiteko, datorren ikasturteko berrikuntza nagusia da metodologia berri batekin hasiko direla. Hain zu-

zen ere, *Gela birtuala* izeneko. "Teknologia berrietara egokitzeko, modu hau erabiliko dugu, gaur egun ezinbestekoa dena. Duela lau urte Valentziako eskola batean sortutako egitasmoa da, eta hedatzen ari da musika eskola askotan. Kasu honetan, maila guztietara hedatzea izango litzateke asmoa...".

**Lengoia musikalean aldaketa**

Informatika Musikala ere inplementatu nahi dute hirugarren mailako ikasleentzat. Kasu honetan, oinarrizko ezagutza izatea ezinbestekoa izango da. Bi ataletan zatituta egongo da: partiturak idaztea eta grabaketak egitea.

**Udaleku artistikoak**

Musika eskolako kideek gogorarazi dute zabalik dagoela udaleku artistikoen izen-ematea. Uztailaren 5etik 23ra bitartean izango dira, eta azpimarratu dute 4 urtetik 9 urte arte luzatu dela apuntatzeko adina.

**UZTAILAREN 9RA ARTE DAGO AUKERA IZENA EMATEKO, POSTA ELEKTRONIKOZ EDO TELEFONOZ DEITUTA**

## Ainara Ortegak bigarren diskoa aurkeztuko du gaur: 'Onin'

Lesakako ibaiari erreferentzia egiten dio diskoaren izenburuak, eta emozioak eta umorea batzen ditu

**I.B. ESKORIATZA**

Ainara Ortega Barrenetxea musikariak *Onin* izeneko bere azken lana aurkeztuko du gaur, egubakoitza, 19:00etan, Ibarraundi museo kanpoaldean.

Aktorea, abeslaria eta dantzaria da Ainara Ortega hernaniarra, eta Lesakako herriari eta Lander Arriola bere bikote-kidea zenari eskainitako lana da; azken hori minbiz hil zen, 27 urterekin. *Onin* Lesaka zeharkatzen duen erreka da, eta lesakarrei eskainitako diskoa dela adierazi du Ainara Ortega

musikariak: "Onin erreka txikia da, baina ur sakona duena. Lesakarrentzako esanahi handikoa da, zubi gaineko dantza dela eta. Hala, *Onin* diskoak, emozioak, barre algarak eta umorea batzen ditu, istoriotxo bidez kontatuz".

Kontzertua Ibarraundi museo kanpoaldean izango den arren, edukiera mugatua izango du, eta, hain zuzen, gonbidapenak eskatu beharko dira. 943 71 46 88 telefono zenbakira deituta, edo 650 49 51 66 zenbakira *whatsapp*-a bidalita.

## Futbol ibilbidea, umorezko bakarrizketa bidez kontatuta

Zuhaitz Gurrutxaga futbolari ohiak 'FutbolisTOK' izeneko saioa eskainiko du domekan, 19:00etan

**I.B. ESKORIATZA**

Azken bi hamarkadetan futbole, telebistan, antzerkian eta musikan izandako esperientziez hitz egingo du Zuhaitz Gurrutxaga elgoibartarrak, eta umorearen laguntzarekin landuko ditu gai horiek guztiak, eguneroak eta gorabeherak erlativezatzeko, eta barre egiteko modu hoberik ez dagoela erakusteko. Saioa domekan izango da, 19:00etan, Zaldibar antzokian, eta sarrerak alde aurretik bost eurotan erosi beharko dira, Manuel Muñoz kiroldegian.

Hamabost urtez futbolari profesional izan zen Gurrutxaga eta hiru urtez Lehenengo Mailan jokatu zuen. Lehenengo Mailako futbolari batek sentitzen dituenak azalduko ditu. Nahas-mendu obsesibo-kompulsibo gaixotasun mentala du aspalditik -gaztelaraz, TOC-, orain kontrolpean duen arren. Gaixotasun horrekin batera, futbol ibilbidean bitzakoak umorez kontatuko ditu, eta mezu hau zabalduko du: "Egin dezagun barre geure buruaz, sufrimendua gutxitzen baita".

## OHARRAK

### Zarimutzeko jaiak

San Pedro egunean, ekainaren 29an, Zarimutzeko jaiak ospatuko dituzte. Aurten, meza izango da, 12:00etan, urtero moduan, baina pandemiagatik luntxa ez egitea erabaki dute.

### Jai batzordea: bilera egiteko deia

San Pedro eta Intxaurtuetako jai batzordeko kideek bilera egingo dute gaur, 18:00etan, Ibarraundin, irailaren 10ean, 11n eta 12an ospatu nahi dituzten jaien gainean hitz egiteko.

### Kickboxing txapelketa

2019an egin zen moduan, Atama Eskoriatza taldekoek kickboxing txapelketa antolatuko dute ekainaren 26rako.



# 'Ongi etorri, zapatistak' jaia, EskoZap-en eskutik

Ekainaren 18rako solasaldi bat prestatu dute Zaldibar antzokian; bertan egoteko eta online parte hartzeko aukera ere izango da. Horrekin batera, 'Ongi etorri, zapatistak' jaia izango dute ekainaren 19an, eta ekintzak Santa Marina plazan izango dira

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Aste Zapatista ez da bere horretan antolatuko aurten. Edozelan ere, "beste mundu bat posible dela aldarrikatzen jarraitu behar da" esanez, bi eguneko egitaraua prestatu dute EskoZap kolektiboko kideek hurrengo astebururako.

Ekainaren 18an, *Movimiento de mujeres por el Buen Vivir* mugimenduko kideen solasaldia izango da, Zaldibar antzokian, 19:00etan. Edukiera mugatua denez, online parte hartzeko aukera ere egongo da, munduko edozein tokitatik, Zoom bidez konektatuz. Horretarako, [Tinyurl.com/MujeresIndigenas](https://tinyurl.com/MujeresIndigenas) helbidera sartu beharko da.

**Bizitza hobe baten bidean**

"36 naziotako emakumeek osatzen duten mugimenduko hiru ordezkari izango dira konferentzia eskaintzen. Bizitza hobea sortzeko asmoz, oinezko bidea hasi zuten, *Hilketen, bortxaketen, ekosistemaren suntsitzearen, eta abarren aurrean, inpunitaterik ez!* eta halako mezuak zabaltzen. 70 egun oinez eta 2.000 kilometro ibilita, 30 lurralde baino gehiagotan euren aldarrikapenak argi uzten ari dira. Euren borroka herri guztien konpromisoa eskatzen du, eta hori izango dugu



Herritarrak, takoak erosteko zain, 2016ko Aste Zapatistan. OIHANA IRAZU

berbagai", adierazi dute EskoZap kolektiboko kideek.

**Zapatisten biraren berri**

Ekainaren 19an, berriz, *Ongi etorri, zapatistak* jaia egingo dute, Santa Marina plazan. 18:00etan hasita, haurrentzako piñatak egongo dira, tonbola solidarioa, takoak, eta Bira Zapatistaren gaineko mahai informatiboa ere jarriko dute. "Uda honetan, Euskal Herrira iritsiko dira zapatistak, eta biraren gaineko xehetasunak emango dizkiegu interesdunei".

Horrekin batera, ez da musikarik faltako; izan ere, Bixentak eta *Screamers & Sinners* taldeen kontzertuak izango dira.

**Zuzenkorako gogoz**

Jai egunari erritmo bizia jarriko diote bi taldeek. Hala adierazi dute *Screamers & Sinners* taldekoek: "Zuzeneko kontzerturako gogo biziz gaude, eta Bixentak talderekin batera emaldi dibertigarria eskaini nahiko genuke. Eskoriatzarrekin egun aparta pasatu eta, bide batez, tako goxoak jan".

## Gunean ospatu dute Ferixie

Arizmendi ikastolako Jose Arana guneko haurrek ekintza ugari egin zituzten joan den egubakoitzean ikastetxean bertan. Aurten, Eskoriatzako Ferixaren 25. edizioa zen egitekoa, eta, horren harira, txorimaloak egin zituzten, tailerrak, dantza, txapel jaurtiketa lehiaketa, arku tiroa, eta abar. Amaitzeko, txistor-pintxoak jateko ere aprobeztatu zuten, besteak beste.



ARIZMENDI



Añanako egindako aurkezpen ekitaldiaren irudi bat. GATZ MUSEOA

## Eusko Label ziurtagiria jaso du Leintz Gatzagako gatzak

Añanako Gatz Haranean egin zuten, atzo, eguena, Euskal Gatzaren aurkezpen ekitaldia

**Imanol Beloki** LEINTZ GATZAGA

Eusko Labelak produktu berri bat aurkeztu zuen atzo: Euskal Gatz. Kalitate handiko gatz, modu jasangarrian eta artisautzan sailkatuta eta ontziratuta, eta Gesaltza Añanako Haraneko eta Leintz Gatzagako ur gaziko iturburuetan ekoiztutakoa dena, hain zuzen ere.

Honako hauek izan ziren ekitaldian: Bittor Oroz, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako sailburuordea; Peli Manterola, HAZILko zuzendaria; Pablo de Oraa, Añanako Gatz Haraneko geren-

tea; eta Leintz Gatzagako Udaleko ordezkari Beñat Agirreurreta Kultura zinegotzia eta Aitor Larrañaga Gatz Museoko arduraduna.

**Gatzagako gatzari balioa**

"Leintz Gatzagan lantzen ari garen proiektuaren helburua gatzaren kultura zabaltzea da, eta bide horretan pauso bat gehiago eman dugu. Kalitate ziguila bat eman digute, eta hementik aurrera labelarekin salduko dugu bertan ekoiztutako produktua", adierazi du Aitor Larrañagak.



GUREL GURASO ELKARTEA

## Muralerako aukerak zehazten

Gatzagako muralismo tailerrean lehen pausoa eman dute, eta herriko haurrek, POOK elkartearen laguntzarekin, mahai gainean jarri dituzte zenbait aukera. Hori horrela, zapatu honetan, 17:00etan hasita, Labidea alboko tunelean hasiko dira murala egiten, eta hilaren 19an jarraituko dute lanarekin, amaituko duten esperantzarekin.



# Konpromisoak betetzeko eskatu diote EH Bilduri

2019-2023 agintaldia erdira heldu dela baliatu du EAJk orain arteko balorazioa egiteko; oposizioan egindako lanarekin "pozik" daudela ondorioztatzeaz gain, EH Bilduren "kudeaketarik eza eta elkarlanerako borondate falta" salatu dituzte jeltzaleek

**Jokin Bereziartua** BERGARA

2019-2023 agintaldiaren erdira heldu izana aprobetxatu du EAJk azken bi urteotako balorazioa egiteko. Oposizioan egindako lanarekin "pozik" daude, eta diote "jarrera eraikitzailearekin" aritu direla lanean: "Herri ordezkari garen heinean, bergararrei entzutea eta erantzutea da gure betebeharrak; tamalez, EH Bilduren kudeaketarik eza salatu behar dugu".

**Udal aurrekonturako ekarpenak**

Ekarpenei dagokienez, 2021eko udal aurrekontura begira egindakoak nabarmendu dituzte jeltzaleek. Herritarren ongizatera begira, Boni Laskurainen dagoen San Joxepeko eraikinean hirugarren adinekoei begirako kalte arineko arreta zerbitzua, jaiotza-tasa igotzeko dirulaguntza zuzenak ematea eta, azkenik, hileta zibiletarako berezko gune bat sortzea. Turismoa bultzatzeko bi proposamen ere egin zituztela gogorarazi dute; tartean, Santa Marinako zubia argiztatzea eta San Pedro elizako gangak (bobadak) bisitatzeko moduan jartzea. Horrez gain, euren dako "lehentasunezkoak" diren beste proiektu batzuk garatzeko eskaera ere egin dute azken bi urteotan: 2021ean Zubieta eta Masterreka ardatza berriro urbanizatzeko proiektuaren lehen fasea gauzatzea –EAJk dio ez epeak ez direla beteko, lizitazioa hasi ez delako–, Seminarioko parkingaren proiektua hastea, Boluko malda behin betiko egonkortzea eta Martokoa eraberritzeko proiektua idaztea.

Arrizuriaga jauregia eraberritu eta eraikina kultura arlora bideratzeko proiektuaren idazketan parte hartzeko ere eskatu zioten Gobernuari, diotenez.

**Ostalaritzari laguntza, "oso urria"**

Bestalde, pandemiari aurre egiteko "hainbat proposamen" egin



EAJko udal taldeko kideak –eta Iñaki Arrondo– batzokian, martitzenean. J. BEREZIARTUA

## OSOKO BILKURETAKO BIDEO-AKTA SISTEMA BATZORDEETAN ERE JARTZEA NAHI DUTE, "GARDENTASUNERAKO"

zituzten jeltzaleek; eta horien artean, ostalaritzari bideratutakoak nabarmendu zituzten martitzeneko agerraldian. Bergarako dirulaguntza zuzenak "oso urriak" dira, EAJko bozeramaile Maite Agirrerren arabera: "Gogoratu behar dugu 2020an Bergarako ostalariren artean 44.800 euro banatu zirela, 74 ostalariren artean. Arrasaten, aldiz, 265.153 euro banatu ziren 96 ostalariren artean; eta Oñatin, 172.287 euro 54 ostalariren artean".

Bideo-akten sistema batzorde informatzaileetan ere aplikatzea nahi dute: "Osoko bilkuretan aurrerapauso garrantzitsua izan zen, gardentasuna eta eragin-kortasuna bermatzeko".

**Onartutakoak betetzen ez direla**

EAJk egindako ekarpenen aurrean EH Bilduk izan duen jarrera ez da izan nahi bezain

positiboa, jeltzaleen ustez: "Maiz, ez dira aintzat hartu, eta kontuan izan direnak ere, bi urte pasa ondoren, oraindik gauzatu gabe daude". Hortaz, EAJk ez du, orohar, elkarlanerako "borondate handirik" ikusi: "Batzordeak hartutako erabakiak jakinarazteko erabiltzen dira, ekarpenak egiteko tarterik eman gabe".

Maiatzaren Lehenaren bueltako pintaketak ere salatu dituzte –Bidekurutzeta kaleko Klase gorrotoa antolatu lelo zuen pintaketa gaitzetsi zuten ohar bidez–. "Erabateko gaitzespena adierazten dugu eta Udal Gobernuari berriz ere eskatu nahi diogu ken ditzala. Bergarar batzuk bizikidetzaren alde egiten ari garen lana oztopatu egiten dute. Bergara guztiona da eta espazio publikoak zein pribatuak errespetatzea eskatzen dugu".

Amaitzeko, "etorkizun hurbilean" elkarlanerako gertu daudela "berretsi" du EAJk: "Hainbat gaitan noski ez garelako akordioetara iritsiko, alderdi bakoitzak bere ideologia duelako, baina herrigintzarako ezinbestekoak dira elkarlana eta gutxieneko akordioak; are gehiago, bizitzen ari garen egoeran".

NIRE USTEZ



PEDRO GARITANO

## Ikus eta ikas

Hurbil dagoen COVID-19aren azken egunaren ostean jartzen naiz. Nire asmoa ez da analista zorrotza izatea, baina hona hemen nire konklusio batzuk: lehena, oso gogorra dela hilerio soldata txikiarekin etxeratzea; bigarrena, sikutasunarekin nekez baina bizi daitekeela, eta batzuetan zoriontsu ere bai; hirugarrena, banketxeek ez dutela gure dirua nahi, behar dutenean hori dutela Europako Banku Zentralak (EBZ) doan ematen diena; laugarrena, izanez gero gure hartuko dutela, komisioren bitartez, kontu administratzailea izateagatik; bosgarrena, nire ikuspegia post-belizista izan arren, behar diren negozioek aurrera egingo dutela, betiere EBZko anaia nagusiaren baimenarekin; seigarrena, oraindik ez dela beharrezkoa Marten logistikako estazioak eraikitzea edo espazioaren jabe izatea, badirela espazio galantak, Afrikan edo Asian, esaterako, alferrik galduta edo espoliatuta; eta, azkenik, gonbidapena egin nahi dudala San Martzialgo parkeaz eta mendiaz disfrutatzen. Hori bai, denekin elkartasunean; denoi iritsiko zaigulako bertara ezin giotzeko garaia. Hori, baina, izan dadila prisara barik.

## Ekarpen berriak egin dituzte Olos dorreko artxibategirako

Begarako Antonio Iturbe argazkilaria eta Oñatiko Paulo Agirrebaltzategi frantziskotarrak Olos dorreko ekarpen berriak egin dituzte. Iturbek Telesforo Monzonen hileta eguneko argazkiak eman ditu –ondoko irudian– eta Agirrebaltzategik, berriz, *Punto y Hora*, *Argia*, *Zutik* eta beste hainbat aldizkariaren bilduma osoak.



Monzonen hileta eguna. ANTONIO ITURBE

## OHARRAK

### Begarako elikagaien bankua, boluntario bila

60 boluntario daude egoitza, eta beste hamar behar dituzte bajak eta oporrak betetzeko. Izena emateko, 943 76 21 90 telefono zenbakira deitu edo [bergara@bancoalimentosgipuzkoa.org](mailto:bergara@bancoalimentosgipuzkoa.org) helbide elektronikora idatzi behar da.

### Begarako Musika Eskola: hainbat emanaldi

Ikasturte amaierako kontzertuak eskainiko dituzte datozen egunetan: hilaren 15ean, trikiti, pandero eta perkusio kontzertua Seminarixoan (18:30); hilaren 16an eta 17an, Antzuolako ikasleen kontzertua Torresoroan (18:00); hilaren 18an, dantzaz beteriko gaua San Martin plazan (20:00); eta hilaren 22an, diplomatuen kontzertua Mariaren Lagundiko elizan (18:30).

### Ez-jaiak: San Antonio auzoko ekitaldiak

Bihar, zapatua, izango dute kanpai-jotzea (12:00) eta Arantza eta Pantxo taldearen kontzertua karpan (19:00). Etzi, hilak 13, izango dute txistulari bandaren diana (10:30), meza nagusia karpan (11:00) eta txistulari bandaren kontzertua karpan (12:30).

### Imanol Ituíño magoaren emanaldia Angiozarren

Arbiaska frontoian izango da, gaur, ekainak 11, 19:00etan.



# "Gabonetan zazpi langile izatera ere heldu ginen"

**IONE IGARTUA** IGARO LURRINDEGIKO ARDURADUN OHIA

Erretiratzeko erabakia penaz hartu badu ere, harro doa egindako lanarekin eta esker on mezuak ditu bezeroendako: "Oso berba politak jaso ditut, eta hori betirako geratuko da"

**Jokin Bereziartua** BERGARA

33 urteren ostean, maiatzaren 31n itxi zuen Barrenkaleko Igaro lurrindegia Ione Igartuak (Elgoibar, 1956). Penaz utzi du, baina harro dago egindako lanaz. **Zergatik erabaki duzu erretiratzea?**

Adinagatik. Askok gustatzen zitzaidan nire lana, baina baditut beste hainbat zaletasun, eta horiez gozatzeko denbora behar dut... 48 urte egin ditut lanean eta duela bi urte erretiroa hartzeko moduan nengo; orduan, gainera, bazegoen jendea gertu egon zitekeena dendarekin jarraitzeko... Orduan ez nuen erabakia hartu eta neure burua behartu nuen 65 urterekin erretiratzera; heldu da garaia. Orain, denda hutsik ikusteak pena handia ematen dit eta harritu egiten nau beste inork ez hartzeak.

**Zergatik harritu zaitu?**

Merkataritza-ganberak egin zidan auditoria, eta prezio aldetik oso ondo dago. Gainera, produktu eskusiboak ere baditut, Bergaran beste inon aurkitu ezin daitezkeenak, eta marka horiekin jarraitzeko aukera bazegoen. Ez da prezioa arazoa, baizik eta ordutegia. Jende gaztea ez dago prest astelehenetik zapatuta 20:00ak arte lan egiteko. Guk beste mentalitate bat izan dugu; harro uzten dut, kontzientzia-



Igartua, itxi berri duen denda. J. B.

rekin lasai, eta Igaro ondo funtzionatzen ari zela.

**Orain arte izan ez duzun denbora libre zertarako baliatuko duzu?**

Mendia asko gustatzen zait, eta baita argazkilaritza ere. Familia daukat Elgoibarren, eta eurekin gehiago egoteko baliatuko dut denbora. Autokarabana ere badugu, eta asmoa dugu ahal dugun asteburu guztietan irteteko.

**Askok aldatu dira gauzak, ezta?**

Izugarri. Internetek dena irauli du; are gehiago, lurrinen negozioan. Ohitura handia dago lurrinak online erosteko. Birzi-

klatze etengabea ekarri dit Internetekin lehiatu behar izateak, eta horrek nekatu egin nau. Eskerrak semea informatikaria dudana eta lagundu egin didan; esaten zidan nire adinerako nahiko ondo moldatzen nintzela sare sozialekin eta.

**Nola bizi izan duzue pandemia?**

Hasieran, beldur handiarekin bizi izan genuen. Konfinamendua martxoan heldu zen, jenero berria eskatu berri genuela, eta ez genekien zer gertatuko zen... Ondoren, baina, harritu egin ninduen ikusteak salmentek gora egin zutela; Gabonak, esaterako, oso onak izan ziren. Gertuko komertzioaren garrantzia agerian jarri du pandemiak.

**Azken Gabonak onak, baina ezin alderatu beste garai batzuekin...**

Ez. Gabonetako kanpaina berezietan zazpi langile ere aritu izan gara. Erregetako opariaren artean izarra zen lurrina, adibidez.

**Zer esan nahi diezu zure bezeroei?**

Eskerrak beroenak eman nahi dizkiet. Batzuek esan didate ez dakitela nora joango diren... Oso berba politak jaso ditut, opariak... Betirako geratuko zait hori.

**Ezer gaineratu nahiko zenuke?**

Dendako izenaren jatorria goratzea. Nire senarra zena Orbegozen zen eta ni Igartua; hortik sortu genuen izena.

## GORA ETA BEHERA




### Zuhaixkak apurtu, eta gurasoek ez zietela ezer esan

Ibargarai osteko plazatzon zuhaixka batzuk apurtu izana salatu du herritar batek: "6-10 urte arteko umeak ziren, baina okerrena da gurasoak han zeudela eta ez zietela ezer esan. Gero, ahoa betetzen zaigu ingurumenaz... Ez dakit ze heziketa ematen ari garen umeei; horrela gaizki goaz".

**EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?**

[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)

edo 688 69 00 07.



G.A.

### Auzolanerako dei egin du Kukubasok, ekainaren 20rako

Bertako basoa berreskuratzea helburu duen Kukubaso elkarteak, Herri Hezitzailearekin eta Erreka Garbiketarako Batzordearekin batera eta Udalaren laguntzarekin, "auzolanerako eta ekintza hezitzaileetarako" eguna antolatu du hilaren 20rako, San Martzialen (11:00); Seminarioko patioan elkartuko dira, 10:00etan. Izena eman behar da hilaren 15erako, [kukubasoelkartea@gmail.com](mailto:kukubasoelkartea@gmail.com) helbidean; izen-abizenak zehaztu behar dira, eta, umeen kasuan, jaiotza-urtea. Hainbat lan egingo dituzte: txoriendako habiak jarri, zaborrak jaso, adarrak eta enborrak pilatu, iturri putzua garbitu eta bertako basoa bera ezagutu, besteak beste.

### Estalpe bat jarriko dute Martinez de Irala gunean

San Martin Agirre ikastetxeko Haur Hezkuntzako patioan, Martinez de Iralan, estalpe bat jarriko dute. "Aspaldiko eskaera bat" erantzutera dator, eta, Lehen Hezkuntzako eraikinean egin zuten moduan, estalpe bat jarriko dute "laster". Herritarren batzordeko arduradun-zinegotzi Ekaitz Aranberrik obraren garrantzia azpimarratu du: "Beti dira beharrezkoak halako gunek herrietan, baina pandemian are beharrezkoagoak dira aire zabalean dauden espazio babestuek". Estalperako egin den aurreproiektuaren zenbatekoa 151.778 eurokoa da, eta %60 Jaurilaritzako Hezkuntza Sailak ordainduko du; lizitazioa egin barik dago.

**Kabutzia**

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6  
BERGARA  
Tel.: 943 76 56 62

**UGARTE**  
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoiak  
Horma-armairuak  
Altzariak neurria  
Ateak · Eskailerrak ·  
Leihoak · Tarimak ·  
Egur lanak

ALTZARI DENDA  
Ikerleku zeharbidea  
Tel.: 943 034630

ARROZTEGIA  
San Juan 1a  
Tel.: 943 765491

BERGARA  
[aroztegia@ugartearoztegia.com](mailto:aroztegia@ugartearoztegia.com)

**21**  
K  
KALIFATEA

Enpresa Registrada N°00/025

Aitor Zabaleta  
Tel.: 606 58 18 10  
[www.txipi.com](http://www.txipi.com)

**TXIPI**

LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA

# Basoen kudeaketarako proiektuarekin garaile

'EKINola' ekintzailtza jardunaldien baitan, enpresa ereduak ezagutu eta horiek dituzten arazoei konponbide bila, proiektuak landu eta aurkeztu dituzte Miguel Altuna Institutuko ikasleek. 'Basajaun' taldeak irabazi du 1.000 euroko sari nagusia

**Jone Olabarria** BERGARA

*EKINola, Etorkizuna zure eskuetan* leloa darama Miguel Altuna Lanbide Heziketa Institutuan asteon egin duten ekintzailtza jardunaldiak. Helburua autoenpleguaren inguruan sentsibilizazio lanketa egitea izan da, "enpresen eta ekintzaileen arteko harremana sortuz, elkar-ezagutza sustatuz eta negozio ideia berritzaileak partekatze eta lantzeko txoko bat proposatuz".

**Jardunaldiak, hiru egunez**

Astelehenean, hiru enpresatako ordezkariak izan ziren eta eurek dituzten arazo batzuk azaldu zizkieten parte-hartzaileei. Arazo horiei konponbidea emateko proiektuak garatu eta aurkeztu behar izan dituzte ostean talde parte hartzaileek.

Martitzenean, Miguel Altuna Institututik sortutako Ekolber enpresa ekintzailearen adibidea aurkeztu zuten enpresa horretako kideek. 2015ean sortu zuten;

biodegradagarria den plastiko itxurako materiala sortzen dute. Jardunaldietan zehar euren negozio ereduak erakutsi zieten parte-hartzaileei.

**'Basajaun' taldea garaile**

Astelehenean, enpresek aurkeztutako arazoaren konponbide bila negozio ideia bat landu duten 19 partaideen artean, ideiarik onenak Udalak emandako 1.000 euroko saria jaso du. Carlos Chamorro, Unai Asulak, Oier Jauregik eta Mikel Zubizarretak osatutako *Basajaun* taldea izan da, hain zuzen ere, Tknikak aukeratu duen talde irabazlea.

Taldeak garatutako proiektuak basoen kudeaketan eragin nahi duela azaldu du Miguel Altu-

**"BASOEN KUDEAKETA UMEZURTZ DAGO, ETA ARAZOA DRONEKIN LANTZEKO PROIEKTUA GARATU DU TALDEAK"**

nako irakasle Ane Bastidak: "Gaur egungo basoen kudeaketa umezurtz dago, ez du inork lantzen, eta arazo horri tiraka drone bidezko jarraipena egitea proposatu dute *Basajaun* taldeko kideek".

Horretaz gain, proiektuan zehar lau puntu positibo ere proposatu izana baloratu dute: "Bertako arbola autoktonoak landatzea proposatu dute, erabili gabe dauden lurak aprobetxatzea, kalitatezko egurra lortzea eta droneetatik ateratako informazioa ikerketa eta estatistiketara bideratzea".

**Balorazio "positiboa"**

Antolatzaileek jardunaldiaren balorazio positiboa egin dute. Guztira, 19 parte-hartzaile izan dira, gehienak bergararrak, baina Antzuola, Urretxu eta Zumarragako parte-hartzaileak ere izan dituzte. Aurtengo proba pilotuaren ostean, datozen urteetan ere horrelakoak antolatzen jarraitzea da asmoa.



Sareetan Udalak partekatutako bideoan, botila eta zikinkeria jaso gabe. B.U.

## San Martzialgo ermita ingurua, "lotsagarri" domeka goizean

San Martzialera igotzen dena jaitsi egin behar dela gogorarazi nahi izan die Udal Gobernuak herritarrei

**J.O. BERGARA**

Bergarako Udalak sare sozialean partekatutako bideoan ikusten den bezala, domeka goizean hainbat zikinkeria aurkitu zuten Udaleko langileek San Martzialgo ermitako arkupeetan, "zapatu gauean botila festak izan ziren seinale". Mezu horiei erantzunez, askoren ustez, "lotsagarria" eta "onartezina" da ermitak domeka goizean zuen itxura.

**Zaintzea, "denon ardura"**

Udal Gobernuak espazio publikoak zaintzea "guztion" ardura dela gogorarazi du: "Espazio publikoak guztiok erabiltzeko dira, eta denoi dagokigu hauek zaintzea. Garbi egotea gustatzen zaigu bertan disfrutatu ahal izateko, ondoren joango direnei errespetuz, garbi mantentzea dagokigu. Zentzuzkoa da hori, beti izan da horrela. Baina ez hori bakarrik, garbiketaren bitar-

teko gehiago inbertitu behar izateak, gastuaz gain. Eta diru publikoaz ari gara; beraz, hori zaintzea dagokigu, badakar langile horiek beste lan batzuk ezin egitea".

**"Hezkidetzak kontua"**

Gaineratu dute "lan pedagogikoa" egin nahi dutela: "Heziketa eta hezkidetzak kontu bat da hau. Kontzientziazioan eragin behar da. Edozein motatako edozein gune publikotako erabiltzaileek edozein espazio erabiltzen dutela jakin behar dute, beti izan den moduan, zentzuz jokatzeko, elkarbizitza errespetatzen. Udal Gobernuaren ustez, jokaera hauek oso desgokiak dira eta horiek heziketa bitartez bideratu behar dira; edukazio kontua da, elkarbizitza kontua. Izan ere, bestelako neurri batzuk hartzea ez da hauek baino eraginkorragoa izango".



Lanbide Eskolako, Udaleko eta enpresetako parte-hartzaileak, eguaztenean egin zuten sari banaketa ekitaldian. J.A.

## Pilotari bergararrak Gipuzkoako lau eta erdiko finalean

Gaur arratsaldean jokatu dituzte Gipuzkoako lau eta erdiko partidua Bergarako bi pilotarik, 19:00etan hasita, Ibaetako frontoian. Gazte mailan, Maddi Barrocalek Itzurun taldeko Miriam Arraiza izango du aurkari; eta nagusien mailan, aldiz, Arrate Bergarak Su-Berri taldeko Miren Larrarteren aurka jokatu du partidua.

**Sugoi**

ERLOJUAK,  
ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.  
943 76 59 54 BERGARA





Miguel Okina, Julio Galarta margolari arrasatear eta lagunaren erretratua egiten estudioan, 2006an. JOSU OKINA

# Herriko kronista, maisuen maisu

Zapatuan hil zen Miguel Okina margolaria, 96 urte zituela. Bergararra "artista handia" izan da, "maisua" herrikideentzat, eta herriko ondareari "ekarpen handia" egindakoa. Artistaren lagunak eta herrikideek "hunkituta" gogoratu dute

**Jone Olabarria** BERGARA

Bergarako pintura eskolaren erreferente nagusienetakoa, zapatuan hil zen, 96 urte zituela. 1924an jaio zen, Barrenkaleko familia batean, eta margoari eskaini zion bizitza osoa. Artista handi guztiak bezala, Parisen –Sena ibaiko zubiak margotzen–, Madrilen eta Katalunian ere garatu zuen bere lana, baina artista bergararra jaioterrira itzuli zen, margolari gisa goia jo zuen unean. Orduetik, Bergara izan da bere gotorleku, babesleku eta maisutasunez egindako bere lanaren testigu.

**Herriko kronista nagusietakoa**

Erretratuak, paisaiak, natura hilak... Maisutasuna azaldu du beti bere zertzeladetan. Bere lanarekin, herriko kronistetako bat bilakatu zen Okina. Bergarak ere bueltatu gura izan dio Oki-

nari hark herriari emandako gutzia, eta 2013an, esaterako, omenaldi beroa eskaini zioten lagunak eta Beart elkarteko ki-deek Aroztegi aretoan.

**"SIMON ARRIETAREN IKASLE ONENA, SEGURU ASKI; BETI IZANGO DU OHOREZKO LEKUA GURETZAT"**

KARLOS GALARRAGA, BEART ELKARTEA

**"ERREFERENTE HANDIA IZAN DA BERGARAN, ESKERTUTA EGONGO GARA BETIRAKO"**

M. ANGEL ELKOROBerezibar, IDAZLEA

**Margotzea, "bizimodua"**

Orduan, "Miguel artista eta Miguel pertsona" omendu gura izan zituzten. Omenaldiak harrituta utzi zuela aitortu zuen orduan Okinak: "Margotzea nire bizimodua izan da, eta gustura: zaletasunetik bizi izan naiz, eta hori gauza handia da".

2017an, Udalak egin gura izan zion aitortza. 2006an Aroztegin erakutsi zituen bere lanak, *Bizitza bat, margoari eskainia* izeneko erakusketan. 1949tik 2006ra bitartean margotutako 35 koadro ipini zituen erakusgai.

Okina zendu eta hurrengo egunerako zegoen antolatuta Beart eguna; azoka egin eta Lorenzo Askasibar omendu zuten. Artistek, berriz, sentipen zurrunbiloa izan zuten; Miguel Okinaz gain, Joxe Mari Agirre Zenitagoa margolaria ere zendu zen joan den zapatuan.

## Okina gogoan, gertukoan memorian



**MIGUEL LAZPIUR**  
ENPRESARIA

"1952 inguruan ezagutu nuen, Artes y Oficios eskolan maisu zela, eta ni ikasle. Handik urte batzuetara, berak ez zuen autorik eta guk Citroen 2 CV, eta paisaiak egitera joaten hasi ginen. Liburu bat betetzeko adina anekdota ditugu; lagun handi eta maisu handiagoa izan da. Zenbat kontu eta une eder elkarrekin, zenbat lagun".



**LORENZO ASKASIBAR**  
ESKULTOREA

"Lagun handiak izan gara. Madrilen batera bizi izan ginen, pentsio berean bizi ginen. Txibierro-ogitarteko asko jan ditugu han, biok batera. Elkar zaindu eta babesten genuen garai hartan. Lagun handia izan dut. Duela egun batzuk, agurtzera etorri zen niregana, eta bihotzez sentitu nuen, baita orain heriotza".

**"Ohorezko lekua"**

Bearteko presidente Karlos Gallarragak hitz politikak izan zituen Miguel Okinarendako, Beart egunaren baitan: "Maisua izan da guretzat; seguru asko, Simon Arrietaren ikaslerik onena. Eta guretzat erreferente handia. Bergaran oso ezaguna izan da, etxe guztietan dago bere koadroren bat. Kasualitatea, gaur duela lau urte egin genion omenaldia. Beti izango da erreferentea, eta beti izango du ohorezko leku bat".

Bergarako alkate Gorka Artolak ere esker ona helarazi nahi



**JOSU OKINA**  
ILOBA ETA MARGOLARIA

"Haurrak ginela Zabalotegin ikasten genuen Simon Arrieta, Fernando Azkargorta eta osaba Miguel Okinarekin. Artista handiak irten ziren bertatik: Lazkano, Laskurain, Agirre... Zapatuetan irteerak egiten genituen paisaiak margotzera. Lagun asko hil zitzaizkion garai berean, eta orduan utzi zion margotzeari Miguelek".



**XABIER AGIRRE**  
MARGOLARIA

"Txiki-txikitatik Bergaran aitzindariak, erreferenteak, izan dira guretzat bai Simon Arrieta eta bai Miguel Okina. Okina oso trebea izan da erretratugintzan eta baita paisaiak margotzen; hor ibiltzen zen, kaleko txokoetan, eta han egoten ginen gu berari begira. Praktika ikusten zen beragan, kalean margotzen".

izan zien Okinari eta Agirreri, egindako "ekarpen handia" azpimarratu zuen: "Beart elkar-teari ekarpen handia egindakoak dira bi artistak. Miguel Okina aurreko astean bertan presente genuen Lorenzo Askasibarren lagun moduan, eta bien galera, edozein artistarena bezala, baina kasu honetan oso nabarmenak dira Bergaran". Miguel Angel Elkoroberezibar idazleak, berriz, aitortu du "kolpe handia" izan dela: "Maisuen maisu, Bergaran erreferente handia izan zen. Betirako egongo gara eskertuta erakutsitako guztiagatik".



Antzuolako berdintasun diagnosiaren galdetegiak betetzen Herriko Plazan. IMANOL SORIANO

## Berdintasun diagnosis, gertu udazkenerako

Zapatuan, Emagin elkarteak antzuolarrekin partekatu zuen egiten ari den herriko berdintasun diagnosis. Orain arte barruko lana izan dena kalera atera zuten, Herriko Plazara. Udazkenerako diagnosis amaituta izango duela aurreratu du Emaginek

**Maidar Arregi** ANTZUOLA

Antzuolako Udala herriko berdintasun diagnosis egiten ari da urte hasiera ezkerko Emagin elkartearen laguntzarekin; zapatu goizean, kalera atera zuen orain arteko lana, eta herritarrei galdetegi bat betetzeko gonbidapena egin zien. Berdintasunaren ikuspegitik nola bizi diren

esparru batean edo bestean eta aurrera begira egiteko zer dagoen galdetu zien Emaginek antzuolarrei, besteak beste.

Orain arte jasotakotik, baina, ideia batzuk hartu dituzte eta horien gaineko gogoetak partekatu gura izan dituzte Emagin taldeko kideek herritarrekin. Herriko hainbat eragile eta ko-

lektiborekin egon dira elkarrizketak egiten eta datuak jasotzen: hezkuntza arlokoekin, migratzaileekin eta erretiratuekin, esaterako.

Behaketa bat ere egin dute, herriko espazio publikoan, eskola inguruan, tabernetan eta zaintzan, esaterako, zein herritar ibiltzen diren ikusteko. "Oso

herri bizia dela konturatu gara, eta Antzuola berdintasunarekin proaktiboa dela ikusi dugu. Izan ere, horrek aukerak handitzen ditu, eta gauza ezberdinak egiteko aukerak ugartitu", adierazi du Emagin taldeko Miren Aranguren.

**Ekintza plana**

Antzuolako berdintasun diagnosis bukatzeaz du Emaginek. Hala, hasieran aipatu bezala, orain arteko lana herritarrek ikusteko moduan jarri dute plazan, eta galdetegi bat egiteko

gonbidapena egin. Jasotako datuekin analisisa egingo dute udan, eta udazkenerako prest egongo da diagnostikoa.

Datorren urteko aurrekontuetan, aldiz, diagnosiaren ekintza plana sartzeari da Antzuolako Udalaren asmoa.

**"OSO HERRI BIZIA ETA PROAKTIBOA DA, ETA GAUZAK EGITEKO AUKERAK ZABALTZEN DITU HORREK"**

## Ekainaren 18an irekiko dute Sagastiko ur-jolas parkea

Eguraldiak baimentzen badu, irailaren 19ra arte –hiru hilabetez– egongo da zabalik herriko ur-parkea

**Maidar Arregi** ANTZUOLA

Uda sasoi eta bainurako denboraldia ate joka dagoen honetan, Antzuolako Udalak datorren egubakoitzean, ekainaren 18an, irekiko du Sagastiko ur-jolas parkea.

"Udalak bere ardurapekoa prest dauka ur-jolas parkea irekitzeko. Hala ere, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saileko ikuskerapena pasa behar da parkea zabal dadin. Horregatik, datorren astean etorriko dira teknikariak ikuskerapena egitera, eta hilaren 18an irekiko da



Haurrak, artxiboko irudi batean. M.A.

ur-parkea", argitu du Beñardo Kortabarria alkateak.

Ur-jolas parkea hiru hilabetez egongo da zabalik. Hau da, ekainaren 18tik irailaren 19ra bitartean –betiere, itxiera eguna eguraldiak baldintzatu dezake–.

Aurten, koronabirusaren intzidentzia-tasa baxuagoa da, eta, horregatik, herritarrek ez dute aurrez txandarik hartu behar. "Labi batzordearen azken batzurrean erabaki zenez, dagoeneko ez da derrigorra lau pertsonako taldeak mantentzea; hala, aurten ez da txandarik hartu behar. Hori bai, maskararen erabilera, gehienezko edukiera eta segurtasun distantziak derrigor gorde behar dituzte erabiltzaileek ur-jolas parkean", azpimarratu nahi izan du Antzuolako alkate Kortabarria.

## GORA ETA BEHERA




### Botila festa zantzuak San Joseko gunean

Astelehenean, herritar batek San Joseko botila festa zantzuari argazkia atera zion. Zerbeza botilak eta plastikoa daude, besteak beste, argazkian. Egunean bertan garbitu zuten gunea.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo 688 69 00 07.







Lagunsarea ekimeneko zenbait parte hartzaile. MAIDER ARREGI

# Gizarte-sarea eratzeko eta indartzeko erronka

Antzuola Lagunkoiak komunitatearen baitan adineko pertsonen eta, oro har, antzularren parte-hartzearen gaineko ekimenaz jardun du Lagunsarea programan. Herriko esperientzia eta egungo erronkak partekatu dituzte hainbat udalerrirekin

## Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzuola Lagunkoiak aste honetan Euskadi Lagunkoiak on-line antolatutako Lagunsarea ekimenean parte hartu du. Antzuola Lagunkoiako kide Pilar Etxanizek, azaldu duenez, aurrerapauso handiak eman dituzte bakardadeari eta egoera zaurgarrian dauden gizarte-bazterketari aurre egiteko egitasmoan. "Hain zuzen, helburua izan da gizarte bazterkeria arriskuan daudenak zein diren identifikatzea, eta horiei ekintza bidez laguntza komunitatean eskaintzea herritarren parte-hartzearekin".

Asmoa da guztia gida batean jasotzea, eta ondoren, egoera horretan dauden udalerriek zer egin dezaketean aztertzea. Proiektuan elkarlanean dihardute Gipuzkoako Aldundiarekin, Adinkide eta Matia Fundazioarekin eta Antzuolako Udalarekin. "2020an hasi zen egitasmoa eta aurten ekintzak martxan jartzen ari gara pixkanaka", azaldu du

Pilar Etxanizek. Antzuola Lagunkoiak komunitatearen baitan adineko pertsonen eta, oro har, herritarren parte-hartzearen gaineko ekimenak duen garrantziaz ere jardun du.

## Herri inklusiboa

Etxanizen arabera, zein norabidetan lan egin behar den jakitea oso garrantzitsua da. "Nola irudikatzen dugu izan nahi dugun herri inklusibo hori? Antzuolako indarguneak detektatu ditugu Udal Plan Estrategikoan (2020-2030). Esparru guztietako pertsonekin, helburu desberdinekin –soziala, hezitzailea, arkitektonikoa...– eta herritarren parte-hartzearekin egin dugu lanketa". Hala, gizarte inplika-

## EKINTZEN MAPA KOMUNITARIOAK ADINEKO PERTSONAK ETA ETORKINAK DITU OINARRI

tzeko helburuarekin, gizarte-bazterkeriaren sentsibilizatorako eta prebentziorako ekintzak garatu ditu Antzuola Lagunkoiak. "Garrantzitsua da herritarren lan horren inguruan sentsibilizatzea eta, batez ere, gazteak erakartzea. Gizarte-zerbitzuekin, osasun arloarekin, hezkuntza komunitatearekin eta Antzuolako Udalarekin elkarlanean, eta modu koordinatuan ekintzak egitea litzateke bidea. Betiere, herritarren parte-hartzearekin gizarte-sare indartsua eratzeko".

Mapa komunitarioa garatuta dagoela aurreratuta dagoela Etxanizek: "Inklusioa erraztuko duten zerbitzuak, baliabideak, gizarte-eragileak, espazioak eta ekimenak islatzeko mapa da, eta adinekoak eta etorkinak ditu oinarri mapa komunitarioak".

Udazkenetik aurrera ekintza zehatz horiek praktikara eraman nahi dituzte, eta urtebete barru errealitatea izatea espero dute la iragarri dute. "Ilusioz" daukela nabarmendu dute.



JOSE MARI GALEANO

## Finalean dira galeanotarrak

Emakume Master Cup txapelketaren baitan, domekan jokatu zuten Leire eta Nagore Galeanok Nafarroako txapelketako finalaurrekoa, Beran. Bartzelonako Maria Isabel Garcia eta Leire Arribas bikotea menperatu zuten: 18-4. Hala, pilota goxoko gazteen kategoriako finala jokatu dute antzularrek –data eta aurkariak zehazteke daude–.



Gaztetxo musikariak udaletxeko osoko bilkura aretoan. BERGARAKO MUSIKA ESKOLA

## 64 gaztetxo musikariek emanaldia eskainiko dute

Bi emanaldi egingo dituzte aurten: hilaren 16an eta 17an, Torresoroan, arratsaldeko seietan hasita

## Maidar Arregi ANTZUOLA

Herriko neska-mutiko musikariek 2021ean zehar Musika Eskolan landutako doinu bildumaz gozaraziko dute. Guztira, 64 gaztetxok kurto amaierako emanaldia egingo dute datorren astean. Bi saio egingo dituzte: ekainaren 16an eta 17an. Torresoroan izango dira bi emanaldiak, arratsaldeko seietan hasita, eta aretoko edukiera mugatuta egongo da –60 laguneko da gaur egun aretoko edukiera–.

Pandemiak eraginda ez da urte erraza izan, baina ikasturtea

aurrera ateratzea lortu dute, eta emaitzaz gozatzeko aukera izango dute antzularrek.

## Askotariko doinuak

Pianoa, gitarra, saxoa, klarineta, tronboia eta trikitia izango dira Torresoroako oholtza gainean protagonista datorren astean. Askotariko doinu ezagunak izango dira entzungai Musika Eskolako ikasleen eskutik. Beethovenen pieza klasikoak eta Alfredo Gonzalez Chirlaque konpositore bergararraren *Antzuolako doinuak* pieza ezaguna, esaterako.



Lorenzo Askasibar eta Kontxi Albeniz, omenaldi ekitaldian, senitartekoz inguratuta. Atzean dute *Kristo penitentea* obra. L.Z.L.

# Elgetak aitortza egin dio Askasibarri

Lorenzo Askasibarren ibilbidea jasotzen duen liburuaren aurkezpena omenaldi ekitaldi bilakatu zuten herrikideek eguaztenean. Senitartekoan, Udalaren eta jaioterriko lagunen aitortza jaso zuten eskultoreak eta haren emazte Kontxi Albenizek

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA

Elgetan ere aurkeztu dute Jaloitzako seme Lorenzo Askasibarren ibilbide artistikoa jasotzen duen liburua. Miguel Angel Elkoroberezibarrek bi urte behar izan ditu *L. Askasibar. Eskultore baten testigantza* osatzeko, eta, azaldu duenez, denbora horretan makina bat joan-etorri egin du Elgetara eskultorearen inguruko informazioa osatzeko zein haren inguruko testigantzak entzuteko.

Elgetar ugari bertaratu ziren eguaztenean egindako liburuaren aurkezpen ekitaldira. Tartean ziren, besteak beste, Jaloitzako etxeko Askasibar sendi ia osoa, Iraitz Lazkano alkatea, Patxi Basauri eta Oxel Erostarbe alkate ohiak eta Elgetako parroko Juan Cruz Juaristi. Nola ez, baita ere Askasibarren askotariko ezagunak eta herrikideak.

Kontxi Albeniz emaztea une oro aldamenen zuela entzun zituen Askasibarrek Manolo Cainzosen hitzartzea eta liburuaren egile Miguel Angel Elkoroberezibarrek bere ibilbide artistikoaren inguruan egindako laburpena.

Ekitaldian, bestalde, presentzia berezia izan zuen Askasibarrek gaztaroan egindako *Kristo penitentea* obrak. Parrokian gordetzen dute elgetarrek, eta antzokiko ekitaldian ikusgai egoteko gertatu zuten. "Gaztaroan, hasiera-hasieran egindako obra da. Ilusioz beteriko

**ARTISTAREN OBRA JASOTZEN DUEN ERAKUSKETA ZABALIK DAGO BERGARAN, HILAREN 20RA ARTE**

garaiak ziren", gogoratzen du Lorenzo Askasibarrek.


**Omenaldiarekin hunkituta**

Liburuaren aurkezpen ekitaldia baliatu zuten elgetarrek Askasibarri aitortza egiteko. Senitartekoan izenean hitz sentituak eskaini zizkion Jose Mari Beristainek. Udalaren izenean, berriz, plaka bat jaso zuen artistak Iraitz Lazkano alkatearen eskutik. Sentitua izan zen, baita ere, Askasibarren emazte Kontxi Albenizendako guztiek izandako hitzak. Artistaren ibilbidean zutabe garrantzitsua izan da, zalantzarik gabe.

Azken oparia Arte Ederretako ikasle Izar Han Xue Irazabal Gillegi elgetar gaztearen eskutik jaso zuen Askasibarrek: eskuz egindako erretratua, hain zuzen ere. Pozik jaso zuen hainbeste begirune eskultore elgetarrak.

## Ibilbide artistiko emankorra


Umetatik izan du Lorenzo Askasibarrek (Elgeta, 1930) artearekiko zaletasuna. Txikitik ekin zion marrazteari, eta Felix Gartzia izan zuen lehen maisu, 9 urterekin. Gerora, 16 urterekin, Erostarbe altzairu fabrika hasi zen, egurrezko dekorazio eta taila lanetan. Laster jo zuen Bergarako Jexux Okiñarengana. Materiala lantzen, modelatzen eta marrazten ikasi zuen orduan.



Bergarako erakusketan. I. S.

1949an Donostiako Artista Berriendako lehiaketa irabazi ostean egin zuen Bilborako jauzia. Zazpi Kaleetan bizi ziren izeba-osabek eskainitako laguntzari esker izan zuen Berreginen Museoa sartzeko aukera. Orduan egin zuen, enkarguz, Elgetako parrokan dagoen *Kristo penitentea*; tamaina handiko bere lehen obra. "Entzun dudanez, Panaderokuko Julio Ugaldek jarri zuen egurra, eta Jose Mari Arantzabal Uberarekin batera eraman zioten Bilbora obra egiteko", azaltzen du Elkoroberezibarrek. Soldaduska Tetuanen egin ostean Madrilen egin zuen bolada bat Askasibarrek, eta 1958an Ameriketako Estatu Batuetara joan zen, eskulturatik bizitzeko asmo irmoarekin. Ibilbide oparoa egin du han. Ez dira gutxi Atlantikoaz bestalde egindako artelanak. Ezagutzen dutenek pertsona diskretu, umil eta langile moduan deskribatzen dute. Hitz gutxiokoa ere bai. "Zentzu guztiekin komunikatzen da (...) Hitzak irudi artistiko bihurtzen ditu, non emozio guztiak islatzen dituen", esan zuen Elgetako ekitaldian Jose Mari Beristainek.


## Zein ekarpen egiten du liburuak?



**M.A. ELKOROBEREZIBAR**  
LIBURUAREN EGILEA

**"Askasibar eta bere obra ezagunagoa izango da"**

"Elgetan jaiotako edo hazitako askok ez zuten Lorenzo Askasibar ezagutzen, eta liburua aukera polita izan da herritar horiek artistak munduan zehar egin dituenak ezagutzeko. Hemendik aurrera Lorenzo Askasibarren izena ezaguna izango da herritarren artean ere, eta bere obra eskura izango dute denek. Egia esan, berak ere ez zuen jasota egindako obraren zerrenda. Oroitzapenetik tiraka osatu dugu denen artean, eta obra garrantzitsua eta oparoa izan dela baieztatu da".



**IRAITZ LAZKANO**  
ELGETAKO ALKATEA

**"Artista elgetar handi hau dagokion tokian dago orain"**

"Nire ustez, elgetar gehienok entzun dugu zerbait Lorenzo Askasibarri buruz, baina ez genuen ezagutzen artearen historiari egin dion ekarpena. Itzela izan da Miguel Angel Elkoroberezibarrek egin duen lana, eta horri esker artista elgetar handi hau dagokion tokian dago orain. Gainera, omenaldia eskaintzeko aukera izan dugu, eta garrantzitsua da halakoak artista bertan dagoela egitea; izan ere, artearen historian sarri ikusi da ondoren hasi dela apezizaten artisten benetako lana".





Gaizka Morales –berdez– taldekideekin batera *Los siete pecados capitales* ikuskizuna egiten, Arriagan E. MORENO ESQUIBEL

# Gaizka Morales dantzaria ametsak betetzen ari da

Sei urte dira batere samurra ez den ibilbide baten aldeko apustua egin zuela, eta zerbait ondo egiten ari da; izan ere, Arriagan egin berri du dantza, eta European onenetakoa den Dresden Frankfurt Dance Company-ko dantzaria izango da uda ostean

**Larraitx Zeberio Lekuona** ELGETA  
Otsaila ezker, Madrilgo Metamorphosis Dance konpainiako dantzaria da Gaizka Morales elgetarra. Hango koreografoen eskutik izan du Bilboko Arriaga antzokian dantzatzeako aukera; *Los siete pecados capitales* ikuskizuna prestatu dute hilabetez, eta bi emanaldi egin dituzte.

Proiektu bat hurrengoarekin lotzen ari da Morales, eta uneotan Madrilan da beste ikuskizun bat prestatzen. Cadizen eta Zaragozan dantzatuko du ekainean.

**Alemaniarra, ilusioz beteta**  
Hurrengo erronka nagusia, ordea, Jacopo Godani handiak zuzentzen duen Alemaniako

dantza konpainia da. Urrian bidali zuen hautagaitza, eta apirilean egin zuen audizioa. "Sinatu dut kontratua, baina neure burua Alemanian ikusi arte ez dut guztiz sinistuko. Konpainia oso handia da, Europako garrantzitsuenetakoa, eta esan dezaket amets bat beteko dudala. Benetan, oso pozik nago".

## "Sekulako pribilegioa izan da Arriaga antzokian dantza egitea"

GAIZKA MORALES RICHARD DANTZARI PROFESIONALA


Ezagutzen dutenek ondo dakite zer-nolako pasioarekin bizi duen dantza elgetarrak. Pozgarria da ametsak betetzen ikustea. **Zer izan da zuretzat Arriaga antzokian dantzatzea?** Sekulakoa izan da. Bartzelonako Lizeoan ere dantzatu izan dut, baina egun bakarrerako joanda. Kasu honetan, hilabetez izan gara antzokian sorkuntza prozesua eta entseguak egiten. Polita izan da; egunero agertoki horretan eta norberaren kamerinoarekin! Gero, obra bera ere oso jolasgarria da. Pertsonaia asko egin ditugu, arropa aldaketa oso bizkorrekin, eta antzerkirako espazioa genuen dantzariok... Oso-oso ondo egon da. Sekulako pribilegioa izan da.

**Etxekoan berotasuna ere sumatuko zenuen, ezta?**

[Barre] Bueno... asko! Zapatuan Elgeta erdi etorri zen emanaldia ikustera. Oso-oso hunkigarria izan zen.

**Esanguratsua da egiten ari zaren ibilbidea, baina Alemaniarako pausoa ez da nolanhikoa.**

Oraingoz, urtebeterako kontratua lortu dut asko gustatzen zaidan eta Europa mailan onenetakoa den Dresden



G.M.

Frankfurt Dance Company-rekin. Dantza garaikideko konpainia bat da, eta oso pozik nago. Kontratu ona da: nire oporrekin eta lanorduekin. Gainera, dantzariek ballet entrenamendu oso indartsuak egiten dituzte, eta Jacopo Godani zuzendariak gorputzaren mugimendua ulertzeko modu oso espezifikoak du. Apirilean jaso nuen dei bat esanez zerrenda batean nengoela, eta joateko audizio bat egitera. Bi egun egin nituen haiekin, eta ikusi nuen beste mundu bat dela. Berehala esan zidaten eurekin nahi nindutela. Amets bat betetzea da niretzat.

**Europa mailako birak etorriko dira, orduan?**

Ez dakit pandemiarekin zer gertatuko den, baina, ziurrenik, bai. Europa osoan mugitzen den konpainia da. Uste dut irailean Serbian dugula emanaldi bat. Askok ikasiko dut, seguru!

## Europa mailako saria jaso du Baobeer-eko Tafarit garagardoak

Zilarrezko domina eman diote Barcelona Beer Challenge lehiaketako American Strong Ale kategorian

**L.Z.L.** ELGETA  
Pozik itzuli dira Bartzelonatik Mikel Irazabal eta Maite Barrainkua. Baobeer Garagardo Artisanuak egitasmoak ardura-dunek domina bat jaso dute Bartzelonan egin berri duten Barcelona Beer Challenge lehiaketan. "Europa mailako txapelketa da, eta garagardo asko aurkezten dituzte bertara. Oso zaila iruditzen zitzaigun saririk jasotzea. Sorpresa atsegina izan da", azaldu dute. Gaineratu dute urtean zehar antolatzen diren bi lehiaketa nagusietako bat

dela Barcelona Beer Challenge. "Seigarren edizioa izan da aurtengoa, eta 1.167 garagardo aurkeztu dira. 60 kategoriatan eman dituzte sariak".

**Gogotsu lanean**

Maiatzaren 28an egin zuten sari banaketa Bartzelonan, eta Tafarit garagardoak zilarrezko domina jaso zuen. "IPA klasiakoaren eta gaur egungo bertsio modernoagoen arteko nahasketak izanik, American Strong Ale kategorian izan da saritua", azaldu dute sortzaileek.



Mikel Irazabal eta Maite Barrainkua sariarekin eta garagardo sarituarekin. L.Z.L.

Aurretik ere hainbat sari jaso izan dituzte. Hain zuzen, bigarren aldian da Europa mailako lehiaketa horretan saritzen dituztela. Urteko beste hitzordu garrantzitsua Poblenuko (Bartzelona) garagardo lehiaketa da. Espainia

mailako lehiaketa da hori, eta hiru ekitalditan lau sari ekarri izan dituzte Elgetara Barrainkuak eta Irazabalek. "Oso pozik gaude, sariak jasotzen jarraitzen baitugu, gero eta zailagoa izan arren", esan dute.

## OHARRAK

### Saskibaloia saioak

Bergarako saskibaloia taldeak ordubeteko hiru saio egingo ditu Elgetan, 8-11 urte arteko neska-mutikoendako. Lehenengo saioa gaur egingo dute, 18:00etan. Aurrez eman behar da izena. Hurrengo saioak izango dira ekainaren 18an eta uztailaren 9an. Argibideetarako: 688 62 83 96.

### Baserrirako bideak

Elgetako Udalag bide-hesia ipini du Egoetxeaga auzoko Iturbe baserrirako bidean, eta abiadura murrizteko baden bat Goimendi auzoko Azurtza baserrirako bidean. Puntu horretan seinale bat jartzea falta da. Lanok 3.170 euroko aurrekontua izan dute.

# COVID sasoian asmoak gauzatzea, "erronka"

Udal Gobernuak agintaldi erdiaren balorazioa egin du eta herri programa betetzen joan direla esan, "zailtasunak" izan dituzten arren. Diote osasun krisiari egoki erantzun diotela eta hartutako erabakietan euren izatea eta balioak nabaritu direla

## Oihana Elortza OÑATI

Agintaldia hasi zenetik bi urte igaro dira, eta orain arte egin dako balantzea egin du Udal Gobernuak. Pandemiak baldintzatutako sasoiak izan da orain artekoa, baina osasun krisiak jarritako erronkei "ondo" erantzun dietela adierazi dute Udal Gobernuak kideek, eta, "zailtasunak zailtasun", herri programa betetzen joan direla.

## Udal Gobernuaren balioak

Azaldu dute COVID-19ak sortutako testuinguru ezezagun baten bueltan lanean aritu direla azken hilabeteetan, eta horrek bultzatu dituela unean uneko egoera egokitu behar izatera. "Esango nuke eskakizun horiei erantzun egokia emateaz gain, geure balioak eta geure izatea ere ikusi direla erabaki horietan eta, orokorrean, pandemiaren kudeaketan", adierazi du alkateak, Izaro Elorzak.

Eta agintaldian daramatzaten bi urte hauetan egindako adibideak ematen hasita, lehen sektorearen aldeko apustu sendoa egin dutela adierazi dute, zapatuetako azoka mantendu ahal izateko. Baita herriko merkataritzak izandako kalteak leundu guran bonu sistema martxan jartzea eta dirulaguntza bereziak abiaraztea. Elkarzaintzarako dinamika bultzatu eta kultura emanaldiak eskaintzen jarraitzeko bitartekoak ere jarri dituztela, kultura segurua dela aldarrikatzeko. Kontziliazioari lotuta, udako zaintza hezitzailea aipatu dute Udal Gobernuak ordezkariak.

Herri programa betetzen joan direla adierazi dute eta partaidetza eta garapen komunitarioaren aldean, esaterako, helburuak bete dituztela azaldu. "Oñatik parte hartzen duen herri izaten jarraitzea, eta horretarako bitartekoak jarri eta gaian sakondu gura izan dugu.



Xabier Igartua eta Izaro Elorza, asteen egindako balorazioaren ostean. M.S.

## 21EKO ASTEAN ZABALDU GURA DUTEN ZUBIKOAREN BIRGAITZEA IZAN DUTE ERDIGUNEAN

Horretarako, dinamika ezberdinak jarri ditugu martxan Udaleko hainbat alorrekin elkarlanean: Hirigintzarekin, Hezkuntzarekin, Haur eta Gazteriarekin eta Berdintasunarekin, adibidez. Aurrera begira beharrezkoa ikusten dugu beste alorrekin elkarlanean jarraitzea sinergiak bilatuz", zehaztu du alkateak.

## Kultura ahaztu barik

Kultura ere aipatu dute egindako balorazioan; adierazi dute eguneroko jarduna izan dela alorrekiko eta sortzaileekiko errespetua adieraztea. "Badakigu kultura eskaintzari begira herri aberatsa dela Oñati, eta horrek horrela izaten jarraitu dezan bitartekoak jartzea da gure helburua. Aurrera ateratako egitasmoen artean aipatu daitezke, adibidez, etnografiari lotutako Erreusak egitasmoa eta

Jerardo Elortza bilduma bera", nabarmendu zuen Sozioekonomia batzordeburu Xabier Igartuak. Euskararen aldeko ekimenak ere egin dituzte, eta gizarte zerbitzuan eta ongizate alorrean ere askotariko dinamika jarri dituzte abian, besteak beste, "bakardadean dauden adinekoen bizi baldintzak hobetzeko".

Sozioekonomia alorrean, merkataritza biziberritzeko plan estrategikoaren eguneraketa eta turismoaren plan-estrategikoaren lanketa aipatu zituen Igartuak. Berdintasun alorrean jabeak eskola indartzeko egindako lana aipatu zuten eta jardunaren erdigunean egon direla 21eko astean zabaltzeko asmoa duten Zubikoa kiroldegiko birgaitze lanak. "Azkenean, 8,5 milioi euroko lana izanda, haren gainean egon beharra egon da, halabeharrez, unean uneko arazoei erantzunak ematen. Oñatiarrontzat zapiegitura txukuna gelditu dela esango nuke", dio Igartuak.

Etexe etxeko langileen hitzarmena, integrazioa lantzeko lana, HAPO martxan jartzea eta Azkoagaingo obrak ere aipatu dituzte.



Irasuegi, Herrarte, Kareaga eta Urretabizkaia, martitzeneko mahai-inguruan. J.I.

## Oñatik burujabetzak nola landu ditzakeen izan dute hizpide

Ekonomia sozial eraldatzaileaz ere jardun dute Udalak antolatu eta astean egin duten mahai-inguruan

## O.E. OÑATI

Ekonomia sozial eraldatzaile eta hainbat esparrutan burujabetza nola handitu izan dute hizpide Udalak astean antolatutako mahai-inguruan. Talaios kooperatiba Udalarentzat lanketa ari da egiten horren harira, eta ekonomia produktiboaz gaindi pentsatu beharra nabarmendu du Beñat Irasuegik.

Irasuegik jarritako adibideen artean, zaintza aipatu zuen: "Hori, normalean, merkatuaren esku uzten da. Burujabetza estrategia batek erdigunean jartzen du gaia eta aztertu egiten du modu burujabe nola antolatu ditzakeen herriak etorkizunean zaintzarako behar dituen beharrak".

"Ekonomiaren nondik norakoak soilik ahaltsuenen esku daudela pentsa litekeen garaian", Oñatiko Udalak "herriaren garapen ekonomikorako estrategia bere gain hartzea" oso garrantzitsua jo du Irasuegik, eta alianza publiko-komunitarioaren garrantzia azpimarratu du. Hain justu, horrela, herri mugimenduaren eta Udalaren artean sortu da Bergaran oraindik aurkezteke dagoen egitasmoa, itxialdi garaiko kezketatik abiatuta sortu ere. "Kultura mahaia sortu zen, herri hezitzaileak lan handia egin zuen, elikadura burujabetzaren inguruan Ereindajan proiektuak indarra hartu zuen... Eta hori modu iraunkorrean mantendu eta osatu egin ez ote daitekeen galdera sortu da", Lankiko Ariane Kareagak esan zuenez. Goierriko Biola proiektuaren adibidea ere aztertu zuten, eta baita D2030 egitasmoa ere. Horko Elena Herrartek gizarte eraldaketarako egitasmoak aurrera eramateko esperimintatzeko aukera izateak duen garrantzia azpimarratu zuen, besteak beste.

## Pentsioen sistema publikoaz arituko dira eguaztenean

Oñatiko EH Bilduk antolatuta egiten dabilzan hitzaldi zikloaren hurrengo saioa ekainaren 16an izango da, 18:30ean, Santa Ana aretoan. Pentsioen sistema publikoa izango dute hizpide. Ana Mezkok pentsiodunen mugimenduaren erronken inguruan hitz egingo du eta Xabier de la Fuentek, egungo egoeraz, mehatxuez eta aukerez.

## Haur eta guraso asanblada sortzeko bilera dago bihar

Antixena gaztetxean haur eta guraso asanblada sortzeko dei egin dute biharko, zapatua. Zazpi bat familiaren artean sortutako ideia da eta gehiagorekin elkarbanatu gura dute, denen artean aurrera begirako plangintza bat adosteko. Bilera gaztetxean bertan izango da bihar, 11:00etan. Zaintza zerbitzua egongo da.



# Aitortza jasoko dute gaur hamalau odol emailek

Odola 24, 40, 50 eta 75 aldiz emango dutelako Gipuzkoako Odol Emaileen Elkartearen esker ona eta agiria jasoko dute gaurko ateratzean. Odol premia dagoela eta emaile berrien beharra ere badutela gaineratu dute herriko elkarteko kideek

## Oihana Elortza OÑATI


Berez, iazko udazkenean egin behar zen aitortza ekitaldi hori, 2019an 25, 40, 50 eta 75 odol-emaite egin zituztenei esker ona adierazteko. Baina pandemia-gatik ezin izan zen egin, eta gaurko odol ateratzean egingo dute, 18:15ean, Mondragon Unibertsitateko fakultatean. Guztira, Oñatiko hamalau odol emaile omenduko dituzte: zazpik 25 aldiz eman dute odola, batek 40 aldiz, bik 50 aldiz eta lauk, berriz, 75 aldiz.

## 300 odol poltsa egunean

Euskalduna odol emaile "fidela" dela dio Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteko presidente Sabin Urzelayk, Euskadiko %3 dela odol emaile, baina odola beharrezkoa dela gogorarazi eta azpimarratu gura izan du: "Euskadin, egunean, 300 bat odol-poltsa behar dira eta ezin da ahaztu odola 42 egunera irautsi egiten dela". Oñatiko elkarteko kideak ere behar horren jakitun dira, eta horregatik dei egiten diete emaile direnei, tarteke ez bada ere, odola ematera joateko, eta oraindik egin ez direnei, odol ateratze batera joan eta emaile egiteko. Gaur, 16:30etik 20:00etara egongo dira MUko Enpresagintza fakultatean.




Aitor Kerexeta oñatiarra odola ematen. A.K.



**AITOR KEREXETA**  
25 ODOL ATERATZE

"Aitonari laguntzen nion odol ateratzeetara, eta horrelaxe hasi nintzen. Egun, emazteak eta biok ematen dugu. Beharrezkoa da".



**MARILO TORREALDAY**  
25 ODOL ATERATZE

"Egin ahal duzun mesedea positiboagoa da kosta ahal zaizun ahalegina baino. Pandemia garaian ere ez diot emateari utzi".



NIRE USTEZ

MIEL GURIDI

## Non ote da Asimov

Pasa den astean hainbat komunikabidetan argitaratu zen drone batek Libiako talde armatu bati tiro egin ziola, gizakiaren agindurik jaso gabe, modu autonomoan, historian lehen aldiz. Drone horrek, antza, hartutako irudiak adimen artifizialean oinarrituta aztertzen ditu, erasoko dituen jomugak aukeratu eta haien aurka jaurtigaiak botatzen ditu.

Albisteak sortutako zirrara gairatu ondoren, Isaac Asimov-ek 1942an argitaratutako *Runaround* liburuan azaldu ziren robotikaren hiru legeak etorri zitzaizkidan burura. Lehenak zioen: "Robot batek ezin dio kalterik egin gizakiari, edo, ezer ez egiteagatik, gizakiari kalteak eragiten utzi".

Harrezkero, erakunde, zientzialari eta beste askok antzerako legeak sortu dituzte robotikarako edo adimen artifizialerako. Baina, arauak arau, ezinbestekoa da alderdi etikotik gogoeta egitea eta sekula gairatu ezingo diren mugak irmo ezartzea; izan ere, aurrerapen zientifikoak oso lagungarriak izan badaitezke ere, teknologia horiei ematen zaien erabilpena etikoa izan behar da.

## GORA ETA BEHERA



J.V.

## Jolastoki erakargarri bezain arriskutsua



Postetxe ondoko tren "haurrentzako jolastoki erakargarri bezain arriskutsua" dela dio irakurle batek; zoritxarren bat izan aurretik Udalak zerbait egin behar ez ote lukeen galdetu du.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo [688 69 00 07](tel:688690007).



**Gualbi**  
aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA  
LAN ARLOKO AHOLKULARITZA

ABOKATUAK  
KONTU IKUSKARIAK

*Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!*



Euskadi Etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • [onati@gualbiasores.com](mailto:onati@gualbiasores.com) • [www.gualbiasores.com](http://www.gualbiasores.com)





Potx eta Lotx pailazoak, *Kaleak bizirik* izeneko disko berria eskuetan dutela. DANIEL TERAN

# Gizarte "ilunari argia" jartzeko gogoz datoz

'Kaleak bizirik' diskoa atera dute Potx eta Lotx pailazoek, hamar kantu berriekin. Oraingoan ere, letrak Txinparta bertso eskolakoek egindakoak dira eta ikuskizun berria irailean estreinatuko dute Bilboko Campos Eliseos antzokian

## Amaia Txintxurreta OÑATI

Itxialdian sortutako diskoa da Potx eta Lotxen berriena, eta aurrekoak baino "landuagoa", Potx pailazoari bizia ematen dion Josu Zubiaren esanetan.

*Kaleak bizirik* lanean hamar kantu jaso dituzte eta berrikuntza bezala esan daiteke Txinparta bertso eskolako gaztetxoekin ere idatzi dutela bertako kantuetako bat, *Egun txarra* izeneko. "Beti helduenek egin izan dituzte kantuak eta ikusi genuen erronka polita zela gaztetxoek ere kanturen baten letra sortzea. Egin dute eta oso pozik gelditu gara emaitzarekin", azaldu du Zubiak. Diskoari ahotza jartzen ere parte hartu dute haiek, beste haur batzuekin batera. Guztira, 26 lagunek jarri dituzte ahotsak oraingo diskoan.

Musikari dagokionez, Xabi Yaniz izan dute gitarra elektrikoan; eta baterian, Oriol Flores. Musika sorkuntza eta ekoizpen lan guztiak, berriz, Josu Zubiak berak egin ditu. "Sortutako la-

naren bitartez, gure helburuetako bat da Oñatiko eta inguruko sortzaileak aktibatzea", azpimarratu du Zubiak.

## Askotariko gaiak landu dituzte

Kantuetan hainbat gai jorratu dituzte: kaleko bizitzari dagokionez, komertzio txikiei, kaleko artistei eta parrandei buruz hitz egiten dute; mende honetako bizitza erritmoak eragindako "nahigabeak" ere landu dituzte; esaterako, estresa edota jendearen seriotasuna. Hitzen esanahiekin jolasten duen *Pilota berria* kantua ere egin dute; eta reggaeton musikaren parodia entzun daiteke *Txunpa txun* abestian.

Horiekin guztiekin hainbat aldarrikapen egin nahi izan di-

**SORTUTAKO LANAREN BITARTEZ BERTAKO SORTZAILEAK AKTIBATU NAHI IZAN DITUZTE PAILAZOEK**

tuztela ere gaineratu du Zubiak: "Gure imperfekzio, kontraesan eta miseriak askatasunez onartu ahal izatea; gizarte ilunari argi apur bat jarri nahi diogu barrearen bitartez; kaleak berreskuratzen hastea ere nahi dugu, zentzuz, baina irmo; kaleei bizitza ematen dietenekiko begirunez jokatzera ere bai...".

## Bi bideoklip ikusgai

Dagoeneko bi ikus-entzunezko argitaratu dituzte: lehena urtariraren 4an argitaratu zuten, *Txunpa txun* kantuekin, eta bigarrena maiatzaren 23an, *Pilota berria* abestiarekin.

## Ikuskizuna ere bai

*Kaleak bizirik* ikuskizuna irailean estreinatuko dute, Bilboko Campos Eliseos antzokian, eta sarrerak laster jarriko dituzte salgai. Bitartean, *Etxean* ikuskizuna ikusteko azken aukerak izango dira Lemoan, Amoroton, Lizarran, Ataunen, Getarian eta, azkena, abuztuan Zarautzen.



Aitor Biain eta Oihana Diaz, zapatuko kontzertua aurkezteko prentsurrekoan. A.T.

## Ganbara Kantu Eskolako bitartez Oñatiko trena ezagutzen

Nahi baino era apalagoan, kontzertu bakarra eskainiko dute zapatuan, 'Oñati ezagutzen' proiektuaren baitan


## A. T. OÑATI

Herriko ermitak eta lantokiak ezagutu ostean, Oñatiko Txokolaterara salto egin dute Ganbara Kantu Eskolakoek aurten. Bi urtean behin gauzatzen duten *Oñati ezagutzen* ekimenarekin, herriko ondarea ikastetxeekin batera gaineratu nahi izaten dute, eta herriko ondare hori musikarekin atontzen dute.

Horrelakoetan, hainbat kontzertu eskaini izan dituzte ez ohiko lekuetan, eta aurtengo ere asmo eta gogo hori zuten, baina pandemiagatik ezin izango dute nahi bezala egin, eta,

azkenean, kontzertu bakarra egingo dute: *Triki traka Oñatiko trena* emanaldia eskainiko dute zapatuan, 19:00etan, Santa Anan. Ikus-entzunezkoak ere erakutsiko dituzte bertan, eta sarrerak salgai daude, bost eurotan, Txokolateixan, Foruen plazako txartel-makinan eta Udalaren webgunean.

Trenaren nondik norakoak jasotzen dituen liburuxka ere argitaratu dute. Dagoeneko banatu dizkiete herriko hiru ikastetxeetako familiei, bana, eta kultur etxean ere eskatu ahal izango dira.



OIHANA ELORTZA

## Haurren pintura erakusketa

Udalak antolatutako marrazketa eta pintura ikastaroan 6-15 urte bitarteko 65 ikasle aritu dira aurten, eta ikasturtean egindako hainbat lanekin erakusketa jarri dute kultura etxean. Lan gehienak mihisean egindakoak dira -akrilikoak eta olioak-, baina akuarela batzuk ere badaude ikusgai. Domekara arte egongo da zabalik erakusketa, 18:00etatik 20:00etara.



# Komunikazio udaleku irekiak. 2021



- **Euskara** hutsean.
- Komunikazioaren mundura hurbiltzeko modu **kritiko, praktiko eta dibertigarrian**. Besteak beste, landuko dira: kamera aurrean nola jarri, fotokazetaritza, youtuber izateko gakoak, podcastak nola egin, benetako albisteak eta faltsuak nola identifikatu...
- Mondragon Unibertsitateko irakasleekin eta Goienako **profesionalekin**.
- Gainera, landuko diren gaietan ezagunak direnek emango dituzte master-eskolak:  
**Aiora Mujika** @probatxoa youtuberra.  
**Ainhoa Vitoria** komunikatzaile eta Gazteako irrati esataria.  
**Xabier Urzelai** Goiena Komunikazio Taldeko kazetaritza-argazkigintzan aditua.

## Anima zaitez eta eman izena!



### Noiz:

- Lehen txanda, uztailaren 5etik 9ra.
- Bigarren txanda, uztailaren 12tik 16ra.
- Astelehenetik ostiralera, goizez.

### Non:

Mondragon Unibertsitateko  
Komunikazio Campusean, Aretxabaletan.

### Orduetgia:

09:00-13:30.

### Norendako:

DBH-4ko eta batxilergoko 1. mailako gazteak.

### Izen ematea:

Maiatzaren 3tik ekainaren 18ra.

### Prezioa:

125 euro.

### Izena emateko:

[www.goiena.eus/bereziak/udalekuak](http://www.goiena.eus/bereziak/udalekuak)

### Informazio gehiago:



600 04 66 89



[komunikazioudalekuak@gmail.com](mailto:komunikazioudalekuak@gmail.com)

ANTOLATZAILEAK:



Mondragon  
Unibertsitatea

Humanitate eta Hezkuntza  
Zientzien Fakultatea

goiena<sup>''</sup>  
KOMUNIKAZIO TALDEA





Alkideba Ointxe! taldeko mutiak, joan den asteburuan, liga irabazi berritan. BITTOR MUNARRIZ

## Urrezko harrobia duela erakutsi du Ointxe!-k

**SASKIBALOIA** Alkideba Ointxe!-k Lehen Nazional Mailarako txartela lortu zuen joan den asteburuan, Getariari irabazita. Hala, talde nagusira begira harrobi izateko sortutako proiektuak emaitza ederra eman du. Kategoriatxikiak ere nabarmentzen dabilta

**Xabier Urzelai** ARRASATE  
Ointxe!-ren lehenengo taldea Lehen Nazional Mailara igo zenean -90eko hamarkadan izandako loraldiaren ostean hartutako kolpetik errekuperatu eta gero-, taldeko jokalariek eta klubeko arduradunek ondo ospatu zuten taldea EAEko kategoriatxiki gorenara sailkatu izana. Hala, joan den asteburuan Ge-

tariako taldeari irabazi eta gero, bigarren taldeak lortu du helburu berbera, eta erakutsi du lehen taldeak, harrobiari dagokionez, babes ona daukala.

*Txisko*-ren mutilek liga berezi honetan jokatu dituzten hamarkak partiduetatik hamar irabazi dituzte, eta joan den astean Getariako ez zen kontrario izan (91-48). Kostaldeko taldea joka-

lari kopuru txikiarekin etorri zen, eta, lehen laurdenean ondo eutsi bazioten ere, arrasatearrek erritmoa bizitu zuten momentuan kanpotarrek fisikoki behera egin zuten.

Hala, mailaz igota, Alkidebakoei azken festa geratzen zaie, zapatuan (16:00) Mungian agurtuko dute-eta denboraldia, saria jada poltsikoan daukatela.

## Liga pandemikoa, eta 'play-off'-a, agurtzeko ordua iritsi da

**FUTBOLA** UDA Zarautzen ahaleginduko da bosgarren sailkatzen; Bergarak Agorrosinen du azkena, zapatuan

**X.U.** ARRASATE  
UDAk iaz lortutako bosgarren postuan nahi du aurtengoa ere amaitu. "Helburu polita da; ikusita ze urte zaila izan dugun, iazkoa errepikatzea uste dut denboraldia amaitzeko modu

txukuna dela", adierazi dio GOIENARI UDako aulkian azken partidua egingo duen Mikel Larburuk. Izan ere, joan den astean Bergararen kontrako kanporaketa gainditu izanak (2-3) ematen die aretxabalarrei


horretarako aukera. Hala, UDak Zarautzen kontra jokatu du bihar (12:15) *play-off*-eko azken norgehiagoka.

Bergarak, berriz, zazpigarren sailkatzeko helburuarekin hartuko du Elgoibar Agorrosinen (16:00). "Iaz atzealdean larri ibili ginen eta aurtun pausoa eman dugu aurrera, *play-off*-erako sailkatuta. UDaren kontra galdu izana pena da, baina hobe halakoak ezer jokoan ez dagoenean bizi izatea. Ikasgai ona izan da", adierazi du Barkerok.




Aretxabalek Agorrosinen 2-3 irabazita gainditu du kanporaketa. GOIENA

## Jokalariek pozik eta itxaropentsu



**TXOMIN AIASTUI**  
ALKIDEBAKO JOKALARIA

"Lehen laurdenean indarrak berdinduta egon dira, baina gero, aise irabazi dugu. Denboraldi polita izan da; elkar ezagutzen genuen taldekideok, eta igarri egin da kantxan. Datorren denboraldian maila polita erakutsi dezakegu".



**MARKEL APELLANIZ**  
ALKIDEBAKO JOKALARIA

"Denboraldi nahiko eroso izan da emaitzei dagokionez, baina lan eta sakrifizio handia dago atzean. Jokalari moduan nire helburua ondo pasatzea da, baina taldeak mailaz igotzeko helburua zuten, eta pozgarria da hori lortu izana".



GOIENA

## "Taldekideak izateaz gain, lagunak dira"

**FRAN FERNANDEZ**  
BIGARREN ENTRENATZAILEA

**Partidu erraza izan da.** Bai; jokalari asko genituen ordeko moduan, eurek ez, eta joko erritmoa bizitzea nahikoa izan da kontrarioa itotzeko.

**Helburua beteta.** Bai; gazte hauek sekulako lana egin dute. Taldekideak izatearekin batera lagunak ere badira, eta hori kantxan igarri egiten da.

**Badago harrobia.** Badago harrobia, bai, eta hori oso garrantzitsua da lehenengo taldera begira. Lehenengo mailan jokatzek, gainera, jokalariei aukera emango die EBako taldera laguntzera igo behar dutenean halako saltorik ez sumatzeko. Horrekin batera, kadeteak eta juniorrak Euskadiko txapelketetan aurrean dabilta, eta hori ere azpimarratzekoa da.



# Eskibel, faboritoen artean Aramaioako Openean

**MENDIKO BIZIKLETA** lazko hutsunearen ondoren, domekan (11:00) Euskadiko Openeko lasterketa egingo dute Azkoaga eta Barajuen artean prestatu duten zirkuituan. Aste hasierarako, 140 lagunek emana zuten izena: "Jendea lasterketa gosez dago"

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Aramaioako Opena izan zen, 2020ko martxoan, pandemia hasierak bete-betean eragin zion kirol hitzorduetako bat. Hain justu, antolatzaileak aste barruan oraindik lasterketa antolatzeko lanetan ibili ziren, federazioen onarpena zeukaten, baina goragotik etorri zen kirol hitzordu guztiak bertan behera geratzeko agindua. "Aste barruan ikusten genuen arriskua geroago eta handiagoa zela, baina egubakoitzean bertan hartu zuten erabakia, lasterketa baino ordu batzuk lehenago iritsi ziren debekuak", gogorarazi du Martin Arriolabengoak.

Hala, lanak aurreratuta zituztela, lasterketa barik geratu ziren Aramaion; urtebete pasatxo igaro da, eta antolatzaileak lanerako gogoz daude. "Orain arteko lasterketetan ikusi da jendea lasterketa gogoz dagoela; segurtasun neurrietako bat da egunean bertan ez dela lasterketan izena emateko aukerarik egongo, aurrez egin behar da dena, eta Federazioak aurreratu digu [martitzeneko datuak] dagoeneko 140 lagunek eman dutela izena. Bada, duela hamabost egun, ia 200 ziklista batu ziren Errenteriako proban, eta kopuru horretara ez gara iritsi-



Iker Eskibel eskoriatzarra hirugarren dago sailkapen orokorrean. I. ESKIBEL

ko, baina oso parte-hartze polita izango da".

## Eskibel, aurrean lehian

Debagoieneko ordezkariak dagoeneko, hainbat kategoriatan izango dira ibarreko ziklista bat baino gehiago. Nabarmenen artean, Ander Bengoa aramaioarra egongo da; lehenago ere, herrian aurreko postuetan lehian ibilitakoa da, eta bereziki gutti jarraitzeko ziklista izango da Iker Eskibel. Eskoriatzakoa Euskadiko txapeladun izan berri da, Errenterian lehenengoa izan

zen elite mailan eta Openeko sailkapen orokorrean, berriz, hirugarren dago.

## Zirkuitua, berbera

Antolatzaileek ez dituzte aldatu egingo zirkuituari dagoeneko; azken urteetan moduan, Azkoagako eta Barajuengo lurretan prestatu dute ibilbidea. Hala, 11:00etan irtengo dira elite eta 23 urtez azpikoak; 11:02an abiatuko dira master 30 eta junior mailetakoa; eta 11:04an, kadeteak, emakumezkoak eta master 40 kategoriakoak.

# Gazte mailako ziklisten lehia Uzarragako maldetan domekan

**TXIRRINDULARITZA** Lasterketa ez dute Antzuolako herrigunearan hasiko, Goizperreko aparkalekuan baizik

**X.U. ARRASATE**

Ayastui Peñakoen asmoa, ohi moduan, Uzarragako Igoera martxoan egitea zen. "Baina orduan herriko intzidentziatasia altua zen, eta hori kontuan hartuta nahiago izan genuen lasterketa bertan behera utzi. Orain, baina, Federazioak data berria proposatu digu eta onartu egin digu, eta domekan gazte mailako ziklismo lasterketa izango dugu herrian", adierazi dute antolaketa taldeko lagunek.



2019ko irabazle Iñaki Diaz. GOIENA

## Goizez, aspaldi bezala

Lasterketa ez dute ohiko ordutegian egingo; ez, behintzat, azken urteetan egin den moduan zapatu arratsaldean. "Lehenago, goizez egiten genuen Uzarragako Igoera, eta aurtengo edizioa ere horrela egingo dugu". Hala, domekan ziklistak 10:30ean abiatuko dira Goizperreko aparka-

lekutik; segurtasun neurri moduan, irteera puntua ere herrigunetik atera dute, eta azkarrena 12:00 aldera iritsiko da helmugara. Tartean, 57 kilometrotako lasterketa izango dute ziklistek -11:00etan Des-karga igoko dute-.

## ZIKLISMOA Itsaso Plaza, Espainiako Kopara esperientzia hartzera

Joan den asteburuan San Antonio saria irabazi eta gero, Itsaso Plaza ziklista arrasatearra Espainiako Kopan izango da asteburuan, Valladoliden: "Sailkapen nagusian 17. postuan dago eta Valladolidekoa orain arteko probarik luzeena izango da. Halako ibilbide lauan esperientzia hartzeko ondo etorriko zaio", adierazi dute Lokatzako kideek.

## PILOTA Udaberriko final-laurdena gaur Bergaran

Udaberri txapelketako final-laurdenetako partidua jokatu dute gaur, egubakoitza, 20:30ean hasita, Bergarako udal pilotalekuan -publikorik gabeko partidua izango da-. Hala, norgehiagoka seniorretako bigarren mailakoa izango da, eta Bergarako Etxezarretak eta Rezustak Eibarko pilotariak izango dituzte aurrean.

## 'INDUSTRIA ETA CO<sub>2</sub> ISURKETA'

**GOIENA TELEBISTA, 'DEBAGOIENA ERALDATZEN'**  
EKAINAREN 17AN, EGUENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN  
D2030 GARAPEN IRAUNKORRERAKO SAREAREKIN  
ELKARLANEAN EKOIZTUTAKO SAIOA

**goiena**  
Zu hemen zaude.



# Minetik sortutako poema sendagarrien errezitaldia

IRA rap talde feministako kide Elvira G. Luque 'Elvirus'-ek argitaratu berri duen 'Café sola' poema liburua aurkeztuko du domekan, Arrasateko gaztetxean, 12:00etan, eta La Furia eta Iraitz Agirre izango ditu lagun; 'Agako.eus' atarian, sarrerak erostgai

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE  
Musikarekin lotutako proiektu feministak bultzatzeko asmoz abiatu zuen Arrasaten bizi den Nerea Loron *La Furia* rap musikariak La Mimosa ekimena. "Interesgarriak iruditzen zaizkidan ekimen artistiko eta politikoak bultzatzen saiatzen naiz; proiektu pertsonala da, oraingoz, baina atek zabalik dituena. Ez dut jatekoa ateratzeko asmoz sortu, baina, aldi berean, ilusioa handia sortzen dit La Mimosak; izan ere, uste dut beharrezkoa dela diskurtso feminista eta bereziki lan egiteko modu feministak kudeaketa eta erabakiak hartzeko eremuetan egotea. Diskurtso feminista taularen gainean dago gaur egun, eta pozik nago dagoen emakume artista mordoarekin, baina musikaren industrian sartu naizenean amorrazio handiz ikusi dudana da neska artista askoren karrerak gizezkoen eskuetan daudela; hau da, ohiko eredu patriarkalaren menpe", azaldu du La Furia musikariak.

La Mimosa proiektuak lagunduta, Madrilgo IRA rap talde feministako kide Elvira G. Luque *Elvirus* musikariak argitaratu berri duen *Café sola* poema liburua ari da egunotan Euskal Herrian aurkezten. Eguaztenean



Ekiñe Casado, Elvira G. Luque eta Nerea Loron, eguazteneko aurkezpenean. LA FURIA

Iruñeko Katatrak liburu-dendan abiatu zuten bira eta etzi, domeka, Arrasateko gaztetxean borobilduko dute. "Adiskidetasun eta anaitasun sakonak lotzen nau Elvirarekin, musikarengatik eta ezinbestekotzat ditudan gauza askorengatik. Elvira ezagutzera emateko egin ahal den guztia egin beharrezkoa dela uste dut; oso lan garrantzitsua egiten duen arren, ikusgarritasun gutxi duela uste dudalako. Justizia poetikoa da Euskal Herrian Elvira ezagutzea", dio La Furiak.

## Gordin eta umorez idatzita

*Café sola* liburua gordina da, La Furiaren esanetan: "Oso intimoa da, baina, aldi berean, oso unibertsala ere bai. Kontakizun gogorra eta zintzoa da, maitasun eta umore handia ere baduena. Handinahi bakoa –poesia arloan asko estimatzen dut hori–, eta baita ohiko literatura kanonetatik kanpo dagoela ere. Mundu guztiari gomendatuko nioke; bereziki, ohiko eruedetatik kanpo sentitzen direnei".

2017 eta 2019 bitartean idatzitako testuen bilduma da liburua.

Egilearen esanetan, barruko mina arintzeko idatzi zituen testuak, liburu bat sortzeko asmo barik. "Oso triste eta depresio gogor batek jota nengoela idatzitako testuak dira. Nire margo beltzak dira. Buruko nahasmenduen eta beste arazo askoren ingurukoak, eta egoera horiei aurre egiteko borrokari buruzkoak ere bai. Psikiatria arloari –profesionalei eta gizartean duen pertzepzioari– ere kritika egiten diet. Oso dramatiko da, tragikomedia, esango nuke, umorea sarritan erabiltzen dudana tresna oso baliagarria delako. Liburua osatzeko aurrez idatzita eta hortik zehar barreiatuta nituen testu guztiak batu, antolatu eta elkarren arteko loturak egin nituen bildumari zentzia emateko".

## Bira amaiera, Arrasaten

Domekan Arrasateko gaztetxean borobilduko dute Euskal Herriko bira. "Izugarrri eskertuta nago La Furiarekin, oraingoa ere kasu egin, babestu eta lagundu egin didalako", dio egileak.

Aurkezpenetan idazleak alboan izan du La Furia eta baita tokian tokiko "erreferentziako" emakumeak ere. "Oraindik zabaldik dagoen zauria da liburua, eta, horregatik, aurkezpenak gune seguruak izatea izan da nire asmoa. Guretako erreferente diren tokian tokiko emakumeak gonbidatu ditugu aurkezpen ekitaldietan parte hartzera: Bilbon, Irantzu Varela feminismoan lehen lerroan dagoen artista; Tolosako Bonberenea gaztetxean, bihar, Lucia Baskaran idazlea izango da gurekin; Gasteizen eta Iruñean, Ekiñe Arrasateko musikaria izan da; eta etzi, Iraitz Agirre musikaria eta antropologoa izango da gaztetxean. Sarrerak, *Agako.eus* atarian".

## Abian da Benito Ansola sariaren seigarren aldia

Ikus-entzunezkoak euskaraz ekoizteko sariketan parte har daiteke irailaren 19a arte

### A. Aranburuzabala ARRASATE

Euskaltzaleen Topaguneak, Lekeitioko Udalak eta Euskal Zine Bilerak elkarlanean bultzatzen duten sariketaren seigarren aldian, 18 eta 36 urte bitartekoek hartu ahalko dute parte. "Diziplina askotariko ikus-entzunezko lanen proiektuak aurkez daitezke –fikzioa, sorkuntza, animazio eta dokumentalak–, baina originalak izan behar dute; hau da, inon argitaratu ez direnak, ezta beste lanen moldaketarik ere. Sariketako oinarriak *Irudienea.topagunea.eus* atarian dituzue", azaldu du Euskaltzaleen Topaguneak.

Lan irabazleak, 3.000 euroko saria irabazteaz gain, 2022ko Lekeitioko Euskal Zine Bileran estreinatzeko aukera izango du. "Jasotako lanetatik hiru finalista izendatuko dituzte, eta aurtengo azaroaren 20tik 28ra bitartean egingo den 44. Euskal Zine Bilera jaialdian, bideo-dei bidez, proiektuak aurkezteko aukera izango dute horiek".

### Aurreko aldietako irabazleak

Euskal zinemagile askorendako "bultzada" izan da Benito Anso-la saria irabaztea; hor daude, besteak beste, Paul Urkijo, Aitor Gametxo eta Maria Elorza.

## WILLIS DRUMMOND

GOIENA TELEBISTA, KOOLTUR KONTZERTUAK  
EKAINAREN 11N, EGUBAKOITZEAN, 21:00ETAN ETA 23:00ETAN

goiena  
Zu hemen zaude.





# "Errespetuz beti, argia da umorearen onura"

**KAITIN ALLENDE ZALDUNBIDE BAKARRIZKETARIA**

Gasteizko Komedialdia Umore Jaialdiaren baitan, eta 'Umorea eta osasuna' gaia proposatuta egin zuten bakarrizketa lehiaketa irabazi du Arrasateko kazetariak

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE

Astebeteko jaialdia izan zen, eta Gasteizko hainbat tokitan askotariko ekitaldiak egin zituzten; horien artean, Florida Guridi zineman maiatzaren 30ean jokatatu zen bakarrizketa lehiaketa.

**Sariarekin etxera; pozik?**

Bai, horixe! Egubakoitzean egin zuten *Mikro irekia* izeneko saioan parte hartzeko proposatu zidan nire irakaslea izan denak, eta baiezkoa eman nion. Eta geroago, lehiaketan izena emateko esan zidaten, eta, zalantza askokin, horretarako izena ere eman nuen; izan ere, urtea daroat jendaurrean saiorik egin barik.

Egubakoitzean, bada, estreinaldi txiki bat egin nuen, sei minutuko saio bat, eta domekan lehiaketa. Sorpresa izan zen lehen saria irabaztea, eta zerbait ondo egin nuela konturatu naiz, epaimahaikideen artean, bestek beste, gidoi onenaren Goya saria duen Jorge Gerrikaetxebarria zegoen eta.

**Kazetari rolaren gainean osatu zenuen lehenengo gidioa eta ama moduan jardun duzu bigarrenarekin. Hirugarrena, zeri buruz?**

*Klimaxetik klimateriora eta buelta* da izenburua. Pista bat emateko esango dizut beroaldiak arintzeko abaniko batekin ateratzen naizela taularen gainera. **Eta horren gidioa ere bizipenetatik abiatuta, ezta?**

Noski! Ikastaroetan hala gomentatzen dute; oinarrian beti dago mina eta egia, eta bi elementu horiekin sortu behar da bakarrizketa. Hori da, azkar esanda, bakarrizketa baten gidioa sortzeko oinarria. Hortaz, kasu honetan, mina da: berotuta eta izerdi patsetan egotea, hormona saltsan izatea... Baina jakin behar da horri buelta ematen eta barre egiten. Errespetuz jokatu gero, gaur egun frogatuta dago umoreak ez duela mugarik, eta nik hala bizi dut umorea. Beti esaten da menopausia iristen denean



Kaitin Allende, lehiaketaren une batean. STUART McDONALD MUSICSNAPPER

## "ZALANTZAK NITUELA AURKEZTU NINTZEN, ETA INDARRA EMAN DIT SARI NAGUSIA IRABAZTEAK"

emakumearen bizitzara, hau da, udazkenak atea jotzen duenean, ematen duela bukatu dela dena, eta ez; ez da horrela, eta hori esatera nator.

**Zureta terapia, eta, seguru, aurrean zenituen askok ondo ulertuko zizutela.**

Bai; bitxia izan zen: barreak entzuten ziren, nahiz eta irribarreak maskarak estali. Polita da ekitaldia bukatutakoan ezagutzen ez duzun jendea etorri eta gustatu egin zaiola esaten dizunean; emakumeak eta gizonak etorri zitzaizkidan, etxean hori bizi dutela esanaz.

**Zalantzarik ez zenuen izan hau ere euskaraz egiterakoan?**

Bat ere ez, argi daukat hori dela nire apustua eta aurrera egin behar dudala. Kontziente naiz, batetik, umore munduan emakume gutxi dagoela, dauden gutziak ni baino gazteagoak dira,

eta, orokorrean, gazteleraz dira bakarrizketa saio gehienak; lehiaketan bostetik bakarra izan zen euskaraz. Horregatik, saria irabazteak indarra eman dit; akaso, hori behar nuen nik ere neure buruarengan sinisteko.

**Sariaren eraginez eskaintzarik sortu zaizu?**

Denbora gutxi pasatu da, baina dagoeneko irailerako deitu ditate Laudiotik, Ararialdeko Ekin-tzen Faktoriatik; beraz, astebetean eskaintza bat jasotzea ez dago gaizki.

**Debagoienan saiorik egiteko aukerarik baduzu?**

Arrasaten iazko martxoan egin behar nuena hortxe dago oraindik egin barik, itxialdia hasi zen egunerako nuen lotuta. Bolo hori egiteko gogotsu nago, eta benetan joan nahi dut, eta nire onena Arrasateri eskaini.

**Jolas moduan hasi zinen eta dagoeneko hiru gidoi idatzita eta hainbat bideo dituz sarean. Aurrrera egiteko indarrez?**

Espero nuenaren %200 da; ez nuen uste sortzeko halako trebeziarik nuenik. Esfortzu handia eskatzen du barre eragiteak, baina hala jarraituko dut, inor mindu barik, ezta norbera ere.

## Goiena Klubaren txokoa

**Goiena Klubeko ekaineko sariak!**

**Telebista LG 32"**

Parte hartzeko sariaren izena: Telebista



**Sarrerak**

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak. Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz

**ARRIKRUTZ**  
GASTEIZKO BARRIOA

**Otarrea**

Bidezko merkataritzako produktuak. Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

[www.harrizketa.com](http://www.harrizketa.com)  
Bidezko Merkataritza Produktuak

**PARTE HARTZEKO:**

Posta elektronikoa: klub@goiena.eus WhatsApp: KLUBA "sariaren izena" (barkidaren zenbakia) 888 69 00 07 zenbakia. "goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrez dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakingo dugu zure datu pertsonalari Goiena Komunikazio Zerbitzuaren bitartez sariarekin lotuta zurekin dagoela. Zure bilerak honen itxura baten da indarrez dagoen legearen arabera. Eskatzen dugun informazioa, hain zuzen ere, zure informazioa helburu horretarako. Klub@goiena.eus

**Irabazi bi lagunendako sarrerak**

**Arrasateko udalari esker**

'Nekatutak' monologorako bi sarrera zozketatuko ditugu. Arrasate | Amaia Antzokia | Ekainaren 19an | 19:00etan

**PARTE HARTZEKO: EKAINAK 20**

E-postaz: klub@goiena.eus WhatsApp: KLUBA "Monologoa" (barkidaren zenbakia) 888 69 00 07 zenbakia.

'goiena app'-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Indarrez dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakingo dugu zure datu pertsonalari Goiena Komunikazio Zerbitzuaren bitartez sariarekin lotuta zurekin dagoela. Zure bilerak honen itxura baten da indarrez dagoen legearen arabera. Eskatzen dugun informazioa, hain zuzen ere, zure informazioa helburu horretarako. Klub@goiena.eus

**Irabazi bi lagunendako otordua**

**ZAPORE JATETXEARI ESKER**

Begiratu Puntua aldiarik Otorduan atala eta hartu parte! Parte hartzeko azken eguna: ekainak 15



943 25 05 05



klub@goiena.eus



'goiena app'-a / zozketa atalean.



KLUBA Jatekero

(barkidaren zenbakia) 888 69 00 07 zenbakia.



Puntua aldiarik jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!

BAZKIDETZA KUOTA: 30€  
